

MOZORROA GERTU

ARATUSTEAK DEBAGOIENEN: IKUS 'HERRIAK' SAILA



Bidali zure argazkiak eta eskuratu otarre bikain bat, **JON HARATEGIAREN** eta **HANKABELTZ URDAITEGIAREN** produktuekin.
 ☎ 688 69 00 07 zenbakira bidali *Aratusteetako argazkiak*. Epea: otsailaren 9tik 14ra.
 Zozketa, otsailaren 15ean. Zenbat eta argazki gehiago bidali, orduan eta aukera gehiago dituzu otarra irabazteko!



Iragarritako elurteak bazterrak zuritu ditu, baina ez du aparteko arazorik eragin kale eta errepedetan / 2



Apaltasunetik, euskarazko film baten inoizko lorpenik handiena 'Handia'-k / 40

SINADURAK

	GOTZON IPARRAGIRRE / 8		MARINA ETXEGOIEN / 35
	ENERITZ URRUTIA / 12		AINTZANE OIARBIDE / 48



Elkarrizketa Joxe Mari Agirreberri, 'Porrotx' pailazoari

Industriaren eragina euskararen bilakaeran



Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 38 • ARRASATE • 943 71 18 70





Elgetan, eguen goizean elurra kentzen. JONE ALBENIZ



Oñatiko auzoak garbitzen. O.E.



Atzo, Gatzaga itxita egon zen denbora batez. GOIENA

Denean zuritu arren, ez du arazo handirik sortu

Eguraldi iragarpenak bete, eta Debagoieneko herri guztiak zuritu dira aste barruan. Herri eta auzo garaietan izan dituzte arazo gehien, baina normaltasunaren barruan; Guztira, 130 lagun inguru ibili dira lanean kaleak eta auzoak garbitzen

Xabier Urzelai ARRASATE
Bergarako brigadako langileek –bailarako gainontzeko herrietakoek moduan– ohi baino goizago hasi dute egunotan lan jarduna: "Seietan, iragarpenak bete egin direlako eta herrigunean ere elurra egin duelako. Baina egin duen elurra erraz kentzekoa izan da; Bergaran, behintzat, elur-ura bota du. Ka-

leak garbitu ostean gatza botatzen ibili gara; izan ere, elurrak baino, izotzak ematen ditu arazo handiagoak". Bada, Debagoienean 130 lagun inguru ibili dira egunotan elurra kentzeko lanean. Brigadako langileekin batera kale garbitzaileek ere zeregin horretan jardun dute, eta, herriaren arabera, baita lorezainek eta udaltzainek ere.

Istripua GI-627 errepidean
Errepideetan ere buruhaustek sortu ditu botatako elurrak, baina puntuala izan da. Eguen goizean Udanan kamioi bat gurtzatu eta auto ilarak sortu zituen, eta, denbora laburrean izan bazen ere, Kanpanzarko eta Gatzagako mendateak itxita egon ziren, baita Elosua ere: "Errepide nagusietan ez da aparteko

Elurra kentzen dabilzanak

Oñati

Brigadako bederatzi langile, kale garbitzaileen laguntzarekin.

Eskoriatza

Brigadako bost, eta kontratatu dituzten beste bi langile. Elizateetan bi baserriarren laguntza.

Aretxabaleta

Bost udal langile, hiru kale garbitzaileen laguntzarekin.

Bergara

50 lagun, guztira, brigadakoak eta kale garbitzaileak batuta.

Elgeta

Hiru lagun dabilta lanean.

Arrasate

Brigadako 12 langile, Cespa enpresako kale garbitzaileen laguntzarekin (beste 16 lagun).

Aramaio

Hiru lagun dabilta lanean.

Gatzaga

Langile bat dute herrirako, eta errepidea garbitzeko enpresa bat azpikontratatu dute.

Antzuola

Brigadako lau lagun dabilta, udaltzainaren laguntzarekin. Bi makina azpikontratatu dituzte.

arazorik egon, baina bigarren mailako mendate batzuk itxita egon dira", adierazi du Ertzaintzak. Atzo, ezbehar bakarra GI-627 errepidean izan zen: Aretxabaleta eta Arrasate artean bi autok elkarren kontra jo zuten, eta, ondorioz, gizonezko bat Arrasateko ospitalera eraman zuten.

Metroa pasa elur Urbian

Elurra bota bai, baina mendiaz gozatzeko giro petrala egin du: "Joan den asteburuan Urbiako fondan jendea ibili zen, baina ez beste batzuetan baino gehiago", adierazi du fondako arduradun Haritz Altubek. Astebururako ere eguraldi txarra eman dute, eta Aratusteak dira; ez dugu jendetzarik espero". Dagoeneko metro pasa elur dute Urbian.

Eta elur horrek guztiak eragina izan du Urkuluko urtegiari: "Agindua da gainezka egin aurretik, metro erdiko mugaren azpitik mantentzea. Hala, tarteka, hustu egiten dugu apur bat. Aste barruan, momentu puntualetan, zazpi metro kubiko segundoko husten ibili gara", adierazi du Imanol Zabaletak, Gipuzkoako Ur Kontsorzioko Debagoieneko antolaketa-buruak.

ASTEBURUAN TXARRETIK JARRAITUKO DU

BIGARREN MAILAKO ZENBAIT MENDATE ITXITA EGON DIRA

GAINEZKA EGIN AURRETIK URKULU HUSTEN DABILTA



ARATUSTEETAKO ARGAZKIEN GOIENA LEHIAKETA 2018

ANTOLATZAILEA: **goiena**
Zu hemen zaude.

LAGUNTZAILEAK: **new blue** **hankabeltz**

Bidali zure argazkiak eta eskuratu lagunartean edo familian partekatzeko otarre bikain bat, Jon harategiaren eta Hankabeltz urdaitegiaren produktuekin.

688 69 00 07 zenbakira bidali Aratusteetako argazkiak, Whatsapp edo Telegram bidez.

Parte hartzeko epea **otsailaren 9tik 14ra** bitartean.

Zozketa **otsailaren 15ean** egingo da jasotako argazki guztien artean. Zenbat eta argazki gehiago bidali, orduan eta aukera gehiago izango dituzu otarra irabazteko.



Mondragon epaiketara, maiatzean, Bergaran

Bergaran egingo dute, maiatzaren 7tik 10era, Eskuratuk eta Ordainduk Mondragonen kontra ipinitako demandari dagokion epaiketa. Lehenengo hiru egunetan egingo dituzte bista saioak eta maiatzaren 10ean egingo dute ondorioen aurkezpena

Miren Arregi ARRASATE

Bergarako auzitegian egingo dute, maiatzaren 7tik 10era bitartean, Eskuratuk eta Ordainduk Mondragonen kontra ipinitako demandari dagokion epaiketa. Bista saioak maiatzaren 7an, 8an eta 9an egingo dituzte eta bertan Mondragoneko hainbat zuzendarik deklaratu dute testigu gisa. Ondorioen aurkezpena, berriz, maiatzaren 10ean egingo dute.

Duela bi urte pasa hasi zuten prozesua Eskuratuko eta Ordainduko 900 langile ohik. Horiek 47 milioi euro erreklamatzeko dizkiote Mondragoni. Diote enpresak "engainatu" egin zituela, alegia, Mondragonek ez zituela Fagor Etxetresnak eta Edesa lantegien benetako egoeraren jakitun egin: "Guri esaten ziguten, alde batetik, Fagor Etxetresnak lantegiak etorkizun ona zuela eta ez zegoela finantzazio arazorik, eta hori gezurra zen", dio Ordainduko ordezkari Mikel



Azaroan Bergaran egin zen epaiketa aurreko entzualdia. IKER OÑATE

Olabe. "Jendeak askotan esaten digu: 'Baina nola ez zineten konturatu?' Gu, Fagor Etxetresnako 2.000 langile, eta baita bai-larako eta Euskal Herriko biztanleok, guztiz inozoak gara? Guk ez genekien ezer, bestela

hau ez zen gertatuko". Hain zuzen ere, hori da epaiketan demostratu beharko dutena: "Partikularki eskatzen diegu Belen Kortabarriari, Agustin Markaideri eta Txema Gisasolari, egia esan dezatela. Egia esaten ba-

dute, guk uste dugu aukera asko ditugula epaiketa irabazteko".

Hamaika lagun deklaratzera

Epaileak hamaika lagun deitu ditu deklaratzera. Guztiak ere, Mondragoneko zuzendariak edo zuzendari ohiak. Lehendabiziko saioan, maiatzaren 7koan, Mondragoneko idazkari orokor Aritz Laskurainek deklaratu du, taldea ordezkatzuz. Gainera, egun horretan, Mondragoneko presidente ohi Jose Mari Aldekoak eta Txema Gisasolak ere deklaratu dute. Baita Belen Kortabarriak eta Fabian Bilbao ere. Hurrengo egunetan deklaratu dute gainontzekoek: Javier Sotilek eta Agustin Markaidek, Javier Retegik eta Ana Maria Beristainek, Xabier Goikoetxeak eta Sergio Treviñok.

Epaiketa konplikatu esperatu dute Ordainduko kideek: "Alde batetik dago Mondragon, indar handia duen Euskal Herriko multinazionala, eta beste alde batetik gu, 900 langile ohi", dio Olabe.

Lehenengo hiru egunetan testiguen deklarazioak jaso ondoren, maiatzaren 10ean aurkeztuko

dituzte ondorioak, eta, horrela, prozesua epaia emateko prest geratuko da.

Bi aldeak pozik azaldu dira epaiketaren data jakitean. Mondragonek adierazi du epaiketa egunean euren argumentuak mahai gainean ipintzeko dena gertu duela.

Ordainduko eta Eskuratuko kideak ere pozik, "azkenean" epaiketak baduelako data.

Datozen egunetarako mobilizazioak iragarri dituzte Eskuratuko eta Ordainduko kideek. Datorren egunean, hilak 15, Bergaran egingo dute manifestazioa: "Bergaran egingo dugu, han izango delako epaiketa, eta ikusgarritasuna emategatik". 18:30ean hasiko da, herriko plazatik, eta herriko kaleak zeharkatuko ditu. Arrasateko Gari-baiko geltokitik aterako da

LANGILE OHIEK 47 MILIOI EURO ERREKLAMATZEN DIZKIOTE MONDRAGONI

Emakumeen greba deitu du mugimendu feministak

"Muga guztiak gaindituko dituen greba feminista bat" proposatu dute aurtengo Martxoaren 8ari begira

M.A ARRASATE

Enpresa mundutik harago, zaintza-lan ikusezinetan eta kontsumoan ere "planto" egiteko eskatu du mugimendu feministak.

Greba lau ardatzen inguruan antolatu dute. Alde batetik, enpresetan kontratatutako behargini eta ikasleei launa orduko bi lanuzte egiteko eskatu diete. Bestetik, garbiketarik ez egiteko, haurrik ez eramateko eskolara edota adinekorik ez zaintzeko egun horretan. Grebaren seinale gisa, besoko morea eramateko eta leihoetatik edo balkoie-

tatik amantalak zintzilikatzeko eskatu dute. Azkenik, egun horretarako kontsumo greba ere proposatu du mugimendu feministak.

Emakumeen Mundu Martxak dagoeneko bi batzar antolatu ditu Debagoiengan Martxoaren 8ko greba antolatze aldera -lehen Bergaran egin zen, bigarrena Oñatin-: "Egun horri begira ditugun ideiak partekatu ditugu", diote antolatzaileek. Hirugarren bilera Aretxabaletan egingo dute hilaren 15ean, eguena, 19:00etan, udaletxe zaharrean.

Abendutik urtarrilera aldaketa gutxi langabezia datuetan

Debagoiengan %0,06 jaitsi da langabezia urtarrilean. Iazko urtea %8,56ko tasarekin amaitu zen eta 2018ko lehen hilabetearen %8,50era jaitsi da. Hala ere, Arrasaten igo egin da; azken hilabetearen 29 langabe gehiago egon dira, eta, langabezia tasari dagokionez, Debagoiengo altuena izaten jarraitzen du.

Arrasateko datua hori izanda ere, hobei langabe gutxiago egon dira urtarrilean Debagoiengan, aurreko hilabetearekin alderatuta. Hego Euskal Herrian, aldiz, gora egin du langabezia, %1,04. Guztira, 164.983 pertsona daude langabezia Hego Euskal Herrian, Espainiako Lan Ministerioaren arabera.

bertako
igogailuak | ascensores
igogailuen mantentze-lanak

24 orduko
asistentzia abisu guztientzat

Iraupen-konpromisorik
gabeko kontratuak

Orotariko zerbitzua
100 €-tik aurrera

Euskarazko
zerbitzua

LARRIALDI TELEFONOA DOAN

GARAIA Goiru 1A - Arrasate • 943 90 34 50
www.bertako.eus • info@bertako.eus



Bergarako, Arrasateko eta Oñatiko kiroldegietako abonatu txartelak. XABI GOROSTIDI

Xabi Gorostidi DEBAGOIENA

Bizitza osasuntsua izatea eta nork bere itxura zaintzea gizartean gero eta hedatuago dauden bi joera dira. Horiei lotuta, kirola egitea ezinbesteko baldintza da, horrek dakartzan onurak ugariak direlako: kaloriak erretzeko balio du, muskulua eta hezurak indartu egiten dira, eta kolesterola zein hipertentsioa baretzen ditu. Baina ez hori bakarrik, estresa kentzeko modu eraginkorra da, eta ondo lo egiteko baliagarria izan daiteke atsedean hartzeko zailtasunak dituztenentzat.

Gizartean gero eta sustraituago daudela esateko hainbat adierazle daude, baina horietako bat kiroldegiek duten erabiltzaile kopurua da. Debagoienaren kasuan, kiroldegietako abonatu kopurua gora egin du azken urteetan, eta gaur egun eskualdeko herri handienetan 18.000 abonatu gora daude. Ondorengo lerroetan, herri bakoitzaren egoera eta argazkia erakutsiko du GOIENAK.

Arrasaten %2,5 gora

Arrasateko Kirol Zerbitzuak gaur egun 5.170 abonatu ditu, iaz baino 128 gehiago. Abonauk hilekoak edo urte osokoak izan daitezke, eta horietan hiru modalitate daude: lehorra, hezea eta aurreko biak bateratzen dituen Plus modalitatea.

2018ko urtarrileko datuak iazkoekin alderatuz gero, Plus modalitateak izan du igoera naba-

Kiroldegietan, abonatu gehiago

Azken urteetako tendentziarekin jarraituz, bailarako kiroldegiek gero eta abonatu gehiago dituzte. Une honetan 18.000 abonatutik gora daude Arrasateko, Oñatiko, Bergarako, Aretxabaletako, Eskoriatzako eta Elgetako Kiroldegietan zehar banatuta

riena (%11,7), iaz baino 175 abonatu gehiagorekin.

Kirol Zerbitzuak eskaintzen dituen ikastaroei dagokienez, k-stretcha eta spinninga dira arrakasta handienak, eta, helduen kasuan, igeriketa eta pilatesa dira gustukoena.

Oñatin, 5.000ko langa helburu

Oñatiko Zubikoa kiroldegian 5.000 abonatu zifratik gertu daude. 2017ko abenduko datuei erreparatuta 4.896 abonatu daude herrian, eta, bertako arduradun Oscar Carrascalek esandakoaren arabera, 2018an 5.000

ESKUALDEKO HERRI GEHIENETAN ABONATU KOPURUAK GORA EGIN DU AZKEN URTEAN ZEHAR

abonatutik gora izatea espero dute. Txantxikuarren kasuan, abonauk urte osokoak edo urte erdikoak izaten dira.

Arrakasta handienak duten ariketak fitnessa eta gimnasia ekintzak dira. Hala ere, ur ekintzak eta ikastaroen arrakastatsuenak direla azpimarratu du Carrascalek. Datu batzuk ematearren, fitnessak eta gimnasia ekintzek 5.600 erabiltzaile izan zituzten 2017an. Ur ekintzek eta igerilekuko ikastaroei, aldiz, 4.425 erabiltzaile.

Bergaran gorabeheratsu

Begarako Agorrosin 3.647 bazkide zeuden urtarrila bukatu. Azken urteetako datuei erreparatuz, bazkide kopuruan tendentzia argiak daude urteko sasoiaren arabera. Urte hasieran kopuru baxuenetarikoa izaten dute, baina, uda gerturatzeaz

bat, gorantz joaten da. Udatik abendura, aldiz, bazkide kopurua progresiboki jaisten da.

Jarduera arrakastatsuenak pilatesa eta *cycling*-a dira. Hala ere, haurren igeriketak ere oso harrera ona du bergararren, hilabeteko 300 haur erakartzen ditu eta.

Aretxabaletan, gora etengabe

Aretxabaletako Ibarra kiroldegian 3.082 bazkide zituzten urtarri erdialdean. Ez da kopuru makala, batez ere, 2013an 1.755 bazkide zituztela kontuan izanez gero. Beraz, esan daiteke duela

BERGARAN ETA ESKORIATZAN BEHERA EGIN DU DATUAK, BAINA OSO MODU APALEAN

bost urteko bazkide kopurua bikoiztetik gertu daudela. Urtarrilean gorakada izaten duten galdetuta, zera erantzun dute Ibarra arduradunek: "Urteko abonua geneukan garaian, bai gertatzen ziren gorabehera handiagoak abenduan eta urtarrilean, baina gaur egun, abonua hileko izanik, ez da halako aldaketa nabarmenik nabaritzen urtarrilean".

Erabiltzaile gehienak euren kabuz joan ohi dira kirola egitera; igerilekura, fitness gelara eta rokodromora, adibidez. Baina kiroldegian bertan antolatzen diren jardueri dagokienez, igeriketa, zumba eta areto bizikleta dira jende gehien erakartzen dutenak.

Eskoriatzan, ikasleen eragina

Eskoriatzako kiroldegian 1.420 bazkiderekin hasi dute urtea. Batez beste, 518 erabiltzaile dituzte egunero, eta ikastaroetan eskaintzen dituzten 570 plaza-tik 398 beteta daude.

Urtarrilean bazkide gorakadarik ez dute igartzen, baina bazkideen aktibitate mailari dagokionez bai, ordea. Euren kasuan, bazkide kopuruaren igoerarik nabarmenena irailean eta urriaren izaten dute, ikasturte unibertsitarioaren hasierarekin batera.

Erabiltzaile gehien pilatzen dituzten jarduerak hauek dira: umeen igeriketa, *indoor* bizikleta, *acquiagyma* eta zumba, hain zuzen ere.

Elgetan, kirol migrazioa

Elgetako kiroldegian 40 bazkide daude. Bertako dinamizatzailer Etor Garateren arabera, kirolarekiko interesa handitzen ari da herrian, baina instalazioak ez berritzeak eta jarduera berriak ez gehitzeak eragiten dute jendea beste herri batzuetara joatea. "Ez daukagu igerilekurik, eta, hain zuzen, jendeak hori asko baloratzen du".

Antzuolan, negoziatzen

2017ko uztailean kiroldegia usiatzeko kontratua agortu zen, eta ordutik hona itxita dago. Bi deialdi publiko egin dituzte zerbitzua berriz esleitzeko, baina ez du inork izenik eman. Hori dela eta, deialdi negoziatua egitea erabaki du Udal Gobernuak, eta une honetan hainbat enpresarekin harremanetan ari da.

Aramaion, topera

Berriki, Maider Unda izenarekin bataiatu dute kiroldegia. Irailean gimnasia-gela egokitu zutenetik aktibitate ugari egiten dira bertan: sasoiaren egoteko gimnasia nagusientzako, pilatesa, GAP, flamenkoa, dantza eta yoga. Horrez gain, Pilota Taldekoak, eskola kirolekoak, Ointxe! saskibaloiko talde bat eta Hanka-labankako patinatzaileak bertan entrenatzen dira. Aste bitartean ordu bakar baten egoten da libre frontoia –eguztinetan 20:00etatik 21:00etara–; beraz, oso erabilera maila handia du.

Gatzagan, kiroldegirik ez

Frontoiak betetzen du kiroldegi funtzioa. Eskupilotan, palan eta frontenisean egiteaz gain, rokodromoa era badu, baita boxeoa egiteko zakua ere. Urtean zehar pisu handien hartzen duen kirol ekintza pilota txapelketa da.

Jarduera arrakastatsuenak**Arrasate**

- Gazteen artean k-stretcha, spinninga eta igeriketa.
- Helduen artean igeriketa eta pilatesa.

Oñati

- Fit-bikea, pilatesa eta zumba dira jarduera jendetsuenak.
- Horiez gain, ur ekintzek eta ikastaroez ere oso harrera ona izaten dute.

Bergara

- Pilates eta *cycling* jarduerak erakartzen dute jende gehien.
- Horiez gain, haurren igeriketaz ere oso harrera izaten du –300 haurretik gora hileko–.

Aretxabaleta

- Erabiltzaileek gehien erabiltzen dituztenak igerilekua, fitness gela eta rokodromoa dira.
- Antolatzen diren jarduerak dagokienez, igeriketa, zumba eta areto bizikleta dira jende gehien erakartzen dutenak.

Eskoriatza

- Umeen igeriketa, *indoor* bizikleta, acyagyma eta zumba dira aktibitate arrakastatsuenak.

Elgeta

- Taldekako aktibitateak dira herrian jende gehien erakartzen dutenak. Horrez gain, frontoian, esku pilota eta squash taldeetako kideak aritzen dira.
- Era pribatuan, yoga eta zumba ere egin daitezke herrian.

Abonatu kopurua herriz herri

Herria	Abonatuak	Igoera %
Arrasate	5.170	%2,50
Oñati	4.896	%0,84
Bergara	3.647	-%0,69
Aretxabaleta	3.082	%11,30
Eskoriatza	1.367	-%1,52
Elgeta	40	%14,28

ITURRIA: DEBAGOIENEN KIROLDEGIAK



Herriko hainbat ostalari, dastaketa saioaren bukaeran. AMAIA TXINTXURRETA

Ardoaren eta txakolinaren ezaugarriak gertutik ezagutzen

EAEko hainbat ardoren eta txakolinaren bueltakoak ezagutzeko aukera izan dute Oñatiko ostalariek

Iker Oñate OÑATI

EAEko ardoa eta txakolina bultzatu guran, horiei buruzkoak ezagutzeko aukera izan zuten martitzenean Oñatiko ostalariek; Zumeltzegi dorrean zuten hitzordua. "Hemengo ardoa eta txakolina hobeto ezagutarazten ahalegintzen gara. Modu horretan, ostalariek errazago hartuko dute bezeroei horiek eskaintzeko ohitura", argitu du Josema Azpeitiak, saioaren dinamizatzaileak.

Bada, guztira, bederatzi ardo eta hiru txakolin dastatu zituzten parte hartzaileek; tartean, Oñatiko Murgialdai txakolina. Eta, dastatu bitartean, horiei buruzkoak azaldu zituen Azpeitiak. Kostaldeko txakolina ere ekarri zuen gogora: "Gipuzkoan kostaldeko txakolinak dira nagusi. Ez da edozelako datua, munduan gutxi baitira mahatsak itsasoari begira dituztenak. Itsa-

soko gatz horrek indarra ematen dio edariari. Beraz, baditu bere berezitasunak".

Ostalarientzat, lagungarri

Bestetik, bertaraturiko ostalariek ere eskertu zuten formakuntza saioa. "Gero eta gehiago dira ardoari edo txakolinari buruzkoak ezagutu gura dituzten turistak. Eta geuk, sarri, gutxi dakigu horren inguruan. Horren kontra, lagungarri zaizkigu halako saioak", dio Miren Maiztegiak, Goiko Benta jatetzeko ostalariak; zalantzak argitzeko aukera izan zuten partaideek.

Horrez gain, "betiko" edariez gandi egiteko beharrez ere jabetu ziren ostalariak. "Askotan, betikora jotzen dugu, klasikora. Baina jakin behar dugu horietatik harago doala txakolinaren eta ardoen mundua", dio Maiztegiak. Horretarako, zenbait gako ere landu zituzten.

Debagoieneko GREMIOAK**ARROZTEGIAK****AZKARATE ARROZTEGIA**

BERGARA
• Atak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaloak.
• K-21
Telleria 19 B02-B03
Tel.: 943 75 47 19 / 610 86 40 20
biogak.goiena.net/azkarate

HONDEAKETAK**EXCAVACIONES Y CONTRATAS ARRASATE SL**

ARRASATE
Meatzareka 30
Tel.: 943 77 12 26 / 646 29 59 87
a.arrasate@gmail.com

ITURGINTZA**EGIA ITURGINTZA**

ARRASATE
Gipuzkoa ataridea 39, behea
Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA

ESKORIATZA
• Iturgintza eta gasa
• Berogailuak eta petrolio-produktuak
• Klimatizazioa
Aranburuzabala 15
Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69
coyanguren@ctc.es

URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABALETAK
• Instalazioen mantentze-lan gurtiak
• Berokuntza eta gasa
• Aire giroa eta haizertzatzea
Basabe Industrialdea B-3
Tel.: 943 77 19 88
Faxa: 943 79 59 97

LEIHOAK

ARGI-PLASTIK
ARRASATE
Zigarrola kalea 1, 8 pab
Tel.: 943 77 11 30

LOREZAINZTA**MAKAI KOOP. ELKARTEA**

ARETXABALETAK
• Barruko zein kanpoko lorezaintza
• Urreztatze sistemak
• Loranitz-ekuskariek eta balkonenak
Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
Faxa: 943 79 78 45

Inagarkia jami nahá beduztu,
deitu 943 25 05 05 zentakira.

Ibarreko ordezkaritza First Lego Leaguen

Mariaren Lagundiko eta Arizmendiko ikasleek bihar dute hitzordua. Uraren zikloaren bueltako egitasmoak aurkeztuko dituzte EAE mailako lehiaketan. Epaimahaiak lau proiektu aukeratuak ditu, Estatuko beste finalistekin lehia daitezten

Iker Oñate DEBAGOIENA

Debagoieneko hainbat ordezkari izango dira Euskadiko First Lego League lehiaketan. Hain zuzen ere, orain arte eraikitako zenbait egitasmo aurkeztuko dituzte Mariaren Lagundiko (Bergara) eta Arizmendiko (Eskoriatza) DBHko 4. mailako ikasleek. Bihar dute hitzordua, zapatua, Gasteizen –egun osoko ekintza izango da–. Eta euren egitasmoei azken ukituak ematen jardun dute astean zehar; robot bana egin du ikasle talde bakoitzak, besteak beste. "Misio ezberdinak egin behar ditu; ura alde batetik bestera garraiatzea da horietako bat", dio Mikel San Torcuatok, Mariaren Lagundiko ikasleak. Aurten, uraren zikloa dute jorragai.

Oro har, irakasleak "pozik" dira esperientziak eskaintzen duenarekin. "Ikasleek askoz gehiago barneratzen dute halako egitasmoekin, eskolako egunerokoarekin baino. Eta geuk

**"GUSTURA NAGO
JADA; EDERKI IBILI
DIRA IKASLEAK ETA
ASKO IKASI DUTE"**

ITSASO ARENAZA, ARIZMENDIKO
IRAKASLEA

ere ikasten dugu, beti baitago zer ikasia", aitortu du Andoni Lopez de Armentiak, Mariaren Lagundiko irakasleak. Arizmendi Ikastolako irakasle Itsaso Arenazak, berriz, gaineratu du hitzordua "gustura egoteko moduko" jarrera bultzatzen duela ikasleengan. "Autonomiaz jardun dute lanean, gogoz eta errespetuz, talde lanean. Beraz, jada pozik nago esperientziak eskaintakoarekin, zapatuko emaitzari begira egon barik", argitu du. Egitasmoarekin hasi aurretik, Arenazak hainbat argibide eskaini zizkien ikasleei, eta euren esku geratu zen osteko lana.

Ibarretik, zazpi talde

Zehatz esanda, lau talde aurkeztu ditu Arizmendik; eta hiru, Mariaren Lagundiak. Beraz, zazpi talde joango dira Debagoienetik –bederatzi kide inguru ditu horietako bakoitzak–. Eta, tartean, denbora librean egin behar izan dute lan ikasle horiek guztiek. "Gustura egin dugu lan. Ondorioz, ez da horren nekeza izan eskola orduetatik kanpo etortzea. Finean, lana aurreratu beharra genuen, halaberharrez", azaldu du Aiora Diaz de Gereñuk, Arizmendiko ikasleak.

Zientzia eta teknologia

Mundu mailako First Lego League lehiaketak zientziaren eta teknologiaren sustapena du helburu nagusi. Eta, zeregin horretan, 10 eta 16 urte bitarteko neska-mutikoak ditu erdigunean. Bada, ikerkuntzan murgildu gura ditu parte hartzaileak, hainbat erronka finkatuz: aurtengo edizioan, *Hydro Dynamics* bataiatu dute erronka.

Hain zuzen, uraren giza zikloa hobetzeko konponbideak bilatu behar izan dituzte ikasleek. Alegia, aztertu behar izan dute nola hobetu zitekeen ura aurkitzeko, garraiatzeko, erabiltzeko eta aurkitzeko era, betiere, gizakia erdigunean jarriz. Eta era guztietako egitasmoak landu dituzte horren bueltan.

Halakoen bidez, hainbat balio bultzatu gura ditu proiektuak: errespetua, talde lana eta jakinmina, besteak beste. Hala, horietan murgildurik jardun dute ikasleek azken hilabeteetan. Eta

**"IRAKASLEONTZAT
ERE ABERASGARRIA
DA ESPERIENTZIA;
BETI DAGO ZER IKASI"**

ANDONI LOPEZ DE ARMENTIA, MARIAREN
LAGUNDIKO IRAKASLEA



Arizmendiko zenbait ikasle. IMANOL BELOKI



Mariaren Lagundiko hainbat partaide. IMANOL BELOKI

hori ere erakutsi beharko dute bihar: taldeek kartel bana aurkeztu beharko dute Gasteizen, proiektuan landutako balioak ikusaraziz.

Lau talde Estatuan

Aurten, 48 ikasle taldek jardungo dute Gasteizen; eta horieta-

tik lau sailkatuko dira Estatuan lehiatzeko. Dena den, ibarreko ikasleek argi dute zer lortu gura duten: "Ondo pasatzea da helburu nagusia. Eta lehiaketa aurreneko postuetan bukatuz gero, harik eta hobeto. Baina, esandakoa, hori ez da asmo nagusia".

JAIK: ARATUSTEAK

GOIENA TELEBISTA, DEBAGOIENEN ARATUSTEAK

OTSAILAREN 14AN, MARTITZENEAN,
BERGARAKO ARATUSTE KONTZERTUA, 23:00ETAN.

OTSAILAREN 14AN, EGUAZTENEAN,
JAIK, 21:00ETAN ETA 23:00ETAN.

goiena
Zu hemen zaude.



Zorion handia**MIKEL BIAIN BERRAONDO**OÑATIKO ALKATEA
OÑATI

Larunbat gaueko aho zapore gozoak irauten digu oraindik, eta zaila egingo zaigu ahazten bizi izandako hori.

Konparaketak egitea mingarria dela esan ohi da, eta zerbaitegatik izango da. Bizitzan bizi izandako gauza ederren atzera begirada bat egin eta ez pentsa, esatekoak ez diren horietatik harago... ba, gauza gutxi ederragorik!

Gauza gutxi ederragorik, euskal kultura eta nortasunaren ikuspegitik. Izan ere, euskal idazle famatu horren hitzetan, agian, moroak izango gara lainopean, herririk ez eta harri txintxarrak besterik ez gure poltsiko zulatueta... Ez dela lan samurra euskaldun izatea.

Eta eskerrak, lainope horretan, tarteka sartzen diren argi errainuak eta agertzen diren argi distirak.

Euskal jendarte zabal batek barru-barrutik bizi izan du eta oraindik biziko du *Handia*-k sortu duen distira. Ez da gutxiagorako. Historikoa izan da, eta epikoa ere bai. Harro sentiarazten gaitu.

Izan al genezake enbaxadore hoberik kalitatezko euskal produkzio bat munduan zehar ikusgai izatea baino?

Argi distira ez ezik, oin-harri handi eder bat –patata izan zitekeen arren! Kar,

kar– gure herri zahar honen harresia gogortzeko lanetan, zergatik ez.

Bueno, eta esan behar dut, agian, honetan guztionetan niretzat ederrena izan dela norbere kuadrillako laguna telebistako pantailan ikustea, pajarita jantzita, Madrildik, euskaraz, etxeakoak eta lagunak agurtzen.

Merezitako omenaldia jaso du egunotan *Handia*-ren ekoizpenean parte hartu duen lantaldeak. Oñatiko herriak ere dagokion neurrian bere egiten du eta sentitzen du *Handia*-k jasotako errekonozimendu hori.

Laster, aukera izango dugu Aitorren bizipenak bertatik bertara entzun eta berriz gozatzeko. Santa Anan izango da otsailaren 19an arratsaldeko zazpitan. Eta, nola ez, *Handia* berriz ere itzuliko da gure herriko zine aretora otsailaren 16-18ko aste bukaeran.

Zorionak, bihotzez, Aitor, Amaia, Martin eta etxeako guztiei!

Seguru guztiek duzuela zuen zatitxo Goya sari horietan.

Arrikruzko lehoia Atapuerca ingurura**IÑAKI ZUBELDIA**
IKAZTEGIETA

Dakizuenez, Gipuzkoan daukagu leizeetako lehoiaren hezurdura konpleto bakarria Iberiar Penintsula osoan.

1966an agertu zen Arrikruzko koban eta Penintsula osoan aurkitu zen leize-lehoiaren

lehenengo hezurdura zen eta Europan hirugarrena. Besterik ez da aurkitu; osorik, behintzat. Hezur solteren bat edo beste bai, baina osorik ez.

Euskal Herrian lehendik ere baziren lehoiaren hezur solteak: Arrasateko Lezetxikin lehoiaren burezurra aurkitu zen hamalau pusketatan zatitua eta Itziar edo Zestoa aldeko kobaren batean izter hezurren bat.

Jakina da baita ere Euskal Herrian leize-zuloetako labar pinturen artean ez zela lehoirik agertu duela gutxi arte.

Iaz agertu zen Lekeitioko Armintzeko koban leize-lehoiaren lehenengo irudia.

Frantziako Chauvet izeneko haitzuloan lehoien irudi piloak agertu dira eta horien bidez dakigu gutxi gorabehera nolakoa zen felido erraldoi hori.

Bada, gure Arrikruzko lehoia Burgosko Museo de la Evolucion Humana ospetsura joango da martxoan.

Horretarako bideo bat eta azalpenak prestatzen ari dira.

Han daude baita ere Atapuercan egindako hainbat aurkikuntza garrantzitsu. Badirudi, gero, handik San Telmoko museora ekarriko dutela, nahi duenak ikus dezan eta piztitzar horri buruz zerbaite gehiago jakin dezan.

Aukera paregabea Arrikruzko koba ezagutzeko, hango edertasunak eta urak egin dituen aldaketa

harrigarriak bertatik bertara ikusteko eta lehoiaren egoitza izan zenaz familiarekin gozatzeko.

Gero, San Telmora ekartzen dutenean Europan bakarrenetakoa den lehoi hori, ederra izango litzateke piztitzarraren hezurdura ikustea eta benetan nolakoa izango zen imajinatzea.

Arrikruzko lehoiaren aurkikuntza garrantzitsua izan zen bere garaian eta gaur egun ere oraindik hala da, ia hezur guztiak aurkitu zirelako –hezurdura osotzat jotzen da hezurren %75en bat topatzen direnean, eta Arrikruzko lehoiaren kasuan %95etik gora topatu ziren–.

Horrez gain, saiheztu hezurren bat edo beste puskatu eta berriro soldatuta dauzka, lesio larriren bat sufritu eta gero sendatu zitzaion seinale.

Horrek ere berezia egiten du gure lehoia.

Baina, geroztik, aurkikuntza bikainak egin dira munduan: 2015ean, Yakutian, Siberian, aurkitu zituzten bi lehoikumerena adibidez. Oso-osorik zeuden, azal eta guzti, Siberiako permafrost edo izotz iraunkorretan bikain kontserbatu baitziren, izozkailu batean bezala. Kumeak ziren, luzeran 42 zentimetro ingurukoak, eta ia oso-osorik kontserbatzen zituzten beren ilajea, hankak, isatsa, belarriak, begiak eta bibotea. 12.000 urte inguru botatzen dizkiete bi piztitzoei. Haiengandik

informazio ugari ateratzeko itzaropena dute jakintsuek.

Ez da atzean gelditzen 2007an, Siberian baita ere, aurkitu zuten mamut-kumea. Metro bat eta hogeita hamar zentimetroko altuera eta 50 kiloko pisua zuen. 42.000 urte botatzen dizkiote eta oso ondo kontserbatuta dago, azal, haragi, tronpa, isats eta guzti.

Artikulu hau prestatzen ari nintzela topatu dut Interneten beste lehoi bat aurkitua izan dela Iberiar Penintsulan; hain zuzen ere, Kantabrian, Omoño herrian, Garma izeneko leize-zuloan. *Caso único en Europa* jartzen du eta ez dakit informazioaren ziurtasuna zenbaterainokoa den, Europan hezurdura konpleto gehiago aurkitu baitira. 2017ko urriaren 6ko data du aurkikuntza honen artikulua.

Dena den, pentsatu behar dugu leizeetako lehoi gehiago ere izango zirela Penintsularen goialde honetan eta hezurdura gehiago ere agertzen joan daitezkeela hemendik aurrera.

Baina, gomendio bat: ezagutzen ez dituzuen hezurak topatuz gero leizeetan edo arkeologikoki interesgarri diren tokietan, mesedez, ez ukitu, ahal baduzue ezkutatu zerbaitekin eta adituen eskuetan utzi hondakin hori, altxor preziatua izan baitaiteke guk hezur huts eta hotz ikusten dugun hori.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefona eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HAUXE BAI JENEROA!**GARBINE UBEDA**



ZABALIK

GOTZON IPARRAGIRRE

Missouritik Otxarkoagara

Ebbing, Missouri. Fikzioa. *Tres anuncios en las afueras* filma. Alaba bortxatu eta hil duten Mildred Hayes-en istorioa maisuki pantailaratzten du Martin McDonagh-ek. Mildred, ama da.

Munduko agresibitate, sumin, tristura, amorru guztia kabitzen da amaren bihotzean. Bueno, ez da kabitzen, baina, hala ere, sentitzen du. Denboraren galbahea igaroz, maisulana.

Hainbat hari eskegita lagako dizkizu zuzendariak, zuk nahi duzunari tira egiteko. Zuk erabaki, egunerokoan bezala. Ni, gizakion onberatasunaren aldarriaren hariari atxikitu nintzaion.

Otxarkoaga, Bilbo. Errealitatea. Pare bat gaztetxok, ustez, adin oso nagusiko senar-emazteak hil dituzte berriki. Gaztetxo batek, kide guztiak kartzelan omen. Gogorra, auzo-elkartasuna, beldurra...

BALIAGARRI IZANGO OTE ZAIGU FIKZIOA ERREALITATE GIZATIARRAGOA ERAIKITZEKO!

Askok esango du bata fikzio eta bestea errealitate direla. Nago bien arteko muga oso lausoa izaten dela. Zer da beldurra, bada? Sentitzen ez bada, fikzio, baina ai!, atzematen bazaitu, errealitate gordin! Lausoa muga.

Egoerok justiziaren etikaren eta zaintzaren etikaren arteko auzia pizten dute.

Beharrezko dugu justiziaren etika, ez daukat zalantzarik; bere gurdian datoz ikerketa, polizia, delitu, zigor, kartzela, birgizarteratze... Ez dut horren aldeko alegaturik egingo. Ez dauka beharrik.

Zaintzaren etikaren aldeko aldarria egin nahi dut. Gizarte kohesioa, errukia, erruki jatorrizkoa gero, aukera berdintasuna, barkamena, gizarte hezitzaileak, baliabide sozialak... dakartzan etika, alegia. Gizarte horretan bizi nahi dut.

Victor Frankl-ek aspaldi esan bezala, guztiok gure barrenean beti dugu askatasuna norantz joko dugun, zer egingo dugun erabakitzeke.

Nola zaborretan munduko lorerik ederrena loratzen den, hala amaren bihotzean berradiskidetzeko hazia ernetzen da filmean aurrera. Baliagarri izango ote zaigu fikzioa errealitate gizatiarragoa eraikitzeke!

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Ez dira albiste

JOKIN LABAIEN

[HTTPS://LABUR.EUS/000JP](https://LABUR.EUS/000JP)

Denboraleak. Badatoz, eta badoaz. Eta, datozen aldiro, hainbat gauza errepikatzen dira. Zain egoten gara. Aurreikusitako bat da telebistako albistegietan eskaintzen zaien denbora kopurua; albistegien hasieran eskaini ere. Luze. Luzeegi, sarri. [...] Azken denboralean, ordea, enpatiaz eta amorruz begiratzen nion jakizu nongo mendatean ilean bildutako elurra izoztuta hainbat konexiotan azaldu zen kazetari espainiarrari. Hark tristura eragiten zidan. Hura egoera hartan kameraren

aurrean azaltzea erabaki zutenek, amorrua. Hotzaren ondorioak eta eraginak ere izaten du tartea albistegien hasiera horietan. Eta ohikoa da etxegabeak hizpide hartzea. Maiz erakusten zaigu nola atondu eta eskaintzen zaizkien aterpeak, gau hotzak bertan igaro dituzten. Aditu bat azaldu ohi da, normalean, egiten duten ahalegin horren garrantzia azpimarratzen. [...] Askotan, etxegaberen bat elkarrizketatzen dute. Hala izan zen astearte gauean ere. *Teleberrin* ikusi nuen nik. [...]

Izan ere, erreportaje horiek sentipen kontrajarriak ekartzen dizkirate. Ongi deritzot, noski, halako denborale baten harira lekua

eta hitza emateari. Beharrezkoa da eta. Baina halako gauean hotzez hil daitezkeela entzuten dudak bakoitzean, egunerokoan sufritu behar izaten dituztenak hilgarri ez ote diren okurritzen zait. Albistegietan hilotz edo eraso egiten dietenean soilik agertzen dira. Lantzean behin, erreportajeren bat egiten da haiei buruz. Egunerokoan, ordea, ez dute lekurik, modu normal eta normalizatuan. Ez telebistan. Ez gutako gehienon bizitzetan edo gogoan.

Lapurtu diegun duintasuna, sortzen diguten indiferentzia eta diegun aporofobia ez dira albiste.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publizitatea

Amala Mundiñano,
Ziortza Martin,
Imanol Elortza.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantxabal.

Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Goyatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.

Administrazio zuzendaria

Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa
arduraduna Marta Leturia.

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatikoko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta
Hizkuntza
Politika Sailak
(Hizkuntza
Politikarako
Sailburuordetzak)
diruz lagundua

BERBAGAI

"Irakasleak ahaldundu behar dira hezkuntza hobetzeko"

BEGOÑA PEDROSA MONDRAGON UNIBERTSITATEKO HUHEZI FAKULTATEKO DEKANOA

Eneko Azkarate ESKORIATZA

Euskal Hezkuntzaren aldeko akordiorako oinarritzko txostena landu du Eusko Jaurlaritzak, sektoreko adituekin. MUko Huheziko dekanoa ere han izan da, gaian aditua den heinean. **Euskal Hezkuntza berritzeko txostena egin duten adituen artean zaude zu. Ze moduz?**

Aberasgarria izan da. Aditu talde bat biltzea, ikuspegi ezberdinekin eta motibazio anitzekin... Gauza izan gara lerro gutxieneko batzuk mahaiaren gainean jartzeko, ezberdintasunak albo batera utzita... askatasunez eta zintotasunez, hezkuntzaren kalitatea ardatz izanik.

Zein lantaldean aritu zara?

Hezkuntza sistemaren modernizazio lantaldean parte hartzeko aukera izan dut. Helburua izan da hezkuntza-sistemaren eraldaketarako oinarritzko printzipioak garatea: irakasleen ahalduntzearen beharra eta irakasleen formazioaren



Begoña Pedrosa, Huheziko fakultatean. MIREN ARREGI

hobekuntzarako gakoak identifikatzea. Ikaskuntza ingurune berritzaileen markoa ezartzea erronka berriei erantzuteko; digitalizazio proiektu sendoak eraikitzea...

Etorkizuneko euskal hezkuntzaren oinarriak finkatu direla uste duzu?

Hezkuntza komunitatea debate serio batean murgiltzeko interesgarria dela iruditzen zait, eta behar-

beharrezkoa da hezkuntzaren bueltan eztabaida serioa bultzatzea eta gizarteratzea. **Ze premia dauka indarrean dagoen Hezkuntza Legeak?** Zentroen ahalduntzea, besteak beste. Zentroak esaten dudanean, irakasleak esan nahi dut, eta, jakina, ikaste prozesuen arrakasta bultzatzea. Berrikuntzaren unitatea zentroa bera da eta bertan dauden lidergoak eta motibazioak. Zentzu horretan, berrikuntza proiektuen garapenerako barne eta kanpo lankidetzak sustatu beharra dago. Eredu honetan Unibertsitatearen laguntza funtsezkotzat jotzen dut. **Europako hezkuntza sistema aurreratuekiko, non dago hemengo?**

Sistema ona dugu eta ezagunak diren zenbait adierazle horrela adierazten dute: eskola porrotari edo eskola uzteari dagokionez, ondo kokatuta gaude. **Hizkuntzak, euskarak, ze garrantzia izan behar du?** Ikasleen profila asko aldatzen doa eta horrek eragina dauka euskararekiko erakusten duen atxikimenduan. Tokatzen zaigu kalitatezko proposamenak eskaintzea unibertsitateetatik, eskoletatik eta administrazioetik.

HAU BE BADOGU!

Elkartasun mezuak Xabi Azkargortari



Bergara Kirol Elkarteak sare sozialetan elkarbanatu zuen argazkiak oihartzuna izan du futbolaren eta kirolaren munduan, eta elkartasun mezuak izan dira nagusi:

@BergaraKE: "Hitzik behar ez duen argazkia #sentimendua #laguntasuna #indarra Animo txapeladun, zurekin gaude!".

@SDEibar: "Aupa Xabier! Eibartik ere indarra bidaltzen dizugu. Eutsi! Zurea da garaipena!".

@RealSociedadEUS: "Eutsi Xabier! Neurketa garrantzitsuena irabaziko duzu!".

@Anaitasuna_CD: "Gure babes eta indar guztiak zuretzat! Animoak Azkoititik!".

@tolosakoneskak: "Zoragarria benetan futbolak eta taldeak egin duena! Animo Xabier, garaipena zurea da".

@RealUnionCiron: "Real Union taldetik @BergaraKE-ko familia osoa babesten dugu eta Xabi Azkargorta, bereziki. Indarra, Xabi, eta laster berdegunean elkar ikusiko dugu. Galera gonbidatuta zaudete. #AupaUnion #EutsiXabi".

Elurtearekin gorabeherak bailaran

#Elurra eta #elurtea traola erabilienetakoak izan dira asteon txiolari euskaldunen artean. Izan ere, elurrak ia ez du atsedenek eman pasa den astebukaeratik:

@GorkaBikuña: "Etzetik irten eta elurra ikusita, oheko goxotasunean hobeto. #oñati #debagoiena #Gipuzkoa #elurra".

@Laboratoriummuseoa: "Dotorea gure Errekalde jauregia eta parkea, eguzkiarekin zein elurtearekin!".

ITURRI ONETIK

Harriari tiraka, apustu

Arrasateko gazte talde batek herri kirolean ibilbide luzea duen Joxe Mari Olasagastirekin apustua lotzen dihardu. Olasagastiren idiak, batetik, eta zazpi gazteak, bestetik, nor baino nor gehiago, harri berari tiraka. Zehazteke dituzte zenbat gaztek hartuko duten parte eta baita probalekua ere zein izango den, baina, bi aldean artean "giro ona" izanda ere, "bero-bero" dabilta apustua gauzatu dadin. Apustuak aurrera egingo balu, alde bakoitzak 2.000 euro jarri beharko lituzke hasiera batean.

ALBISTE IZAN ZEN

2003-02-07

Urkuluk gainezka, oraingo astean bezala

Urkulu urtegiak gainezka egin du oraingo astean. Goraino beteta, ura jare behar izan dute, horretarako uhatea zabalduta. Ez oso ohikoa, baina lehenago ere geratu izan da. Hain justu ere, duela 15 urte. 2003ko otsailaren 7an argitaratutako Goienkaria-n hala kontatu zuen kazetariak. Euriteen ondorioz, gainera, Deba ibaiaren emaria ere asko handitu zen eta Bergaran gainezka egin zuen. Horrez gain, luiziak ere izan ziren han eta hemen.





Larragain elkarteak, alkatea eta Landa Garapen Elkarteko presidentea martitzenean sinatutako akordioarekin. X. GOROSTIDI

Kurtzetxikiko lursaila txukuntzeko hitzarmena

Udalak eta Larragain elkarteak sinatu dute akordioa gaur eguerdian. Elkar hori herriko zazpi nekazarik osatzen dute, eta era horretako elkarlanak egiteko sortu dute. 2018ko udal aurrekontutik 20.000 euro jasoko dituzte lan horiek egiteko

Xabi Gorostidi ARRASATE

Kurtzetxiki inguruan Arrasateko Udalak 10 hektareako lursail publiko batzuk ditu. Aspalditik "egoera txarrean" dago bertako belardia, eta Udalak horiek txukun jartzeko beharra sumatu zuen. Hala, arazoa konpontzeko asmoz, herriko nekazariengana jotzea erabaki du Udal Gober-

nuak, euren gaiarekin lotuta duten jakinduriagatik, batez ere. Horren emaitza izan zen martitzenean herriko zazpi baserritarrek eta Udalak sinatu zuten hitzarmena.

"Guk ikusten dugu baserritarrek eta ganadua lantzen dutenek jakinduria handia dutela lur horien kudeaketa egiteko.

Udaleko edonork baino mila aldiz hobeto egiteko gai dira", azaldu du Maria Ubarretxena alkateak.

Larragain elkartea

Elkarlan hori formalki gauzatzeko, Arrasateko zazpi nekazari Larragain izeneko elkartea sortu dute, eta, enpresa sortze-

ko bide horretan, Deba Garaiko Landa Garapen Elkartearen laguntza izan dute. "Guri, Udalaren eta nekazarien arteko zubi lana egitea egokitu zaigu. Besteak beste, elkartea egituratzeko estatutuak egiten lagundu diegu. Pozgarriak dira era horretako elkarlanak; batez ere, herria laguntzeko balio dutelako", azaldu du Landa Garapen Elkarteko presidentea Maite Aristegik.

Jesus Garaik da sortu berri den Larragain elkartearen presidentea. Pentsaurrekoan agertu diren baserritarrek azaldu dutenez, duela hamarkada batzuk horrela deitzen zioten gaur egun Kurtzetxiki izenez ezagutzen den mendiari. Jesus Garaik honela azaldu du zenbat kidek osatzen duten eta zer lan egingo dituzten bertan: "Gaur, oraingoz, zazpi baserritar gara elkartean: hiru Udala auzotik, Hiru Bedoñatik eta bat Santa Agedatik. Gure helburua zelai hori ondo ipintzea izango da. Udazkenean lurak lantzen hasiko gara, eta negu partean ardiak eramango ditugu. Osteen, udaberrian, behorrek eta behiak ibiliko dira bertan".

20.000 euro

Zelaia ondo uzteko lanak egiteko, 20.000 euroko diru laguntza jasoko du elkar sortu berriak, 2018ko udal aurrekontuetatik.

Hitzarmenean, Kurtzetxikiko eremu horretako esku hartzea egitea adostu dute bi aldeek, baina Maria Ubarretxenak azal-

du du etorkizunean lan gehiago egitea gustatuko litzaiokeela. "Lehendabizi, Kurtzetxiki eremuarekin hasiko gara. Hau izango da lehen pausoa, baina etorkizunean elkarlan hau indartu egin nahiko genuke. Egia da Arrasaten industriak pisu handia daukala, baina ezin dugu ahaztu lehen sektorea ere hor dagoela. Euren funtzioa ondo betetzen dute, garrantzitsua da".

EH Bilduren irakurketa

Aurreko legealdian, 2013ko ekainean, Udal Gobernuak hiru egitasmo jarri zituen martxan Kurtzetxikin: herritarrei aisialdirako gune moduan proposatzea, basoa berreskuratzea eta azken hamar hektareetan larre bat egitea. "EH Bilduk ez du konpartitzen aspaldian egoera txarrean egon denik larrea. 2013an abiatu zen pinudia larre bihurtzearen prozesua eta irizpide natural eta teknikoen arabera kudeatu da. Ez da utzita egon, lan egin da bertan. Orain, azkartu egin nahi da prozesua, besterik ez, eta, ulertzen dugun arren baserritarren beharra, azalpen osoagoa behar delakoan gaude", adierazi du Eneko Barberenak.

NEGUAN ARDIAK ERAMANGO DITUZTE ETA UDABERRIAN, BEHORRAK ETA BEHIAK ERE BAI

GORA ETA BEHERA



Domekan auto bat erreta agertu zen Besaide inguruan

Irudia domeka goizekoa da. Besaideko monumentu gazteenaren alboan kolore zuriko Seat Ibiza autoa ageri da, kiskalita. Ez du matrikularik, ez bastidore zenbakirik, eta Ertzaintza gertatutakoa ikertzen ari da. Momentu honetan, hipotesi guztiak zabalik dituzte.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus

edo 688 69 00 07.



JOSEAN CARMONA

Besaide, Debagoieneko beste altxor maltratatu bat

Euskal Herriko mendizaleen artean ikurra den Besaiden kiskalitako auto bat agertu izanaren harira

Goiena komunitatea

Besaide ME / ARRASATE

Gure elkartea lanean ari da, aspalditik, gure ondare natural eta historikoa herritarren esku jartzeko. Gure ingurua oso humanizatuta dago, eta naturaguneak dezente egurtuak izan dira. Hala ere, *pribilegiatu* hutsak garelako konturatu behar dugu gure inguruari begiratzeko diogun bakoitzean. Besaide, adibidez, sinbolismo eta edertasun handiko eremua dugu, hildako euskal mendizaleak oroitzeko *eraikia* izan zena. Egia da as-

paldian jareginda egon dela, baina, bi urte dela, hori aldatzeko harremanetan gabiltza Elorrioko Mendizale Elkartearekin. Motordun ibilgailuak dira gure buruhauste handienak, nahiz eta aste honetan ikusitakoa ez dakigun non kokatu.

Turismoari begira, askotan, gauzak asmatzen ibiltzen gara eta Besaidek sekulako potentzialitatea daukala ahaztu egiten zaigu. Altxor hau ezagutarazi egin behar dugu, zaintzeko eta maitatzeko, eta ziur gure ondorengoek eskertuko digutela.

"Gure barne gogoetak partekatu nahi ditugu"

AMAIA ETXABE TXATXILIPURDIKO ZUZENDARIA

Haurren jolasak eta gizartea abiadura berean aldatzen dabilta, eta horiei buruzko hausnarketak jendarteari hedatzeko hainbat saio prestatu ditu Txatxilipurdik

A.A. / X.G. ARRASATE

Haurren jolasak etengabe aldatzen dira, hamarkadaz hamarkada eta belaunaldiz belaunaldi. 1994an sortu arren, Txatxilipurdik 30 urteko eskarmentua du alor horretan, eta euren jakintzuria eta euren kezkak herritarrekin partekatzeko egitaraua prest dute.

Txatxilipurdin lanik ez zaizue falta. Nola antolatzen zarete?

Egunerokoan, ludoteketara eta gazte txokoetara bideratzen ditugu gure baliabide gehienak. Horrez gain, herrian sortzen diren askotariko ekintzetan parte hartzen dugu, eta gure lanari buruzko gogoetak egiteko



Amaia Etxabe, Arrasate Irratiko estudioan egindako elkarrizketan. XABI GOROSTIDI

Berrasmatzen deituriko saila daukagu.

Zer-nolako hausnarketak egiten dituzue bertan?

Adibidez, azken urteetan asko hausnartu izan dugu haurren parte hartzeari buruz. Era honetako zalantzak azaleratzen dira bertan: *Zer-nolako aisialdi nahi dugu gure haurrentzako? Zer-nolako balioak landuko ditugu?* Zentzu horretan, haurrentzat edo gazteentzat gauzak antolatzen, haurrekin eta gazteekin antolatzen egin nahi dugu salto. Erroka hori gauzatzeko ahaleginetan ari gara, nahiz eta askotan ez den erraza izaten. Askotako dago egiteko.

Otsailetik apirilera bitartean jolas libreari buruzko jardunaldiak antolatu dituzue. Zein da helburu nagusia?

Txatxilipurdin betidanik izan dugu herrian eragiteko nahi hori. *Berrasmatzen* saileko gure barne gogoetak jendarteari partekatu nahi ditugu, eta horretarako antolatu ditugu aipatutako jardunaldi horiek. Gure kezkak, gure gogoetak partekatzeko, eztabaidatzeko eta elkarrekin ikasteko aukera izateko.

Jolas libreari buruz jarduteko saioak

Jolas libreari buruz hausnartzeko Txatxilipurdik antolatutako saio sorta.

Hitzaldia

- **Gaia:** *Zer da jolas librea? Eta zertarako balio du?*
- **Noiz:** otsailaren 28an, 18:30ean, Kulturaten.

Tailerra

- **Gaia:** *Jolas librea bizipenetik.*
- **Dinamizatzailea:** Txusma Azkona
- **Noiz:** martxoaren 17an, 09:30ean, Etxaluzen.

Mahai ingurua

- **Gaia:** *Jolasa familian, jolasa eskolan, jolasa aisian, jolasa herrian.*
- **Noiz:** apirilaren 14an, 11:00etatik 14:00etara, Kulturaten.

Diagnostiko pertsonalizatua. Zurrunga egiten dutenentzako eta loaldiko apnea dutenentzako soluzio eroso eta eraginkorra.



Doako
kontsulta eta
azterketa

CLINICA DENTAL
BERGARA

Bidekurutzeta, 36 – BERGARA – Tel.: 943 76 05 77 – www.clinicadentalbergara.es

Justiziaren eta memoriaren aldeko udalerrien parte

Udalaren kereila kriminala ez denez tramitera onartua izan, 2016an Iruñean sortutako mugimendu horretako parte izatea onartu dute, aho batez, otsaileko osoko bilkuran. CNA Group-en kaleratzeen inguruan, berriz, adierazpen bateratua irakurri zuten

Xabi Gorostidi ARRASATE

2016ko urrian, udalen arteko solidaritatea eta lokarri kolaboratzaileak sartzeko asmoz, agiri bat sinatu zuten Espainiako Estatuko hainbat hiriburuk; besteak beste, Gasteizek, Iruñeak eta Bartzelonak. Helburu honekin sinatu zuten: frankismoaren krimenak argitzeko, Nazio Batuetako Giza Eskubideen Erakundeak Espainiako Estatuari egindako gomendioak betetzea.

2017an zehar, Arrasateko Udalak urrats garrantzitsuak egin zituen bere kabuz alor horretan. Herritarren testigantzak batzeko bulegoa ezarri zuen, eta jasotako ekarpenekin kereila kriminala jarri zuen Bergarako epaitegian. Baina, azkenean, Elgetako Udalak jarritako keireilarekin gertatu bezala, epai-leak ez zuten kereila tramitera onartu.

Hori ikusirik, Justizia eta Memoriaren Aldeko Udalerrien Sarera atxikitzea onartu zuen



Zinegotziak otsaileko osoko bilkuran botoa ematen. XABI GOROSTIDI

udalbatzak, aho batez. Elgetako Udala ere bertako kide da eta urtarrila ezker Eibar ere bai.

Polemika, MGEPren harira

MGEPk hobekuntza obra batzuk egin nahi ditu Garaia Guneko

11. eraikinean. Lanen aurrekontua 1.396.336,27 eurokoa da, eta legez aplikatu behar zaion eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergan %95eko hobaria eskatzen zuen unibertsitateak. Gaia hainbat hilabetetan landu

Ritxi Perezen interbentzioa

Galde-eskeen tartean, Edesa Industrialeko Langile Batzordeko presidente den Ritxi Perezek hartu zuen hitza. 2016ko lehen 19 kaleratzeetatik egungo egoerara heltzeko prozesua azaldu zuen, eta Udalari ahal duen guztia egiteko eskatu zion, Eusko Jauriaritzarengan, Gipuzkoako Aldundiarengan eta Fagor Taldearengan eragiteko orduan.

Maria Ubarretxenak konkurtso-administratzailearen figura aipatu zuen. "Langileak lehenetsi ditzala eskatuko nioke, hartzekodunak edo aktiboak lehenetsi beharrean". Eneko Barberenak esan zuen langileen ondoan egongo direla, eta desindustrializazioaren arriskuak aipatu zituen, Baleikeko Igor Urizarrek gaia arduraz hartzeko eskatu zion Eusko Jauriaritari, eta Irabaziko Juan Luis Merinok gogorarazi zuen Udalak konponbidean izan dezakeen rola oso mugatua dela.



Ritxi Perez mikrofonoarekin. X. G.

dute Ogasun batzordean, eta EAJk, EH Bilduk eta PSE-EEk adostu dute hobaria %50ekoa izatea, eskatutako %95ekoaren orde.

Baleike eta Irabazi oso kritikoa agertu ziren neurri horrekin. Arrasaterentzat interes orokorreko gai bat dela argumentatzen da hobari hori egiteko, baina bi alderdi horiek ez dute hala ulertzen. Herriko merkatariei ez bazaie hobaririk aplikatzen, euren ustez ez da "justua" unibertsitatearekin beste irizpide bat erabiltzea.

EAJko Anuska Ezkurraren ustez, hobari bat aplikatzea justifikatuta dago MU irabazi asmorik gabeko erakunde bat delako, eta herrian enplegua eta aberastasuna sortzen dituelako.

EH Bilduko Eneko Barberenak esan zuen MUK egoitza duen beste herri batzuetako adibideak jarri dituztela mahai gainean; Irun, Donostia, Oñati eta Eskoriatza kasu. Erabaki horrek hurrengo ordenantza fiskaletan jarraipena izan beharko lukeela gaineratu zuen.



ARRASATEKO UDALA

Gidabaimena euskaraz

Aurten 28 lagunek atera dute gidabaimena euskaraz Arrasaten. Horien guztien artean 410 euroko saria zozketatu du Udalak; hain zuzen, azterketa teoriko baten kostua finantzatzeko adina. Zozketaren irabazlea Joseba Errasti izan da, eta Juan Ramon Mendieta Euskara Saileko zinegotziaren eskutik jaso du saria.

OHARRAK

Baltsamoa

Eztularen aurkako sendagai hori egiteko aukera izango da otsailaren 17ko baserriarren azokan. Hilaren 16ra arte egongo da zabalik izen ematea Arrasate.eus webgunean.

Pentsio duinak

%0,25eko igoera "miseria" bat dela salatzeko, karta bilketa egingo dute otsailaren 12an, 12:00etan, Herriko Plazan.

Odol emateak

Hilaren 22an autobusa egongo da Laubiden, 16:30etatik 20:00etara. Anbulatorioan egiteko hurrengo txanda martxoaren 6a izango da, hori ere 16:30etik 20:00ak arteko ordutegiarekin.

NIRE USTEZ

ENERITZ URRUTIA

Ama, irakasle izan nahi dut

Txikitatik izan dut garbi zer izan nahi nuen, zer ikasi eta zertan jardun nahi nuen. Ofizio honek dituen alderdi guztiekin.

Pertsonekin lan egin ahal izateak aberats egiten nau, heldu, gazte zein haur. Nik ahal dudana guztia eskaintzen diet. Pertsonalki bizitzako arlo askotan bezala nire lana ondo egitea gustatzen zait, saioak prestatu, ideia berriak probatu, beraien iritziak entzun... Eta aberats zergatik egiten nauen? Pertsonen arteko hartu-eman bat delako gure profesioa, beraiek gugandik ikasten duten bezala guk ere beraingandik ikasten dugu, eta horregatik sentitzen nahiz zorioneko.

Baina bada alderdi bat kezkatzen nauena eta aspalditxotik buruan bueltaka dudana. Noski, edozein lanetan bezala, lan honetan ere gure gainetik daudenak ere badira hor nonbait *jefe-jefa* izena hartzen dutenak. Euren lana zalantzan jarri gabe, batzuetan, goian dauden hauei beraiek ere pertsonekin lan egiten dutela ahazten zaiela uste dut; beste edozeinek bezala nik ere nire akatsak ditut, eta nire hutsegiteak egiten ditut, baina zeinen erraz epaitzen diren hauek...

"Mozorrotzera animatu gura ditugu herritarrak"

IÑAKI GURRUTXAGA 'HARRISTI' ARATUSTEETAKO ANTOLAKUNTZAKO KIDEA
Bihar, zapatua, izango da Arrasateko Aratusteetako egun handia, eta antolakuntzako kide 'Harristi'-k deialdia egin die herritar guztiei festan parte har dezaten

Eneko Azurmendi ARRASATE

Ez du aurkezpenik behar Iñaki Gurrutxaga *Harristi*-k. Saltsa guztietako perrexila da, eta Aratusteetako aurpegi ezagunentarikoa. Aurten ere ez du aurreratu gura izan zertaz mozorrotuko diren bera eta bere kua-drilla.

Aratusteak gainean dira. Gogotsu?
Bai, Gabonetatik ari gara prestaketa lanak egiten eta ia guztia prest daukagu. Azken detaileak bakarrik falta zaizkigu.

Zertaz mozorrotuko zarete?

Hori ez dugu inoiz esaten, sorpresa da. Urtero saiatzen gara sorpresa mantentzen eta zerbait desberdina egiten, eta, normalean, gure mozorroak beti ematen du zeresana. 25 bat pertsonako taldea izango gara aurten. **Mozorroarekin asmatuko duzue?**
Nik uste dut baietz. Esango nuke aurten mozorroa asko gustatuko zaiola jendeari.

Berrikuntzarik badago aurten?

Bai. Betiko sariez gain –kuadrilla onena; karroza onena; taberna onena; eta banaka, gizonezko eta emakumezko onena–, kua-drilla gazte onenaren saria egongo da, 18 urtetik beherakoentzat. Jende gaztea ere kuadrilletan mozorrotzea bultzatu gura dugu sari honekin.

Zer moduz ikusten dituzu Aratusteak gaur egun? Azken urteetan ze bilakaera izan dute?

Hasi ginenetik, giroa hobetu egin dela esango nuke. Jende gehiago animatzen da orain eta giro hobea egoten da; pixkanaka, hobetzen doa. Hala ere, jende asko kanpora joaten da egun hauetan, eta guk deialdia zabaldu nahi dugu jende gehiago animatu dadin mozorrotzera eta festan parte hartzera.

Zer dira, zuretzat, Aratusteak?

Txikitatik bizi izan ditut ilusio handiz Aratusteak, eta asko gustatzen zaizkit. Gainera, ez dakit zergatik, baina egun hauetan libreago ibiltzen gara, lotsa



Iñaki Gurrutxaga *Harristi*. E.A.

galtzen dugu. Nik asko disfrutatzen dut Aratusteetan.

Aratusteekin lotuta, baduzu anekdota polit eta kurioso bat.

Bai. Behin, mosketariz mozorrotzea erabaki genuen. Taberna batean elkartu behar genuen,

eta inor ez zen agertu. Minutu batzuk itxaroten egin ostean, batek esan zidan kanpora irteko, eta kanpoan lagun guztiak nitaz mozorrotuta zeuden. Oso hunkigarria izan zen, negar ere egin nuen.

Aratusteetako egitaraua

Otsailak 9, egubakoitza

- **18:30** Arrasate Musikalen ikasleen kontzertua Amaia antzokian.

Otsailak 10, zapatua

- **12:00** Pregoia, Biteri plazan. Ondoren, desfilea, Arrasate Musikaleko txarangak lagunduta.
- **13:00** Mozorroren sari banaketa plazan.
- **18:00** Arrasate Musikaleko txarangak kaleak girotuko ditu.
- **19:00 eta 22:30** Dantzaldia plazan, Gabezin taldearen eskutik.

Otsailak 11, domeka

- **19:30** *Ergela* antzezlan Aamaia antzokian.

Otsailak 13, martitzena

- **17:00** Mozorro desfilea plazan.
- **17:00** *Hondartza* emanaldia Amaia antzokian.
- **17:30** Samasiku txarangaren animazioa herriko kaleetan zehar.
- **18:00** Dantzaldia plazan, Alaiki taldearen eskutik.
- **18:30** Arrasateko Erraldoien eta Kilikien Konpartsaren kalejira.
- **21:00** Sardinaren hileta. 20:30etan abiatuko da desfilea eta plazan erreko dute sardina. Gero, Alaiki taldearekin, dantzaldia.



Merino (Irabazi) Barberena (EH Bildu) eta Abuin (Baleike). JOSU BILBAO

1.650 sinadura batu dituzte Lurraldebusen aldaketan aurka

EH Bilduk, Irabazik eta Baleikek egin dute sinadura bilketa, aurka dauden herritarrak kuantifikatzeko

E.A. ARRASATE

Arrasateko EH Bilduk, Irabazik eta Baleikek sinadura bilketa egin dute Lurraldebusen aldaketan aurka dauden herritarrak kuantifikatzeko. Hain zuzen ere, hiru aste sinadurak biltzen ibili ostean, "herritarren haserrea" sumatu dutela azaldu dute.

Abenduko osoko bilkuran, Lurraldebusen ordutegi aldaketaren aurkako mozioa jarri zuten mahai gainean oposizioko hiru alderdiek, baina ez zuen aurrera egin. Horregatik, sinadura bilketa jarri zuten martxan, herritarren iritzia kuantifikatzeko asmoz. Bilketaren emaitza 1.650 sinadura dira, eta egubakoitzean aurkeztuko dituzte Gipuzkoako Foru Aldundian. Kasua aintzat hartuta, gainera, autobusez joango dira Donostiara. Horrez gain, udaletxean ere aurkeztuko dituzte.

"Autobus erabiltzaileen haserrea nabaritu dugu, lanera joateko arazoak dituen jendea entzun dugu, aglomerazio argazkiak jaso ditugu edota egiaztatu dugu San Andres eta Musakolako geltokien garrantziaren galera. Adierazi nahi duguna da herritar batzuk ez daudela ados egin diren ordutegi aldaketekin, eta nahi dutena dela frekuentziak gaur egungoak baino sarriago izatea", esan du Eneko Barbere-nak, EH Bilduko bozeramaileak.

Gainera, EAJ eta PSE alderdietako kideei erronka bota diete oposizioko kideek. "Pasa dezatela denbora autobus geltokietan. Entzun ditzatela herritarrak, pulpitutik predikatu ordez". "Ikusten badugu ez direla kontuan hartzen herritarren eskaerak, jarraituko dugu murrizketak salatzen eta kalitatezko garraio publikoa sustatzen", azaldu du Barberenak.

'Zorion klandestino' liburua aztergai hilaren 15ean

Clarice Lispector idazle brasildarraren *Zorion klandestino* –Iñigo Roquek euskaratua– liburua izango dute aztergai hilaren 15ean –18:15etik 20:15era, gutxi gorabehera– Kulturaten egingo duten literatur solasaldian. Claricek hizkuntza bera lantzen du, eta, orobat, aztertzen du nolako harremana duen hizkuntzak gorputzarekin.

OHARRAK

Batzar orokorra

San Isidro elkarte gastronomikoko bazkideek batzar orokorra egingo dute otsailaren 18an, 12:00etan.

Familia Jolasean

Otsailaren 11n, 18an eta 25ean egingo dute Familia Jolasean, Okendoko ludotekan, 17:00etatik 19:00etara. 0 eta 8 urte arteko umeendako ekintza izango da.



Arrasateko borroka arte ezberdinetako maisuak talde erretratuan; guztira, hamar izango dira. XABIER URZELAI

Herriko borroka arteak indartzeko, batuta hobeto

Aikido Arrasate, Judo Arrasate eta Kenpo Arrasate taldeak batu egin dira: "Herrian borroka arteak indartzea da helburu nagusia, eta oihartzun handiagoa izatea", adierazi zuen Jose Manuel Matasek eguaztenean egindako prentsaurrekoan

Xabier Urzelai ARRASATE

Arrasateko borroka arteak lantzen dituzten hainbat taldek aurrerantzean eskaintza bateratua egingo dute, Arrasate Borroka Arte Eskola talde berria sortu dute eta. Hiru hamarkada baino gehiago daramatzate judoa, aikidoa edo kenpoa, besteak beste, herritarrei gerturatzen, eta horretan jarraitu gura dute, baina indar handiagoz: "Minoritario izateari utzi gura diogu. Badakigu beste kirol talde batzuk guk baino baliabide handiagoak dituztela, baina guk ere txukun entrenatu ahal izateko leku duin bat gura dugu", adierazi du Jose Manuel Matasek.

Taldeak batu izanak administratiboki hainbat abantaila ekarriko dizkie, baina ez hori bakarrik: "Herritarrei kirol eskaintza hobea egingo diegu, eta bakarria beharrean, hainbat borroka arte gertutik ezagutzeko aukera izango dute. Izan ere, borroka arte batean izena ematen duenak aukera izango du

hilean bi astez beste borroka arte bat doan praktikatzeko, eta, hilean behin, emakumezkoendako antolatuko dugun defentsa pertsonaleko ikastaroan ere doan parte hartu ahal izango du. Horrekin batera, guk geuk ere izugarri ikasiko dugu ondoan izango ditugun gainontzeko mai-suei esker".

Askotariko zerbitzuak

Hala, borroka arteetan oinarrituta talde hauek herrian eskaintzen dituzten zerbitzuak azpimarratu ditu Matasek: "Gazte-oxekin terapia naturalak egiten ditugu, haur psikologia lantzen dugu, psikomotritzitatea, hipe-raktibitatea... Horrekin batera, zailtasun fisikoak dituzten he-

ARRASATE BORROKA ARTE ESKOLA TALDEA SORTU DUTE HERRIKO HAINBAT TALDE BATU ETA GERO

rritarrekin egiten dugu lan, droga arazoak dituztenekin, gaixotasun arraroak dituztenekin, defentsa pertsonala lantzen dugu...".

Balioak lantzen

Hiru maisuek azpimarratu dute egungo gazteekin lan egiterakoan balioetan oinarritutako hezkuntzan indarra egin behar dela: "Hutsune handia ikusten dugu hor, gazteek geroago eta balio gutxiago dituztelako, eta balio horiek beharrezko dituztela ikusten dugu, etorkizunean umiltasunez jardungo duten pertsonak izateko", dio Matasek. Eta Letonak gaineratu du: "Hemen egiten dugun lanaren gainean ezjakintasun apur bat ere badago. Jendeak uste du elkarri kolpeak emateko elkartzan garelako, eta, hain justu, hemen irakasten duguna da nor bere buruaren jabe izaten, une oro kontrola mantentzen eta norberak izan dezakeen amorrua ondo bideratzen".



JOSE MANUEL MATAS
AIKIDO ARRASATE

"Lehiatzea garrantzitsua da guretako, baina are garrantzitsuagoa da gure ikasleei erakustea arte martzialen bidez bizitzeko beste filosofia batzuk ere badaudela. Horrekin batera, talde berri hau sortuta gazte gehiago hartu ahal izango ditugu klubean".



JULIO GALLEGO
JUDO ARRASATE

"Azken txapelketetan oso emaitza onak lortu ditugu, baina, hor baino gehiago, hezkuntzan jartzen dugu indarra. Balio falta izugarria ikusten dugu gaur egungo gazteengan, eta gazteek balio horiek derrigor behar dituzte. Borroka arteak aproposak dira horiek lantzeko".



IKER LETONA
KENPO ARRASATE

"Talde berria sortuta lan administratiboak errazago egin ahal izango ditugu, eta herritarrei eskaintza hobea egingo diegu. Horrekin batera, beste borroka arteetako maisuak ondoan izanda guk ere izugarri ikasi ahal izango dugu ondokoengandik".



Satchell saskiratzen. I.SORIANO

MUK kontrario zuzen Ordizia izango du aurrean bihar

Ointxe!-k mozorrotuta joango diren zaleak sarituko ditu, doako sarrera emanda

X.U. ARRASATE

Azken asteotan merezitakoa baino etekin txikiagoa lortu dute Mondragon Unibertsitateko ordezkariak –joan den astean 68-67 galdu zuten La Flecharen kan-txan–, eta bihar, zapatua, jai-tsierra postuetatik urruntzeko kontrario zuzena den Ordiziaren –garaipen bat gehiago dute– bisita izango dute arrasatearrek Iturripen (19:00). "Aratustek direla aprobeztatuta, taldea animatzen mozorrotuta datozen zaleak doan sartuko dira Iturri-pera, eta Sustrairen zozketarako txartel bat ere oparituko diegu", adierazi du klubak.

Webgunea, berrituta

Bestalde, Ointxe! klubak webgunea berritu du asteon –Ointxe.eus–: "Berritzeko beharra ikusten genuen, aurrekoa zahar-ki-tuta zegoelako. Oraingoa erabiltzeko errazagoa da, multimedia edukia kudeatzeko erraztasun handiagoa ematen du, eta diseinu garbiagoa du. Lehengo atalak mantendu ditugu, baina, 50. urteurreneko ospakizunetan murgilduta gaudenez, atal berezi bat sortu dugu horra bideratuta. Gainera, poltsikoko telefonoetan ikusteko moldatuta dago", adierazi du Oihane Agirrek.



Iazko edizioko sari banaketako irudi bat. AED

Euskarazko sormena eta zaletasuna sustatuz

Martxan da Arrasate Euskaldun Dezagun Elkarteak antolatzen duen Arrasate Literatur Lehiaketa; hiru modalitate egongo dira aurten –ipuinak, poesia eta bertso-papera– eta lanak aurkezteko azken eguna martxoaren 15a izango da; gaia librea da

Eneko Azurmendi ARRASATE

Dagoeneko abian da AEDk antolatzen duen Arrasate Literatur Lehiaketa. 31. edizioa izango du aurten. Beste edizio bat, baina helburuak betikoak. "AEDk antolatu zuen lehenengoetako ekintzetako bat izan zen lehiaketa hau, eta hasieratik helburu bera izan du. Euskarazko sorkuntza eta euskarazko literaturarekiko zaletasuna bultzatzea, hain zuzen. 31 urte pasatu dira dagoeneko, baina urtero baloratzen dugu ekimen hau, eta pentsatzen dugu oraindik ere beharrezkoa dela. Bereziki, ikusentzunezko teknologien indarraren aurrean, idazketak ariketa berezi bat eskatzen du norbere buruarekiko eta gaintzuekiko. Beraz, horrelako lehiaketak beti datoz ondo", dio Itxaro Artolak, AEDko kideak.

Hiru modalitate edo genero ezberdinetan banatuko da lehiaketa: ipuinak, poesia eta bertso-papera. "Urte hauetan guztietan eboluzio handia egon da genero

dagokienez. Hainbat genero lan du izan ditugu, baina duela urte gutxi erabaki genuen jatorrizkoetara itzultzea eta zentratzea idazkera bereziki lantzen den arloetan. Beraz, aurten ere ildo horretatik jarraituko dugu", azpimarratu du Artolak.

Bestalde, adinaren arabera lau taldetan banatuko dira parte-hartzaileak: Lehen Hezkuntzako hotsarren eta seigarren mailetako ikasleak; DBHko lehen eta bigarren mailetakoak; DBHko hirugarren eta laugarren mailetakoak eta Batxilergoko lehen eta bigarren mailetakoak. Hemen dago aurtengo berrikuntza. Izan ere, orain arte, 17 urteko gorako guztiak azken multzo horretan egon dira, eta aurten,

GAIA LIBREA IZANGO DA ETA LEHIAKIDE BAKOITZAK NAHI BESTE LAN AURKEZTU AHAL IZANGO DITU

Batxilergoko ikasleentara mugatu da taldea. Beraz, nagusiagoek ezingo dute lehiaketan parte hartu. "Epaimahaikide batzuek adierazi ziguten horrek arazoak sortzen zituela lanak baloratze-ko orduan. Batxilergoko ikasle baten eta adinez nagusiagoa den baten artean desberdintasun handiak egon daitezkeelako. Beraz, helduei adierazi nahi diegu aurten ezingo dutela parte hartu, baina pentsatzen ari garela bereziki helduei zuzendutako beste ekimen bat martxan jartzea", adierazi du AEDko kideak.

Gaia librea izango da modalitate eta adin talde guztietan.

Martxoaren 16ra arte

Lanak aurkezteko azken eguna martxoaren 16a izango da, eta bi modu egongo dira horretarako: aed@aedelkarrea.eus helbidera idatzita eta paperean inprimaturik AEDko bulegoetan.

Goiena.eus webgunean dago lehiaketako oinarrien gaineko informazio gehiago.



Erakusketan dagoen argazkietako bat. NAGORE RODRIGUEZ

Kulturaren ikusgai eta salgai, Aspanogi elkartearen alde

Udazkena Euskal Herrian Argazki Lehiaketako 45 lanez osatutako erakusketa irekita egongo da hilaren 17ra arte

E.A. ARRASATE

Artgazki elkarteak hirugarrenez antolatu du Udazkena Euskal Herrian Argazki Lehiaketa solidarioa, Aspanogi elkarteari laguntzeko asmotan. Igor Altunaren *Txoria* lana izan da irabazlea. Bigarren Iban Yanizen *Lehen Hotzak* sailkatu da eta hirugarren, Iñigo San Vicente-ren *Seta Boreal* argazkia.

Urtetik urtera, parte hartzea handitzen ari dela azaldu du Anibal Carmonak, Artgazki elkartearen presidentea, eta hori pozgarria dela azpimarratu du. 288 argazki aurkeztu dira aurten, eta horietako 45ekin erakusketak egin dute urtarrilean zehar, herriko denda eta taberna ezberdinetan ikusgai egon dena. Orain, berriz, erakusketa Kulturako klastroa pasatu dute eta otsailaren 17ra arte egongo da zabalik, astelehenetik zapa- tura, 17:30etik 20:30era.

Ikusgai egoteaz gain, salgai ere badaude argazkiak, formatu eta kalitate "bikainarekin", Carmonaren esanetan. Elkartearen presidentea azaldu duenez, 45 lanetatik 30 inguru salduta dade dagoeneko, eta dio seguruenik gehienak salduko direla.

Aspanogi elkartearentzat

Erakusketako lan bakoitza 30 euroan saltzen ari dira, eta salmenta honetatik ateratako dirua Gipuzkoako Haur Minbizidun Elkartera –Aspanogi– bideratuko da "ehuneko ehunean". Carmonak adierazi du, "dirua beti ondo" datorren arren, elkarteari gehiago inporta zaiola gizartearen aurrean elkarte bera eta egiten duen lana azalratzea. "Guk helburu horrekin egiten dugu. Nik uste dut gure ekimenak laguntzen duela, hein batean, Aspanogi elkarte ikustarazten", nabarmendu du.

Danborradako abestien disko bat grabatuko dute

SUDC elkarte, Arrasate Musikal eta Arrasateko Udala elkarlanean ari dira, danborradako abestiez osatutako disko bat grabatzeko. Bost abesti grabatzea da asmoa –*San Joan, Mondraren ereserkia, Udalpe, Danok Bat* eta *Hamaika Gazte*–. Hiru eragileak bilerak egiten ari dira, baina oraindik ez dute grabazio data-rik zehaztu.

Oraindik ere badaude 'Il Trovatore' opera ikusteko sarrerak

Il Trovatore opera eskainiko du otsailaren 19an –astelehena– Opera 2001 konpainiak, 20:00etan, eta oraindik 220 sarrera inguru gelditzen dira. Sarrerak Arrasateko Udalaren webgunean, Amaia antzokiko leihatilan eta Ozenki elkartearen helbide elektronikoaren bidez eros daitezke –ozenkielkarrea@hotmail.es–, 30 eurotan.



Baso bidea Gantzagan. AINARA INUNTZIAGA

Bideen erabileragatik arduratuta dago Udala

Egurzaleek, hainbat kasutan, basotik egurra ateratzeko jarraibideak errespetatu ez eta bideak kaltetzen dituztela-eta, ordenantza aldatzeko aukera ere aipatu dute udalbatzan. Gainera, bideak mantentzeko baliabide eskasia adierazi du Udalak

Julen Iriondo ARAMAIO

Isun proposamen batzuegatik irten zen gaia azken osoko bilkuran: "Basoekin gaizki gabiltza", zioen Mendi eta Ingurumen zinegotzi Jon Ugartek.

200dik gora baso bide kilometro ditu Aramaio, eta negua luzea eta gogorra joateak eta hainbat egurzalek basotik egurra ateratzeko jarraibideak ez

errespetatzeak sorrarazi ditu arazoak eta kezka. Kontua da aspaldiko eguraldiagatik hainbat bide ez daudela kamioien joan-etorriak jasateko moduan; baso-jabeak eta egurzaleak tratua ixtean, egurra ateratzeko baimena eskatu behar izaten dute Udalean, ezertan hasi aurretik. Eskaera jasota, aguazila joaten da bidearen egoera egiaztatzen,

baimenik eman daitekeen erabakitzeko: "Azkar joaten da normalean, egunean bertan edo bi egunen buruan; batzuetan hiru egun behar izaten ditu", dio Jon Ugartek.

Baina denbora luze egiten zaie egurzaleei nahi adina basotan sartzerik izaten ez duten garaioetan, eta euren bezeroak ahalik eta bizkorren hornitu nahiak



J.I.

"Jende askori eragiten dio gai honek"

JON UGARTE
INGURUMEN ZINEGOTZIA

Bideen arazoak arduratuta ditu Mendi eta Ingurumen zinegotzia eta Udala.

Askori eragiten dio honek? Herritar asko dago baso ustiaketara lotuta?

Bai, Aramaion lur pribatu asko dago, basogintzarako joera handia dago, jende askok ditu pinudiak, eta, beraz, lur-jabeek eragiten die gai honek, nahiz eta hortik bizi den profesionalik apenas dagoen inor; gehienentzako da osagarri bat euren ekonomian. Beraz, jende askori eragiten dio, nahiz eta ekonomikoki pisu handiko kontua ez izan eurentzat.

Non izan dituzue arazoak bideekin?

Arazoak izan ditugu Gantzagatik Ipizterako bidean, Zubieta aldean, *gorrixen* bidean, Iturrietara bidean...

eramaten ditu eskatutako denbora ez itxarotera, edo baimenik eskatu ere ez egitera ere bai, beste zenbaitetan.

Halakoak ikusita, udal ordenantza aldatu beharra ere aipatu zuen Ugartek udalbatzaren azken batzarrean: "Tasak eta bermeak handitu behar dira, txikiak dira; baimena ez dezala baso-jabeak eskatu, baizik eta egurzaleak, kaltea berak egiten du eta; neguan egurra ateratzea debekatu egin beharko litzateke, lehen bezala -negu onak joan direla-eta aldatu zen hori-".

Negurako erabateko debekua ezartzea baino egokiago litzateke halakorik ezarri ez eta uneoroko kontrolerako baliabideak izatea, bai; baina Udalak ez ditu, Mendi eta Ingurumen zinegotziaren arabera, ez horretarako eta ezta bideak mantendu eta konpontzeko ere.

Kexu da Udal Gobernu, Aldundiaren Nekazaritza Sailak landa bide izendapena kendu nahi dielako, diotenez, hala erregistratuta dauden baso bideei; eta Mendien alorreko diru laguntzak jasotzeko ere oztopoak: "Orain arte eman izan dizkigute pistak konpontzeko laguntzak, baina iaz esan ziguten pista publiko horiek baso publikoetara iristeko izan behar zirela. Baina gure errealitatea da mendiko pribatua dela gehiena". Laguntzak banatzeko irizpideetan herrialdeko errealitate guztiak aintzat hartzea eskatzen du Udalak: "Gu ez gara Araba?".

GANTZAGAN, ZUBIETAN, 'GORRIXEN' BIDEAN, ITURRIETARA BIDEAN... IZAN DIRA ARAZOAK

Inauteriak bihar, eta martitzenean eskolako jaiak

71 lagunek eman dute izena bazkarirako. Aurretik, 13:00etan kalejira izango da. Bazkalostean, 17:00etan desfilea -eguraldi txarrarekin, kiroldegian- eta 18:00etan mozorro lehiaketa; gero, txokolatea eta disko festa. Eskolakoek martitzenean 14:30ean hasiko dute jaiak. Desfilea egingo dute plazara -eguraldi txarrarekin, kiroldegian-.



Umeak mozorrotuta. GOIENA

Aramaioko bi taldeak Kuadrilla Artekoaren finalurrekoetan

Ibabeko Bertaren bilobak-i *Aramaioxoko sobrak* batu zaio, *Errekaleor bizirik!* taldekoekin kantatu eta gero. Finalurrekoak: otsailaren 17an, *Txandrio* (Arabar Errioxa) eta *Aramaioxoko sobrak*, Araian; 24an, *Ibabeko Bertaren bilobak* eta *Bapateroak* (Gasteiz), Amurrioren; martxoaren 3an, *Sumendi bete poto* eta *Errekaleor bizirik!*, Aramaion.

Proiektu berrietarako eta inbertsioetarako 'Leader' laguntzak

Autoenplegurako edo kontratazioetarako; negozio berria jartzeko; makineria edo altzariak erosteko; obretarako; lantokia hobetzeko... eska daitezke *Leader* diru laguntzok. Deialdirik ez dago oraindik, baina aurre-eskaera eta kontrol akta bete daitezke dagoeneko. Landa garapen elkarteak: 945-43 01 67 eta *adrmairu@hotmail.com*.

Bitor Kortabarria eta Antonio Elejalde irabazle musean

Alaiak Jubilatuen Elkarteak mus txapelketa egin zuen aurreko egubakoitzean, eta bertan parte hartu zuten hamar bikoteen artean Kortabarriak eta Elejaldek osatutakoa izan zen onena. Mario Jauregi eta Benito Altunarekin jokatu zuten finala. Urdaiazpikoa jaso zuten irabazleek, eta bakailaoa bigarrenek; eta afaria izan zen denentzat.

Irakurle feministen kluba jarriko dute martxan

Gorbeialdeko herrietan hileroko saioak egingo dituzte, Bego Etayorekin; lehenengoa, otsailaren 16an. Aurkezpena egitearekin batera aurreneko irakurgaia banatuko dute. Gaztelaraz izango da, baina aurrerago euskarazko taldea sortzeko asmoa ere badute

J.I. ARAMAIO

Laia eskolak –Arabako emakumeen jabekuntzarako eta berdintasunerako eskola– antolatuta eta *Ordu bioleta* goiburua-rekin, irakurle feministen kluba jarriko dute martxan Gorbeialdean hilaren amaieran. Zuiako udaletxean izango da lehen saioa, eta handik aurrerakoak izena ematen dutenen bizilekuen arabera egingo dira, herri batean edo bestean. Emakumeentzako saioak izango dira.

Saioak gidatuko dituen Bego Etayok badu eskarmentua horrelako langintzetan, urteak daramatza eta Gasteizen halako klub bat gidatzen. Hango ereduarekin zabaldu zuten iaz ekimena herrialdean barrena.

Gorbeialdeko Kuadrillako Berdintasun teknikari Aritz Palaciosen arabera, ekimen hau "berdintasun arloan estrategikoa" da Arabarako. Arrakastaz jarri zuten martxan beste hainbat kuadrillatan, eta Gorbeialdera



Bego Etayo eta berak gidatutako taldeetako bat. LAHORAVIOLETA.COM

iritsi da orain: "Emakume asko apuntatu dira besteetan, eta nahi genuke hemen ere ahalik eta emakume gehien erakartzea", dio.

Irakurgaiak askotarikoak izango dira: "Gehienbat, eleberriak

izango dira, baina saiakerak eta ere izango dira; hain justu, aurrenekoa saiakera izango da". Genero bateko edo besteak izan, feminismoaren ikuspuntutik aztertuko dituzte liburu guztiak.

Kluba ez da bakarrik irakurketarako izango, baizik eta, baita ere, "emakumeak biltzeko, eta berdintasunaren inguruko hausnarketa eta eztabaida sustatzeko"; feminismoaren esparruan emakumeak formatzea ere bada helburua, finean: "Emakumeen kontzientzia kolektiboan sakontzeko aukera emango diguten nobelak, saiakerak, iritziak... deskubrituko ditugu. Kontua da testu hauek modu pertsonalean eta intimoan irakurriz ikastea, baina baita gure hasierako inpresioa besteen ekarpenekin osatzea ere. Halaber, feminismoaren gaineko prestakuntza ere jasoko dugu, eta feminismoak gure bizitzak aberasteko moduak ikusiko ditugu".

Maiatzera arte

Hasiera batean, maiatzera arte dago antolatuta ekimena –hileko laugarren astelehenetan izango da–, baina asmoa bada urte amaierara arte ere jarraitzea, uda ostean berriz heltzea.

Hizkuntzari dagokionez, gaztelaraz hasiko dira –bai irakurgaiak eta bai saioak–, baina nahi dute aurrerago euskarazko taldea ere sortzea Gorbeialdean –Gasteizen, adibidez, badago–.

Lehenengo saioa Zuiako udaletxean izango da, hurrengo barikuan 18:00etatik 20:00etara. Izena emateko: berdintasuna@gorbeialdea.eus eta 945-43 01 67. Hogei lagunez osatutako taldea izango da gehienez.

Laia eskola, urtebete lanean

Berdintasunaren alorrean Araban erakundeetatik antolatzen diren ekimenak gauzatzeaz arduratzen da Laia eskola. 2017 hasieran jarri zuen martxan Aldundiak, eta 300dik gora ekintza egin zituzten iaz: "Gorbeialdeko kasuan, Irantzu Varela etorri zen Zuiara; edo Aramaion autodefentsa ikastaroa egin zen azaroan", dio Kuadrillako Berdintasun teknikari Aritz Palaciosek. Aldundiaren ildo estrategikoa da berdintasunarena: "2016an adostu zen Arabako IV. Berdintasun Planaren inguruan herrialderako jabekuntza eskola sortzea; Gasteizko bazegoen, baina Kuadrilletan ere behar zen".

ELEBERRIAK IRAKURRIKO DITUZTE, BATEZ ERE, BAINA SAIAKERAK-ETA ERE IZANGO DIRA



NIRE USTEZ

PAULA AMILBURU

Iraganak

Garai hauetan beti tokatzen zaigu horrelako egoera bat bizitzea. Deskribapen modua, on. Kazetari bat, demagun Urkiolatik gora dagoen baserri galdu bateko atarian, goitik behera tapatuta eta, hala ere, izozten. Bere alboan bertako bat, ahal bada laurogei urtetik gora eta etxeko zapatila eta jertse ziztrin batekin jantzita dagoena. Bikotea (eta kamera) elurrez inguratuta (gutxienez 50 zentimetro). Eta galdera. Galdera. *The question*.

-Aspaldi ez duela horrelakorik egin, ezta?

Eta erantzuna.

-Gogoratzen dut, bai, duela 50 urte horrelako bat izan genuela. Baina hura... buff... Hura bai izan zela...

Eta etxean gaudenok, flipatzen. Egun historikoa balitz bezalaxe. 50 urte daramatzagula horrelakorik ikusi gabe, eta zer eta harrotasun arraro bat sortzen zaigu barruan. Bai, nik bizi izan dut hori. Gerora begira gure seme-alaba, iloba edo bilobei sorbalda gainetik begiratu eta "zuk ez duzu ezer ikusi" hori errepikatzen eguna noiz iritsiko zain.

Harrigarria da nola orainak sorpresaz harrapatzen gaituen oraindik. Badaezpada ez dugu onartzen, moldatu eta esajeratu ditugun iraganeko oroitzapenak baino hobeak ez daitezzen izan, agian. Badirudi "iraganeko edozein momentu hobe izan zen horrek –barkatu zuzeneko itzulpena– engainatzen jarraitzen gaituela. Berdin dio eta Urkiolako elkarrizketatuak ia bizitza galtzea 1960ko neguan. Harentzat, oroitzapen hura elurte izugarri, baina benetan polit eta lasaia bihurtu baitzen aspaldi.



ARAMAIOKO UDALA

Paperarentzako edukiontzia

Etxaguen auzoan eta Ibarren paper edukiontzi berriak jarri dituzte, zeuden edukiontzia erraz betetzen zirela eta –sarritan, kanpoan utzi behar izaten zituzten herritarrek kartoia eta papera–. Arabako Foru Aldundiari egin zion eskaera Udalak, eta eskaerari erantzunda jarri dituzte edukiontzi berriak Ibarren eta Etxaguenen.

Herri atseginagoa izateko lanean murgilduta

Aretxabaletaren gaineko diagnostikoa egiten dabilta hainbat erretiratu Euskadi Lagunkoia egitasmoaren baitan. Aire libreko guneen eta eraikinen gaineko azterketa eginda, zerrenda luzea aurkeztu diete udal ordezkarietara, zuzendu beharra dutelakoan

Mirari Altube ARETXABALETA

Euskadi Lagunkoia sarera batzea erabaki zuen Aretxabaletako udalbatzak uztailean, eta horretarako sortutako taldetxoak lanean dihardu ordutik hona. Basotxo erretiratuen elkarteko kideek osatu dute hori, hogeitabat lagunek, eta hamabostean behin elkartzen dira ongizatearen eraikuntzan lan egiteko helburuarekin.

Herriaren gaineko diagnostikoa egitea da helburua, eta, horretarako, hainbat arlotan banatutako azterketa egiten dabilta: "Lehenengo arloa da aire libreko espazioak eta eraikin publikoak. Herriari begiratu



Herritar bat Deba ibai alboko pasealekuan. MIRARI ALTUBE

sakona eman diogu eta zerrenda luze batean jaso gure iritziz zuzendu beharrekoak", adierazi du Pedro Etxebarriak, taldeko kideetako batek. Parkeak, lorategiak, bidegorria, paseatzeko guneak, espaloiak eta eraikin publikoak aztertu dituzte, besteak beste. Imanol Aranzabal kidea, berriz, pozik agertu da taldeko lanarekin: "Gogotsu elkartzen gara eta hartutako konpromisoari eusten diogu".

Udalaren erantzuna, otsailean

Gai horren bueltan osatutako zerrenda luzea udal ordezkarietara bideratu diete, eta horiek begi onez hartu dute, "adinekoek parte hartzeko tresna aproposa" delakoan. Laster erantzungo dietela adierazi du Unai Elkoro alkateak: "Abenduaren 19an aurkeztu ziguten diagnostikoa eta aztertzen jardun dugu ordutik hona. Erantzunaren dokumentua bukatzen gabilta eta otsailean elkartuko gara haiekin", eta gaineratu du: "Gai askotan beste ikuspuntu bat aurkitu dugu, guk kontuan hartuko ez genukeena; uste dugu oso emaitza onak aterako direla".

Aurkeztutako eskaeretako batzuk

- **Eserleku beharra:** Urkulun, bidegorrian, Txarapean...
- **Zarata eta kutsadura:** ibaia zikin, arratoiak, usoak, zaratak tabernetan, gazteen lokaletan...
- **Parkeak eta gune berdeak:** komentuko horma kendu, Txarapean ekipamendu egokiak, kiroldegi aurreko zelaian adinekoendako makinak, Felix Iñurrategi parkea beti zabalik...
- **Espaloiak:** Murubiden oztupoak, apurtutako baldosak, irristatze arriskua...
- **Komunak:** hainbat lekutan beharra: bidegorria...
- **Segurtasuna:** abiadura murriztea Txarapean, argiteria publikoa...

ondo pasan!!





ara tuste ak



EGUZKIGRAF
inprimategia

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
Araba ibilbidea
20550 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941
E-mail: info@eguzkigraf.com

30 urte baino gehiago zure zerbitzura

Mozorroak gertu daude kaleko bazterrak girotzeko

Leizarra musika eskolako dantzariak eta txistulariak gaur emango diete hasiera Aratusteei eta jai giroak domekan egingo du eztanda kaleetan kuadrillen eskutik; martitzenean, osteran, ikastetxeetako gatzetxoak dantzak izango dira nagusi

Mirari Altube ARETXABALETA

Azken urteotan legez, Leizarra musika eskolako dantzariak eta Aretxabaleako txistulariak egingo diete ongiatorria Aratusteei, Argal Jaia ospatuta. Gaur, egubakoitza, izango da, 18:00etan, Herriko Plazan –eguraldi txarrarekin, Iturrigorri pilotalekuan–. "Txorimalo jantziko dira aurten, eta azken hilabeteotan gertatutako hamaika dantza eskainiko dituzte", jakinarazi du Mariatxen Urkiak, musika eskolako zuzendariak.

Kuadrillen kalejira

Jai giroak, baina, domekan egingo du eztanda kaleetan, eta, beste behin, mozorrotutako kuadrillak eta herritarrak izango dira bazterrak girotzeko ardura izango dutenak. Txistu doinuekin eta kintoek egingo duten txino dantza saioarekin ekingo diete eguneko ekitaldiei. Herritarrak, baina, kuadrillen kalejiraren zain izango dira; izan ere, orain arte sekretupean gordetakoak erakutsiko dituzte orduan. Hona hemen egingo duten ibilbidea: Araba ibilbidea, Mitarte kalea, Durana, Errekararren, Andramari auzoa, Mitarte, Durana eta Herriko Plaza.

Kalejiraren ibilbideko balioak eta leihok apaintzeko



Kuadrilla kalejiran iaz Aratusteetan. IMANOL SORIANO

dei egin du aurten ere Kultura Sailak, eta saria jasoko du dotoreenak; horretarako, gomen datu dute aurrez izena ematea Arkupen.


Asko izango dira Ibarra kiroldegian gertatuko duten herri bazkarira joko dutenak; 600 lagun pasatxo elkartuko dira han. Eta iluntze partean Mikel DJak girotuko du Herriko Plaza, lehenengoz. Astelehena, gainera, Udalak jaiegun izendatu du; hortaz, hainbat herritarrek luzatuko dute jai giroa ordu txikiak arte.

Aratuste-martitzena

Martitzenean jarraituko du Aratuste giroak, eta orduan, ikastetxeetako neska-mutikoei beteko dituzte kaleak, 2 eta 12 urte bitarteko 500 bat umek, hain zuzen ere. Txaranga doinuei jarraituta, dantzan egingo dute goiz partean: 2 urtekoek, dantza bat; 5 urtekoek, txino dantza; eta 6 eta 12 urte artekoek, 2014ko lehiaketan saritutako koreografia.

Kintoek agurtuko dituzte Aratusteak. Txin-en zerraldoa eramango dute (20:00) Herriko Plazara, eta han erre egingo dute.

Zer dakarte aurtengo Aratusteeak?



IBAI ZANGITU
KARNABALEN LAGUNAK

"Gure partetik, behintzat, giro ederra! Kolorea ere bai, eta ondo pasatzeko gogoia. Berrikuntza moduan, kintoen dantza saioaren ostean Mikel DJa egongo da plazan! Eta Pello Zabalarekin egin dugu berba eguraldia lagun izan dezagun!"



JOXE MIGEL URIBARREN
KULTURA ZINEGOTZIA

"Hotza, alaitasuna eta adiskidetasuna, betiko lez; txin-txin soinua ere bai, eta kolorea, nagusiek eta umek egindako lanetan. Gogoan izango dugu, gainera, Jose Luis Arratibel. Errespetua ere espero dut, bere osotasunean. Eta gora gure herriko Karnabalak!"

Aratuste jaietako egitaraua

Aratuste-domeka

- **10:00** Diana txistulariekin.
- **11:45** Txino dantza kintoen eskutik.
- **12:00** Kuadrillen desfilea herriko kaleetan.
- **13:00** Akelarre txarangarekin kalejira.
- **14:30** Herri bazkaria kiroldegian, Mikel DJak girotuta.
- **18:00** Akelarre txarangarekin kalejira kiroldegitik plazara.
- **18:45** Mozorro lehiaketaren sari banaketa ekitaldia.
- **19:00** Kintoen dantza saioa.
- **19:30** Mikel DJaren emanaldia Herriko Plazan.

Aratuste-martitzena

- **10:30** Umeak plazan elkartuko dira; 5 urtekoek txino dantza egingo dute eta 2 urteko haurrek dantza bat.
- **11:00** Irulitza txarangarekin kalejira eta dantza.
- **16:00** Irulitza txarangarekin kalejira.
- **17:30** Buruhandiak Irulitza txarangarekin batera.
- **20:00** Txin-en hileta; kintoek zerraldoa eramango dute Mitarte kaletik Herriko Plazaraino.

Kintoen azken dantza saioa

Santa Ageda neska-mutiek, 1999an jaiotako ia 50 kintok, eskean eta kantuan jardun zuten otsailaren 4an eta 5ean. Lehen dantza saioa ere orduantxe egin zuten, eta etzi, Aratusteein batera azkena izango da (19:00, Herriko Plaza). Goizean, gainera, hamasei bat kintok txino dantza eskainiko dute kalean gora eta behera txistu doinuei jarraituta.



Kintoak, astelehenean, Herriko Plazara bidean. MIRARI ALTUBE

Jou Díaz
Karakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Mobiliario
ARENZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia I - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

"Egun ona badut, podiumean egongo naiz"

GARAZI ESTEBEZ GUEDE TXIRRINDULARIA

Pistako Espainiako Kopako azken saioa jokatuko du asteburuan Mallorcan, eta bigarren dagoen ziklista aretxabaletarrak irabazteko aukera handiak ditu

Mirari Altube ARETXABALETA

Garazi Estebez Guede (Aretxabaleta, 2002) Gipuzkoa Ogi Berri taldeko txirrindulari kadetea denboraldi ezin hobea egiten dabil. Bioracer torneoko eta Gipuzkoako txapelketa da pistana, eta orain, Espainiako Koparen bila doa Mallorcara.

Hiru jardunaldi ditu Espainiako Kopak eta azkena jokatzerazoa. Bai. Lehenengoa irabazi egin nuen eta bigarrenean, hirugarren postuan geratu nintzen. Eta azkena, ikusi egin behar... Orain, saillapeneko bigarren postuan nago, lehenengoarengandik hiru puntura.

Guztia ematera joango zara, ezta? Horixe. Bigarren jardunaldian asma-krisia izan nuen, lehenengo nindoala, eta horregatik bukatu nuen hirugarren postuan. Ea egun ona izaten dudana, halako arazo barik. Egia da gaixo egon naizela azken egunotan, baina hobera egin dut eta neure onenean egon gurako nuke.

Podiumean ikusten duzu zeure burua?

Aukerak aurrean gauden guztiok ditugu. Egun ona badut, irabazi ere egin dezaket, eta, bestela, podiumean egongo naiz.

Pistan ezin hobeto moldatzen zarelako erakutsi duzu...

Bigarren urtea da, eta aurten bai. Iaz, hasi nintzenean, beldurrez ibiltzen nintzen; aurten, ostera, oso gustura nabil, eta hori igarri egiten da.

Zein berezitasun du pistak?

Pedalei etengabe eragin behar zaie, ez dago frenorik. Proba asko egoten dira, eta modalitate ezberdinak: iraupena eta abiadura; Espainiako txapelketan iraupen modalitatean nabil.

Pistaz gain, ziklo-krolean ere ibili zara; zer moduz?

Lau lasterketa jokatuta ditut aurten denboraldian eta ez nuen inondik inora espero hain ondo ibiltzerik, ia entrenatu barik jardun dudalako. Izan ere, ziklo-



Estebez, podiumaren erdian, Gipuzkoako Txapelketa irabazita, urtarrilean. JOSU ESTEBEZ

"ERREPIDEA DA NIRE HELBURUA, ETA BESTE MODALITATEAK HORI GERTATZEKO EGITEN DITUT"

krosetako txapelketetara libre nengoenetan joan izan naiz, Burgos aldean pare batera eta Legazpin; azken horretan bigarren postuan bukatu nuen.

Ezberdinak izango dira, ba, pista eta ziklo-krolean...

Erabat, teknika ezberdinak dituzte. Bizikletarekin oso ondo moldatzea eskatzen du ziklo-krosak, atzeko gurgila ez joateko, adibidez. Lurzoruak ere zeresan handia du, lokatza izaten delako sarritan, eta ezberdina da bustia egotea edo lehorrera. Pistan, ostera, konfiantza kontua da askotan, sartu edo ez erabakitzeke.

Eta fisikoak zeresan handiagoa du ziklo-krolean?

Ez pentsa, bietan. Baina egia da ziklo-krolean erresistentzia behar dela, topera joan beharra dagoela, eta pistan tiraka doanaren atzean jar zaitezkeela.

Laster, errepideko denboraldia hasiko duzu; gogotsu?

Bai, horixe! Otsailaren 28an Ibaetan hasiko dugu, mutilekin batera. Errepidea dut gustuko, hori da nire helburua; besteak errepideko denboraldia gertatzeko egiten ditut.

Eta zein erronkarekin hasiko duzu?

Espainiako Txapelketarako sailkatzea da helburua, eta han zerbait egitea. Hiru urtetan iritsi naiz eta gero ez dut ezer egin han; hortaz, hori da erronka.

Mutilekin ere lehiazko?

Iaz pare batean ibili nintzen eta aurten gehiago izango dira. Ikasteko sekulako eskola da, erritmo biziagoa dutelako, entrenamendurik onena.

Zeintzuk dira zure ezaugarriak?

Esprintean ondo moldatzen naiz, guztia ematen dut; irabazi ditudan lasterketa guztiak, lau edo bost, esprintean izan dira.

Asmak kaltetu izan zaitu?

Bai, askotan. Zazpi bat lasterketan anbulantziara eraman behar izan naute bukatutakoan, mareatu ere egin izan naiz. Espainiako txapelketetan bero tokatu izan zait beti eta asma-krisiak izaten ditut. Hala ere, sekula ez dut uzterik pentsatu.



Emakumea jokatzen aurreko urte batean. EKAITZ FILARMENDI

Zabalik da emakumeen frontenis txapelketarako izen-ematea

UDAK bosgarrenez antolatu duen lehiaketa martxoaren 3tik 11ra bitartean jokatuko da Iturrigorri pilotalekuan

M.A. ARETXABALETA

Emakumeen Nazioarteko Egunaren bueltan UDAk antolatu izan duen frontenis txapelketa aurten ere badator. "Gozatzeko eta, aldi berean, aldarrikatzeko izango da bosgarren hau ere", adierazi du Oihana Matak, UDAko kideak. Martxoaren 3an, 4an, 10ean eta 11n jokatuko da, Iturrigorri pilotalekuan, eta izena emateko epea zabalik dago otsailaren 27a arte -10 euro bikoteko-, hona idatzita: emakumeenfrontenisaUDA@gmail.com.

Herrian errotuz doan txapelketa da eta antolatzaileak pozik

daude izan ohi duen erantzunarekin: "Emakumeoi txapelketa batera animatzea baino gehiago orokorrean kirola egitea kostatzen zaigula uste dut. Horri txapelketa hitza gehituta, oraindik erreparo handiagoa ematen digu. Hala ere, txapelketa hau herrikoia eta lagunartekoa da, eta orain arte oso emaitza onak izan ditu. Hogei bikoteren bueltan ibiltzen gara beti".

Giro ona egon izan dela ere jakinarazi du Matak: "Emakumez betetzen da frontoia eta berezia izaten da. Herriko jendeaz gain, kanpotik ere etortzen dira".

Harrera ezin beroagoa izan du martxoaren 2ko bertso afariak

Txartel guztiak daude salduta Maialen Lujanbio eta Aitor Mendiluze bertsolarien konpainian afaltzeko

M.A. ARETXABALETA

Loramendi elkartek eta Lekai-xoka bertso eskolak antolatutako bertso afarirako txartelak salgai jarri orduko bukatu dira. Martxoaren 2an, egubakoitza, izango da afaria, Loramendi kalean dagoen Hiba Gain elkartean, eta bete egingo da. "Hainbat elkartetan egin izan dugu afari hori, eta guztietan hartu izan gaituzte oso ondo, Hiba Gainen ere bai", jakinarazi du Loramendi elkarteko dinamizatzaile Martin Berrizbeitiak.

Bertso eskolakoak ere bai

2017ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko txapelketa eta txapel-dunordea, Maialen Lujanbio eta Aitor Mendiluze, izango dituzte lagun aurten mahaiaren bueltan: "Giro alai eta informala izaten da beti", dio Berrizbeitiak, eta gaineratu du: "Baina aurten txapelketa nagusiko berotasunarekin espero dugu giro benetan ederra sortzea".

Eta aurreratu du Lekai-xoka bertso eskolako gazteak ere animatuko direla Lujanbio eta Mendiluzerekin jardutera.



Urdelardero egunean, Eskoriatzako ikastetxeetako haurrak *ziria* eskuetan dutela. IMANOL BELOKI

Aratusteetako zapatua

Egitaraua

- **12:30** Gesaltza txaranga, kalean.
- **12:30** Mozorro desfilea, Luis Ezeizan.
- **14:30** Herri bazkaria, kiroldegian. Ondoren: Unai eta Imanolekin erromeria.
- **17:00** Zementxoak eta poneyak, Luis Ezeizan.
- **18:00** Dantzaldia DJ Motorekin.
- **19:00** Mozorro lehiaketaren sari banaketa, plazan.
- **22:30** Oihan Vega DJa, plazan.

Aratusteetan murgilduta

Atzo eman zieten hasiera Aratusteei herriko txikienek, Urdelardero egunarekin. 'Ziria' eskuetan zutela kantuan aritu ziren herrian zehar. Zapatuan, berriz, egun handia izango da eta martitzenean kukumarroak izango dira Eskoriatzan, besteak beste

Imanol Beloki ESKORIATZA

Aratuste jaiei hasiera emateko, atzo, Ostegun Gizen, Urdelardero eguna ospatu zuten herriko ikastetxeetako haurrek. Base-rritar jantzita irten ziren kalera, eskuan *ziria* zutela, barruan, txorizoa, ogi-zatiaeta sagarra sartuta. Eskolako haurrek Jose Arana zaharren egoitzara bisitaxoa egin zuten, urtero moduan, eta gero, Joseba Iñurrategi pilotalekuan batu ziren, kantuan egin eta txistor-pintxoak jateko. Aurten, elurraren ondorioz, Arizmendiko haurrak ezin izan ziren festara batu.

Arratsaldean, bestalde, Kuko, Truko eta Bolenwaidarren ikuskizuna izan zen, eta txokolate beroa hartzeko aukera izan zen. Ondoren, Eskoriatzako Euskal dantza taldearen emanaldia eta Lantzeko inauterietako dantzak ikusteko aukera ere izan zen.

Bandaren kontzertua

Gaur, aldiz, Musika Eskolako bandak lehen aldiz eskainiko du kontzertua Eskoriatzako Aratusteetan. Emanaldia 20:00etan izango da, Zaldibar antzokian. Musikarien artean eta herritarren artean ilusioa piztu eta bide berriari ekiteko lehenengo ekimena izango da.

Sarrera doakoa izango da, eta *Television Showcase*, *Chariots of fire*, eta mota horretako piezak eskainiko dituzte, baita Tolosako Inauterietako kantua ere. Sorpresak ere eskainiko dituztela adierazi dute banda-ko ordezkariak.

Zapatuan, mozorro desfilea

Zapatuan, Gesaltza txaranga emango dio hasiera egunari, eta, horren ostean, mozorro desfilea izango da, 13:00etan, Luis Ezeizatik abiatuta. Aurten,

oinarrietan eta sarietan aldaketa batzuk egon dira, eta epaimahai herriko baten aldeko apustua egin du Udalak.

Erakustaldia edo dantzaldia egingo duten taldeak plaza parean gelditu ahalko dira, baina, desfilea ez luzatze aldera, bost minutu baino gehiagoko geldialdiak ez izateko eskatu dute antolatzaileek. Ibilbidea honako hau izango da: Luis Ezeiza, Fernando Eskoriatza plaza, San Juan kalea, Olazar, Fernando Eskoriatza plaza.

Mozorro desfilean parte hartzeko 12:30etik 12:45era bitartean

ZAPATUKO HERRI BAZKARIAN 300 PERTSONA BATUKO DIRA, MANUEL MUÑOZ KIROLDEGIAN



Martitzenean, kukumarroak

Antzina, Eskoriatzako Aratusteetako pertsonaia nagusiak ziren kukumarroak jendea zirikatzera eta beldurtzera irteten ziren, eta aurten ere ez dute hutsik egingo: Aratuste-martitzenean irtengo dira, kultura etxetik, 17:15ean.

Luis Ezeizako kantxan egon beharko da, edo alde zurretik izena eman kultura etxean, 943 71 46 88.

Bazkariko txartelak

Aratuste-zapatuko herri bazkaria Manuel Muñozen egingo da, beste urte batzuetan ez bezala. Orain arte, Joseba Iñurrategi pilotalekuan egin izan da, eta, hotzagoa denez, lekuz aldatzea erabaki du Udalak. Guztira, 300 pertsona batuko dira kiroldegian bazkaltzeko.

Badatoz kukumarroak

Aratuste-martitzenean amaituko dira Eskoriatzako Aratusteak, eta eguneko protagonista handiak kukumarroak izango dira. 17:00etan irtengo dira kultura etxetik, Eskoriatzako kaleetan barrena. Hala ere, horren aurretik, 10:30ean, Eskoriatzako ikastetxeetako haurrek jaialdia egingo dute, urtero moduan, Joseba Iñurrategi pilotalekuan, eta, eguna amaitzeko, 18:00etan, *Andonik mugitzen nau* DJ taldea izango da plazan –Andoni Calvo, Josu Rodríguez eta Tirapu–.



Mondrate eta Eskoriatza taldeen arteko derbia, Musakola kiroldegian jokatu zenekoa. IMANOL SORIANO

Eskoriatza eta Mondrate, aurrez aurre kantxan

Eskoriatzako areto futboleko Euskal Ligako taldeak Mondrateren aurkako derbia jokatu du gaur, 20:15ean, Manuel Muñozen. Bost puntuko aldea dagoen arren, bi taldeek nahi dituzte puntuak, sailkapenean erditik gorako postuetan kokatzeko

Imanol Beloki ESKORIATZA

Gaur, ikusteko moduko partidua jokatu dute Euskal Ligan ari diren Eskoriatza areto futbol taldeak eta Mondratek, Manuel Muñoz kiroldegian. Derbietan esan ohi den moduan, ez dago faboritorik, eta partidu intentsua aurreikusten da.

Zapatuan edo domekan jokatzea zen partidua, baina Eskoriatzak eskaera egin zien Mondratekoei egubakoitzean jokatzeke, eta horrela Aratusteez disfrutatzeko. Aurkariaren erantzuna baiezkoa izan zen, eta, Federazioaren onarpenarekin, gaur jokatu da.

Porrot gogorretik bueltan

Pasa den astean, Eskoriatzak Batzarreraren aurka 8-3 galdu zuen, eta, Iker Molina entrenatzailearen esanetan: "Oso txarto jokatu genuen eta hasieratik menperatu gintuzten. Hala ere, gaurko partidua ezberdina izango delakoan gaude; izan ere, derbi guztietan moduan, oso

motibatuta joango gara garai-penaren bila".

Mondrate, garaipen beharrean

Denboraldi honetako laugarren jardunaldian neurtu zituzten indarrak Eskoriatzak eta Mondratek, eta Eskoriatza izan zen garaile (1-2). Hala ere, Mondratek atsedenaldea izan zuen pasa den astean, eta, deskantsatuta

joan arren, jokalaririk asko lesionatuta daude eta bigarren taldeko asko irtengo dira kantxara", adierazi du Josu Uribarrenek, Mondrateko entrenatzaileak.

Emakumezko seniorrak

Derbiaren ostean, 22:15ean, Teep Samaniego taldearen aurka jokatu dute emakumezkoek, Manuel Muñozen.



IKER MOLINA
ESKORIATZAKO ENTRENATZAILEA

"Gol asko sartu eta jasotzen ditu Mondratek, eta indibidualki oso onak dira. Zaleen animoekin, gogor egin beharko diegu aurka".



JOSU URIBARREN
MONDRATEKO ENTRENATZAILEA

"Partidu gogorra izango da. Lesioen erruz, bigarren mailako gazte askok jokatu beharko dute, baina irabaztea da gure asmoa".



I.B

Santa Ageda neska-mutilak

Astlehenean, 2000n jaiotako kintoei dantzak egin zituzten plazan. Euripean egin bazituzten ere, maila ona erakutsi zuten Santa Ageda neska-mutilek, eta familiakoak, lagunak eta herritarrek Fernando Eskoriatza plazan batu ziren horiez gozatzeko. Domekan, berri egingo dituzte dantzak, 19:00etan.

Otsailaren 17an egingo da Panticosara eski-irteera

Kirol Elkarteak antolatuta, urtarrileko azken asteburuan egitekoak ziren eski irteera bertan behera geratuta, otsailaren 17-18ko asteburuan egingo da.

Prezioa 140 euro da, eta izena emateko azken eguna gaur da, Namaste belar-dendan. Antolatzailerak adierazi dutenez, 20-25 pertsona batu nahi dituzte irteera gauzatzeko, eta bertara-

tzeko dei egingo die herritarrei. "Urteak dira irteera hau antolatzen duguna, eta pena izango litzateke gehiago ez antolatzea. Hala, eskiatzen dakitenek, edota ikasi nahi dutenek, aukera izango dute bertara joan eta elurretan gozatzeko; horrenbestez, animatu...", adierazi du Garbiñe Uribe, antolakuntza taldeko kideak.

Informazio gehiagorako, berri, 943 71 43 27 telefonora deitu beharko da, edo Namaste belar-dendan galdetu.

Izarrak eta konstelazioak ikasteko tailerra

Otsailaren 18an, *Astronomia tailerra: izarrak eta konstelazioak* saioa izango da Eskoriatzako kultura etxean. Urtarrilean astronomiaren inguruko lehenengo hitzorduak izandako arrakastaren ostean, bigarren saio hori eskainiko da.

8 eta 13 urte bitarteko haurrei zuzenduta egongo da tailerra, eta bertan, konstelazioak zer diren eta nola identifikatzen diren ikasiko dute bertaraten diren izarrak, planetak eta sateliteak. Gainera, aterkiak banatuko dira, barruan bakoitzak planisferioa margotu dezan. Izen-ematea kultura etxean egin beharko da, eta prezioa hamar euro da.

Unidad Alavesa taldearen emanaldia otsailaren 16an

Unidad Alavesa izango da otsailaren 16an, egubakoitzean, Inkernu tabernako agertokian. Ataunen sortutako taldearen emanaldia 22:30ean hasiko da, eta country-folk-rockaz gozatu nahi duenak aukera aparta izango du bertan.

Ataunen jaiotako taldearen lehen diskoa da, baina, talde berria izan arren, ibilbide luzeko musikariek osatzen dute Unidad Alavesa taldea. Besteak beste, Benito Lertxundi, Fiachras, Brigada Criminal, Los Rockinson, Zopilotes Txirrius, Bizardunak, Stanislaw taldeetan aritutako eta gaur egun horietako talde batzuetan ari diren musikariak daude.

BuztinAte elkartearen bazkidetza kanpaina

BuztinAte elkartearen sortu zenetik bi urte pasata, bazkidetza kanpaina jarri dute martxan. Otsailean etxez etxe bidaliko dute eskuorria informazio guztiarekin, eta bazkidetzaren helburua herriak buztinarekiko duen loturari eustea da

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatzako buztzingintza eta zeramika ikastaroak bikain hasi du urtea. Iaz bezala, nagusien taldea eta haurren taldea daude, eta eguaztenetan izaten dituzte eskolak, Zubiare labean. Hurrek 16:45etik 17:45era eta helduek, berriz, 18:00etatik 20:00etara. Dagoeneko, gainera, hainbat lan egin dituzte, eta egindako piezen emaitzak hoberantz doazela adierazi dute elkartearen kideek.

25 ordu eta zortzi heldu daude aurtengo ikasturtean, eta, Alvaro Garcia irakaslearen gidaritzapean, lan txukunak eta orotarikoak egiten ari dira; etxera eramateko, norbaiti opari gisa emateko, edo Zubiare labean ikusgai jartzeko. Honela adierazi du Olatz Pagaldayk, BuztinAte elkartearen kidea: "Alvaro Garcia irakasleak oinarritzeko teknikak erakusten dizkigu. Bai helduen taldekoei, eta bai haurrei. Behin oinarritzeko kontzeptuak ikasi ostean, sorkuntza



Buztinaten lanean. OLATZ PAGALDAY

askatasunerara bideratutako eskolak izaten dira. Hau da, norberak nahi duen pieza egiten du, eta hori gauzatzen laguntzen digu irakasleak. Hasi ginenetik hona, kalitate maila ere asko handitu dela esango nuke".

Haurren imajinario handia

"Egiten ditugun piezen artean ezberdintasun handiak daude: margotuta daudenak, gabekoak, detaile handiekin betetakoak... Haurren taldean, esaterako, ipotxen etxea egin dute. Bi pieza ezberdin dira eta teilatua kendu egiten zaio. Umeei jolas-teko pieza ederra dela esango nuke...". Prozesua, berriz, honako hau da: buztinarekin pieza gauzatu, labetik pasa, margotu eta berriz labetik pasa.

Egokitzapenak egin nahian

Bazkidetza kanpaina martxan jarri berri, Udalarari ere eskaera egin diote Zubiaren hainbat aldatuta egiteko: "Udalarari eskaera egin diogu, eta erantzunaren zain gaude. Argiteria-tentsioa igo nahi dugu, alde batetik, bestela argindarrak salto egiten duelako, eta ur beroa ere jarri nahi dugu. Horretarako, herritarrek bazkide izatera animatu nahi ditugu".



DJ Humberto, Bergaran saioa eskaintzen. GOIENA

Gatzagarrak etorkizunera begira jarriko dira Aratusteetan

Herri bazkaria egingo dute Soran Etxean, eta ondoren DJ Humberto izango da musika jartzen, bazkalostean

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Gatzaga 3500 da Leintz Gatzagako aratusteetara begirako aurtengo gaia. Etorkizuneko Gatzaga islatu nahi dute herritarrek, eta norbanako bakoitzak bere mozorroa edo taldeka egindakoak ikusi ahal izango dira zapatu honetan Leintz Gatzagan.

Labidean ipinitako arbelean gai ezberdinak jartzeko aukera izan dute herritarrek hainbat egunetan, eta boto gehien jaso duena *Gatzaga 3500* izan da.

Aratusteak ospatzeko, Soran Etxean bazkaria egingo dute hainbat herritarrek. 14:30ean

izango da bazkaria, eta 50 pertsona inguru izango direla aurreikusten da. "Izen-emate asko egon dira, baina ea eguraldiak laguntzen duen eta jendeak ez duen atzera egiten", adierazi du Soran Etxeko Montse Valeriok.

Hotela, jai eremu

Bazkalostean, DJ Humberto musikari elgoibartarra izango da Soran Etxean. Gaur egungo kantuak eta zaharrak jarriko ditu, gatzagarrak dantzan jartzeko asmoarekin. Horrez gain, sorpresak ere izango dituzte bertaratzen direnek.

GORA ETA BEHERA



NESTOR ARANA

Zikinkeria herriko sarrerako bazterrean



Urtarrilean egindako osoko bilkuran, Nestor Arana EH Bilduko zinegotziak keza baten berri eman zuen. Herriko sarreran bidegurutzeko bazterrean dagoen zikinkeria gainera, hain zuzen ere. Gaia landuko duela adierazi zuen Udal Gobernuak.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.



GARAZI OROBENGOA

Dorleta Santutegia, zurituta

Itxura horrekin esnatu zen eguazten goizean Dorletako Amaren Santutegia. Garazi Orobengoa gatzagarrak bidalitako argazkian agertzen denez, elur geruza ederra zegoen Gatzagako inguruetan.


Goizean itxura horrekin bazegoen ere, eguerdi partean eguzkia atera, eta haraino igotzeko ez zen arazorik izan.



Martin eta Julian Ezenarro, Osintxun; mendia garbitzea "gozamena" dela diote: "Pastillatan izugarri aurrezten dugu". J. BEREZIARTUA



Neguan zelai itxi baten izango dituzte pottokak, udaberrian larrera ateratzeko. J.B.



Pinudia zena larre eder bilakatu dute Ezenarro anaiek Karakate inguruan. J.B.

Lurraren senide egin diren anaiak

Osintxuko Julian eta Martin Ezenarro anaiak duela zortzi urte hasi ziren lurra euren kabuz erosi, pinuak bota eta lur horiek larre bihurtzen, trukean mendia eder ikustearren gozamena jasotzen dutela: "Jende asko dabil auto baten gu baino gehiago gastatzen"

Jokin Bereziartua BERGARA

Istorio bitxia bezain ederra da Osintxuko Julian eta Martin Ezenarro anaiena. Bitxia bezain ederra delako baserritarren lur pribatuak erosi eta, pixkanaka, euren izerdiz, ilusioz eta borondatez, lur horiek garbitzen joatea.

Soraluzeko lurretan ari dira lanean bereziki, eta, diotenez, euren aitarena da errua: "Umetatik dugun ametsa da, beti ibili izan gara eta mendian. Errua aitarena da; aitzak transmititu zigun bertako mitologia, landaredia eta animalienaganako maitasuna. Lehen, lurra oso garesti zeuden, baina orain, pinudiak oso merke edo ia doan daudela eta lehen sektoreak jarraipenik ez duenez, 28 hektarea erostea lortu dugu", dio Martinek. Trukean zer jasotzen duten? "Gozamena", dio: "Bertako zuhaitzak hazten ikustea, gure abereenda-

lariak izatea... mendia eder ikustea. Artelan bat da. Lorezainei *paisajista* esaten diete orain; bada, desbrozadorearekin edo sasi-garbitzeko makinarekin aritzen garen artistak gara. Sekulako poza ematen digu, pastillatan izugarri aurrezten dugu".

Erosi, garbitu eta larre egin

Anaia Julianen arabera, pinudi ilunen lekuan zelai zabalak egitea da helburua: "Poliki-poliki lurra erosten hasi, pinuak bota, garbitu, hazia bota... Zelai bihurtu arte, guk larreetarako nahi dugu. Etorkizunerako

MOTOR-ZALEAK DIRA EZENARROTARREN ETSAIA NAGUSIAK: "MENDIA KISKALI EGITEN DUTE"

mendia garbi utzi gura dugu; lehenengo, animalientako, eta gero, bi hankakoendako". Baserritarrari lurra erosi eta pinuak bota ostean, orduan hasten da lanik zikinena: "Legeak agintzen du enbor guztiak zati txikietan moztu behar direla, eta gero, Aldundiari baimena eskatu behar izaten diogu noiz erre ditzakegun jakiteko".

Etsai nagusiak, motordunak

Bestalde, Julianek dio lanon etsai nagusiak motorzaleak direla: "Mendia kiskali egiten dute. Bideak, garo-sailak, basoak... dena. Mendi inguru hau %90 pribatua da eta inork ez du eskubiderik beste batena den eremuetan horrela ibiltzeko. Gozatzeko bai, baina mendia izorratzeko ez". Hainbat salaketa jarri dituzte, Bergarako, Soraluzeko eta Elgoibarko udaletan. Soraluzeko Uda-

larekin harreman "oso ona" dute: "Soraluzeko Udala lurra erosten hasi da; jabeek lur eremu handiak saldu nahi izaten dituzte, baina Udalak gainak erosi nahi izaten ditu, bereziki. Hala, malda guk erosten dugu eta gaina Udalak. Hirukurutzetatik hasi eta Karaketaraino dauden bost edo sei kilometro hauetan ia lur guztiak gureak dira".

"Maitasun osoz doaz mendira"

Lur horiek balio handikoak dira, gainera. Duela 28 urte izendatu zuten parke natural, Euskal Herriko mendi aipagarrien ze-

PARKE NATURALA IZATEA, 36KO GERRAKO LUBAKIAK, 18 TRIKUHARRI... BALIO HANDIKO LURRAK DIRA

rrendan dago, 36ko gerrako lubakiak ditu, Erromatar garaiko kanpaleku bat, hamazortzi trikuharri eta zutarri bat... "Eta askoz gehiago", dio Julianek.

Mendiaren bi erromantiko horien ilobak, Mikel Goenagak, hitz ederrak ditu: "Txikiteoan egin edo futbol partidu baten epaileari denetarik esaten ibili beharrean, bi hauek maitasun osoz etortzen dira mendia zaintzera [...]. Benetan sinisten dute egiten duten horretan; euren denbora osoa hemen inbertitzen dute. Lur hauek berez ziren moduan uzteko ari dira lanean; guk ere mendia maite dugu, baina beste belaunaldi batekoak gara. Hau sakrifizio handia da". Sakrifiziotik, baina, gutxi haienztat: "Jende asko dabil auto baten gu baino gehiago gastatzen. Gonbita egingo genieke mendizaleei berdina egin dezaten".

Eguraldi grisari kolorea jartzera doaz bergararrak

Torraden eta pellen ikastaroarekin eta atzoko sorgin dantzarekin abiatu dira Aratustek, ekitaldi potoloenen faltan: gaur kontzertu berezia, bihar mozorro bazkaria eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizuna eta martitzenerako musika eskolakoen kalejira

Jokin Bereziartua BERGARA

Bergarari ere Aratuste usaina dario. Hain justu, torraden eta pellen usainaz eta zaporeaz gozatzeko aukera izan zuten martitzenezan San Antonio auzoko Gure Ametsa elkartearen egin zen ikastaroan parte hartu zutenek. Eta atzo, duela urte gutxi berreskuratutako ohitura zaharri ertsiz, sorgin dantza egin zuten San Martin plazan, Barrenkalean, Simon Arrieta plazan eta Irala kalean. Dantzariak herriko txistularien eta trikitilarien laguntza izan zuten, eta, aspaldiko tradizioari ertsiz, hartza ere irten zen kalera, dagokion hezitzaile eta guzti.



De Mairena Bergaran egon zen iaz. I. S.

Gastu aurreikuspena: 36.000 euro

Gaur, Aratusteetako kontzertuak 30 urte egingo ditu. Ez dira izan 30 urte gaur egungo formatuan, eta, hain zuzen, gaurkoa izango da formatu horretan egingo den azken emanaldia (ikus 28. orria). Biharko, Kuadrillen Eguna, mozorro bazkaria antolatu dute. 100 bat lagun elkartuko dira, azken bi urteotako kopuruari ertsita. Aratuste-martitzenezan, gaztetxoek izango dira protagonista; mozorroek eta musikak bat egingo dute arratsaldean.

Bestalde, Udalaren gastu aurreikuspena 36.000 eurokoa da eta sarreraren aurreikuspena, berriz, 14.480 eurokoa.

Aratustek Bergaran: egitaraua

Otsailak 9, egubakoitza

- **22:30** *Ai amatxo 3.0* kontzertua, Udal Pilotalekuan (ikus 28. orria).

Otsailak 10, zapatua

- **13:00** Animazioa Kolpez Blai taldearekin.
- **14:00** Mozorro bazkaria Aranzadiko gimnasioan.
- **16:15 eta 18:30** Pirritx, Porrotx eta Marimototsen *Borobilean*, frontoian.
- **18:30** Erraldoien, kilikien eta buruhandien kalejira.
- **20:00 eta 22:30** Tximeleta taldea San Martin plazan.

Otsailak 13, martitzena

- **16:30** Musika Eskolako gazteen bandaren kalejira kaleetan zehar.
- **17:30** DJ festa Gauargi taldearekin, herriko plazan.

Kopla Barik taldeak antolatutako bertso saioa gaur Bule

Gaur, otsailak 9, bertso saioa izango dute Bule tabernan (22:30). Kopla Barik taldeak antolatu du saioa, eta Oihana Iguaran billabonatarrekin eta Nerea Ibarzabal markinarrekin batera, Bergarako Asier Kortabarrria *Moto* eta Unai Arantzabal arituko dira bertsoetan. Ibon Leibar *Txinbo* arituko da gai jartzaile lanetan.

OHARRAK

Oparitu Zuhaitz Bat

Otsailaren 15ean liburutegian elkartuko dira, 19:30ean. Gaiak: energia txirotasuna, Fiare banku etikoa eta kooperatiba energetikoak.

San Joxepe: irteera

Martxoaren 7an Aginaga sagardotegira joango dira. Martxoaren 2a baino lehen eman behar da izena.

Jean Louis David

IBARGARAI 48 • 20570 Bergara • 943 76 22 48 • www.jeanlouisdavid.com

ASTELEHENETIK OSTEGUNERA:
09:30-12:00 / 15:30-18:30

OSTIRALA: 09:30-18:30

LARUNBATA: 08:30-12:30

ASTELEHENETAN, ASTEARTEETAN
ETA ASTEAZKENETAN %20KO
ESKAINTZA

OSTEGUNETAN %20KO
ESKAINTZA (MUTILETAN)





Martitzenean aurkeztu zuten dokumentua, hura egiten lagundu duten herritarrek eta Udaleko ordezkariak. TXOMIN MADINA

Hiribilduak 750 urte egin dituela gogora ekartzera

Uztailaren 30ean 750 urte beteko dira Bergarak hiri-gutuna jaso zuenetik, eta horren bueltan hainbat jarduera prestatzeko lanean aritu da Udala, hainbat herritarrekin batera; lehen fruitu moduan, eskuragarri dago herriko historia sintetizatzen duen dokumentua

Txomin Madina / J.B. BERGARA

2018a urte berezia da Bergararendako, uztailaren 30ean 750 urte beteko dira-eta udalerrriak hiri-gutuna jaso zuenetik. Hori gogoratzeko, hainbat ekimen eta jarduera prestatzeko lanetan ari dira Udala eta hainbat herritar, eta dagoeneko eskuragarri dago emaitzetako bat:

Bergarak historian izan dituen mugarriak eta garapena jasotzen dituen dokumentua.

Lantaldeetan banatuta dihardute arlo ezberdinak lantzen: Kultura eta Kirol Mahaia, Hezkuntza Mahaia, Mahai Historiko Zientifikoa eta Garapen Sozioekonomikoaren Mahaia. "Bertan herritar eta eragile

ezberdinen ekarpenak jaso eta dagoeneko hasiak gara horien gainean lanean", dio Elena Lete alkateak. Ekintzak "guztion artean" antolatzeko asmoz, bost oinarri adostu dituzte: Bergararen sorrera administratiboa -zer den hiribildua izatea-; Bergararen hasierako eta gaur egungo lurralde eraketa; uda-

lerrian hezkuntzan eta zientziaren alorrean egindako lorpenak; ehungintza industria eta emakumeak; eta 1970eko hamarkadako elkarteen mugimendua.

Herriko historiaren "bizkarrezurra"

Mahai Historiko Zientifikoaren lanak eman du lehen fruitua: eguaztenean aurkeztu zuten Bergarako historiaren garapena eta mugarriak jasotzen dituen dokumentua. Eusko Ikaskuntzak egin duen arren, hainbat bergararrek egin dituzte ekarpenak: Miguel Angel Alvarezek, Juan Martin Elexpuruk, Miguel Angel Elkoroberezibarrek, Andoni Larrañagak, Jose Mari Larrañagak, Patxi Larrañagak, Xabier Larrañagak, Juan Madariagak eta Anaje Narbaizak. Hain justu, Narbaizak dio dokumentu horrek Bergarako historiaren "bizkarrezurra" osatu gura dela, aurrerantzean lan egiten jarraitzeko ildo sendo bat ezartzea. "Eginda zegoena azaltzeko jo zuen Udalak guregana; Bergarak lan handia egin du herriko historiaren inguruan, baina dibulgazio aldetik pauso bat harago joan behar genuen", gaineratu zuen Narbaizak.

Dokumentua zazpi ataletan dago banatuta: *Historiaurrea, Erdi Aroa, Aro Modernoa, XIX. mendea, Bergara modernitate-rantz, Gerra zibila eta Frankismotik demokrasiara*. Dagoeneko eskuragarri dago udal webgunean, eta datorren astean zehar

fisikoki egongo da eskuragarri Udaleko hainbat eraikinetan -udaletxean, liburutegian eta Laboratoriumen, adibidez-. Herriko ikastetxeetan ere banatuko dute.

Potoloena, apiriletik aurrera

Apiriletik aurrera hasiko dira urteurrenaren harira antolatutako ekintza garrantzitsuenak. Besteak beste, herriko historia ezagutzeko ziklo bat antolatuko dute eta wolframioa isolatzeko esperimentu bat egingo dute. Bergarako Musika Bandak elkarreetako piezak batuko dituen CD bat grabatuko du, eta ekainaren 29an, "ekitaldi berezia" egingo dute herriko kultura taldeek. Kirol argazki historikoekin osatutako erakusketa; Bergarako curriculum unitate didaktikoa; Bergararen egungo eta etorkizuneko egoera aztertzeke ikerketa... ere badira garatzen dabiltzan beste proiektuetako batzuk. Gida baten jasoko dituzte ekitaldi guztiak.

Amaitzeko, martitzeneko agerraldian aurreratu zuten merkatarien eta ostalarren ekimenez Erdi Aroz moztortutoko dutela herria Aratusteetan.

KULTURA TALDEEKIN "EKITALDI BEREZIA", BANDAREN DISKO BAT, KIROL ARGAZKIEKIN ERAKUSKETA...

ONDO PASA ARATUSTEETAN

ZATOAZ FESTARA!

ARATUSTEAK 2018 BERGARAN

ETXAGI • IRISH PUB GALWAYS • BULE • EUXEBIO II • USOA • POL-POL



Kadete mailakoak, Beasainen jokaturako partiduan, Xabi Azkargorta bertan dela. BKE

Gazteek elkartasun keinu "ederra" izan dute

Kadete taldeko Xabi Azkargorta gaztearen gaixotasunaren aurrean haren lagunek izan duten inizatibak zeresana eman du; Athleticen jokalaririk Yeray Alvarezekin egindakoa errepikatuz, Azkargortaren taldekideek eta lagunek ilea moztu dute

A. Ezkibel/ J. Bereziartua BERGARA Futbolaren alde txarrak ikustera ohitu gara azkenaldian. He-dabideetan ohikoa izaten da kirol horren inguruko gertaera zatarrenen eta bortitzenen berri entzutea. Baina futbolak, eta kirolak, orokorrean, badute bes-telako aurpegia ere. Eta aurpegi horren alde atseginena ikusi da egunotan Bergaran.

Xabi Azkargorta gazte bergararrari minbizia diagnostikatu izana "susto itzela" izan bazen ere, BKEko futbol saileko kadete mailako kapitaina arriskutik salbu dago. Hori nabarmendu nahi izan du Manu Diazek, BKEko ordezkariek, ez dela "alarma" sortu behar.

Gazteen inizatiba izan da

Keinu ederra izan da gazteen lagunek izan dutena. Athleticen lehen mailako jokalaririk Yeray Alvarezekin egindakoa errepikatuz, Azkargortaren taldekideek ilea moztu dute, elkartasun keinu moduan. Ka-

detek mailako taldekide guztiek gain, beste jokalaririk batzuek ere moztu dute ilea, eta baita futbolearen aritzen ez diren batzuek ere –gazte mailako bigarren taldea, adibidez–.

Kirol elkarteko ordezkariek nabarmendu du ez dela futbol sailaren inizatiba izan: "Guk ez dugu bultzatu". Inizatiba taldeaz harago eta futbol sailaz harago doa. Azkargortaren lagunak eurak izan dira inizatiba hartu dutenak eta elkartasun keinu hori izatea proposatu dutenak. Proposatu bakarrik ez, baita gauzatu ere.

Elkartearen helburua

Kirol elkartearen helburua talde giroa sortzea dela azaldu du

**INIZIATIBA TALDEAZ
ETA ELKARTEAZ
HARAGO DOA;
LAGUNENA IZAN DA
EKIMENA**

Diazek: "Elkartean sartu gine-nan, argi genuen helburua ez zela partiduak irabaztea, baizik eta beste giro bat sortzea Agorrosinen, entrenatzaileak haztea, talde giroa sortzea... Partiduak irabaztea horren guztiorren ondorioa izango da, baina helburuak talde giroa sortzea izan behar du", azaldu du. "Gu bostehun gara elkartean, eta beti gertatzen dira ezbeharak, baina holako zerbait mutiko gazte bati pasatzea gogorra da; zorionez, gutxitan gertatzen dira horrelakoak", gaineratu du elkarteko ordezkariek.

Beasainen, talde argazkia

Otsailaren 3an kadete taldeak Beasainen jokaturako partiduan –0-1– egin zuten taldekideek argazkia Azkargortarekin. Horren berri eman du Diazek *Txanoaren azpian* kronikan, *cronicasmahoneras.wordpress.com* atarian; eta elkartasun mezua idatzi dio Azkargortari *Ez berandutu* kronikan, atari berean.



XABI LABAKA

Brontzeko domina lortu dute

Gipuzkoako Txapelketa jokatu zuten joan zen aste bukaeran Azpeitian. Bergararik bederatzigerilari joan ziren eta nabarmentzekoa da Endika Ibaibarriagak lortu zuen hirugarren postua, 400 metro estiloetan. Maddi Yarzak, Maria Borislavovak eta Maider Bibaok ere aipatzeko moduko lana egin zuten, eta gertu izan zuten podiuma.

Exposito eta Sein eta Labaka eta Alberdi, nor baino nor gehiago

Lau t'erdiko pilota txapelketako hirugarren jaialdia jokatu dute datorren martitzenean, 19:30ean. Promes mailan, Exposito eta Sein lehiatuko dira nor baino nor gehiago eta nagusietan, Labaka eta Alberdi.

Otsailaren 6an txapelketako bigarren jaialdia jokatu zuten. Promes mailan, Urien 22-9 nagusitu zen Agirremalloaren aurka. Urinek partidu polita jokatu zuen, eta ezkerrekin tanto politak egin zituen. Nagusien mailan, Zubizarretak 22-14 irabazi zion Prietori. Partidu ederra izan zen eta tanto politak ikusi ziren Munizipalean. Sakez seina tanto egin zituzten, eta galdutako gutxi izan ziren.

Zumaiako Pulpo taldearen aurka jokatu dute bihar

Eskubaloiko elkarteko talde nagusiak Zumaiako Labarra Taberna Pulpo KEren aurka jokatu du bihar, zapatua, 17:30ean.

Soraluce Bergara puntu behar-rean dago. Sailkapeneko azkeneko postuetan daude mahone-roak –bederatzigarren postuan 9 punturekin–. Zumaiako taldea, aldiz, sailkapeneko goialdean dago, lehenengo postuei begira. Bigarren dira sailkapenean, 21 punturekin. Taldeko liderra Egiako Koska taberna da, horiek ere 21 punturekin. Mahoneroek sendo jokatu beharko dute defentsan eta fin ibiliko beharko dute jaurtiketetan, Zumaiatik punturen batekin etorri nahi badute.

Emakume Master Cup txapelketan aurrera egin du Bergarak

Arrate Bergara pilotariak Emakume Master Cup txapelketako lehenengo fasea gainditu du eta bigarren fasea jokatu du otsailaren 17ko eta 18ko aste bukaeran. Nagore Bilbao bizkaitarrekin osatu du bikotea Bergarak. Joan zen asteko egunean hasi zuten txapelketa –otsailak 1–; lehenengo jaialdian bi partidu jokatu zituen bikote bakoitzak

eta taldea osatzen duten lau bikoteetatik hiru pasatu dira bigarren fasera.

Bergara tuterarra da jaiotzez, baina, ama bergararra duenez, Bergarara etorri da bizi izatera eta batxilergoko ikasketak euskaraz egitera. Bergara pilota elkarteko kideekin entrenatzen da. Emakume Master Cup txapelketako lehenengo mailan parte hartzen dihardu; Bergararen ilusioa "finalerdietara iristea da, telebistan emango dituztelako partiduak".



Eguaztenean egin zuten entsegu orokorra. MIREIA LARRAÑAGA

Umorea eta musika, eskutik

'Ai amatxo 3.0' ikuskizuna eskainiko dute gaur, 22:30ean, Udal Musika Bandak, Orkestrak, Aritzeta abesbatzak eta herriko beste hainbat artistak. Gaur egungo zuzendarien agur emanaldia izango da; aurrerantzean laguntzen ibiliko dira

Arantzazu Ezkibel BERGARA

Iritsi da herritar askok gogotsu itxaroten duten hitzordua: Aratuste kontzertu eguna. Aurten 30 urte beteko dira kontzertua eskaintzen hasi zirenetik, eta modu berezian ospatu nahi dute urtemuga. *Ai amatxo 3.0* ikuskizuna eskainiko dute, 2012an eskaini zuten *Ai amatxo*-ren bertsio luzeago bat. "Badirudi atzo izan zela, eta dagoeneko 30 urte pasa dira", dio Alfredo Gonzalez Chirlaque zuzendariak.

Kontzertuaren eboluzioa

"Hasiera batean, Udal Musika Bandak bakarrik eskaintzen zuten kontzertua; ondoren, orkestrarekin hasi ginen; orain dela 14 urte, Javi Burgos hasi zen eszenografia zuzentzen; eta azkeneko urteetan, Manu Diazek gidonia egin izan du", gaineratu du Gonzalez Chirlaquek. Hain

zuzen, 1989ko Aratuste-domekan egin zuten lehenengo kontzertua, udaletxeko osoko bilkuren aretoan; hurrengo urtean, Novedades antzokian eskaini zuten kontzertua; eta 1994an, Munizipalean egiten hasi ziren, baina domekan izan beharrean, bari-kura pasa zuten hitzordua. 2010ean musikalen egitura hartu zuen, eta ikuskizunean antzetzeari ere garrantzia eman zitzaion.

Familia guztiari zuzendua

Udal Musika Bandako zuzendariaren esanetan, erabaki dute *Ai amatxo* errepikatzea "ikusle guztiei zuzendutako musikala delako, bai umeendako eta baita nagusiendako ere, eta bere garaian filmak arrakasta izan zuelako".

2012ko ikuskizuna baino luzeagoa eta osoagoa izango da

aurtengoa: "*Ai amatxo* filmean oinarrituta dago gidonia, baina saiatu gara gurera ekartzen; hau da, Euskal Herriko landetxe batean girotuta dago ikuskizuna", azaldu du Manu Diazek, gidogileak. Erroka zein izan den galdetuta, Diazek dio filmak zinemetan izan zuen arrakasta ikusita saiatu dela kalitate hori ez galtzen; eta, bestalde, erroka izan dela istorioa gurera ekartzea. Eszena berri batzuk sartu ditu, komedia girokoak eta erromantikoak. "Esan dai-teke *lifting* bat egin diogula

1989KO ARATUSTE DOMEKAN EGIN ZUTEN LEHEN SAIOA; BILAKAERA HANDIA IZAN DU 30 URTEOTAN

2012koari, eta egokitu egin dugula", dio.

Bi ordu inguru iraungo du ikuskizunak. Lehenengo, 15 minutuko kontzertua eskainiko du Udal Musika Bandak. *Ross Roy* obertura –Jacob de Haan– eta *Manhattan Skyline* –David Shire– obrak eskainiko dituzte. Ondoren, orkestrarekin eta Aritzeta abesbatzarekin eta aktore eta dantzariarekin musikala eskainiko dute. Hamabost pieza.

150 lagunetik gora

Aktore lanetan eta abesten 35 bat lagun ibiliko dira. Javi Burgos izan da guztion zuzendaria: "Denbora laburra izaten dugu entseatzeko, nork bere lana izaten du-eta hemendik kanpo". Maria Izaga, Ainara Ortega eta Joana Ortega izango dira abeslari nagusiak. Horiez gain, Aritzeta abesbatza ere ibiliko da kantuan, eta dantzan Debako Kulunka dantza taldekoak ibiliko dira. Burgosek dio zorzea duela prestutasun handiko jendea eta jende jatorra dagoelako taldean, eta esandako guztia egiten dutelako. "Zailena izan da inoiz horrelakorik egin ez dutenekin lan egitea, baina izan duten garapena ikusita oso pozik nago", gaineratu du. Musikiariak 110 lagun inguru izango dira.

30 urte horietan anekdota asko bizi izan dituztela dio Gonzalez Chirlaquek: "Norbaitek kable bat zapaldu eta soinua itzaltzea; bafleak botatzea; eta errepeideak

zurituta egonda musikariak ezin iristea. Denetik izan dugu".

Belaunaldi aldaketa

Aurtengo emanaldiarekin agur esan nahi dute hiru zuzendariak: "Lanean jarraituko dugu, baina lehenengo ilaran izan beharrean, atzean, laguntzen. Trantsizio bat izango da eta guk alde batera emango dugu pasoa", azaldu du Diazek. Hau da, belaunaldi aldaketa izango du Aratuste kontzertuak. Azaldu dute hainbat gazte daudela taldearen gidaritzan hartzeko indarrarekin eta gogoarekin. Gonzalez Chirlaquek ere Bandako zuzendaritza uzteko asmoa du, baina 2019ko Aratustean oraindik zuzendari lanetan ibiliko da. Hortaz, gazteen laguntza izango du Gonzalez Chirlaquek kontzertuari forma emateko, eta Burgos eta Diaz ondoan izango ditu, laguntzen.

Sarrerak agortuta daude

Otsailaren 1ean 800 sarrera jarri zituzten salgai eta egunean bertan saldu zituzten guztiak. Internet bidez ipinitakoak 20 minutuan saldu ziren –zenbaki bakoitiak– eta txarteldegian ere egunean saldu zituzten –zenbaki bikoitiak–.

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



DENTISTAK

ADUR HORTZ KLINIKA

Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behea / 943 79 95 60

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Oñalora lizentziaduna 18 solairu artea esk.
943 79 13 68

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskoizuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behea esk. / 943 76 80 06

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk. / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 76 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behea / 943 79 20 18 / 620 12 48 43

DIETETIKA

ALBERDI MIREIA

Bergara / Masterreka kalea 11, behea
943 76 33 99 / 646 43 34 58

BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO - FONALIA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

FISIOTERAPIA

IGONE MORRAS

Arrasate / Oñalora Lizentziaduna 18, solairuartea esk.
685 70 17 96

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11
943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Arexabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Arexabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Arexabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 68 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA

(AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

YOGA

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behea
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

"Haurren beharretara egokituta dago eskola"

XABIER ARREGI MU-KO IRAKASLEA

Antzuolako hezkuntza errealitatea jaso du Xabier Arregi oñatiarrak bere tesian. Eskolaren atzean dagoena gerturatuko die herritarrei otsaileko aurkezpenean

Maidar Arregi ANTZUOLA

Mondragon Unibertsitateko irakasle Xabier Arregik ondo ezagutzen du Antzuolako hezkuntza-pedagogia. Izan ere, soziokonstruktibismoaren pedagogia ardatz duen tesiaren egilea da. Antzuolako hezkuntza errealitateaz berba egin du GOIENArekin.

Zer da soziokonstruktibismoa?

Haurrekin nola eraikitzen duten mundua eta hau ezagutzeko behar diren tresnak eta ezagutzak eskaintzen dituen pedagogia da. Beti, baina, giza taldean dago oinarritua. Nire asmoa izan da Antzuolako hezkuntza errealitatea gerturatzea –eskolaren atzean zer dagoen, pentsatzeko eta egiteko modua–; eskolak duen eredu pedagogikoa, alegia.

Zein izan da tesiaren helburua?

Etorkizunean irakasleak izango direnak formatzea da gure lana. Horregatik interesatzen zaigu errealitate ezberdinak ezagutu eta teoria eta praktika lotzea. Antzuola aspalditik ezagutzen dut eta elkarrekin hainbat aukera izan ditugu lanean aritzeko. Euren tripak ezagutzeko denbora hartu eta eskolaren argazki bat ateratzea izan da helburua tesi honetan. Zein ikusmolde eta zein praktika dauden antzeman gura izan dut, hain zuzen ere.



Xabier Arregi, Goiena telebistako platoan. MAIDER ARREGI

Zeintzuk dira pedagogia horren gako eta ezaugarri nagusiak?

Antzuola bera ez da eredu bat. Hau da, eskola esperientzia bat da eta azken 30 urteetan ibilbide horretan eraikitzen joan dena eta eraikitzen ari denaren isla da. Orain, fase berezi batean daude; izan ere, pedagogia horren sortzaile eta bultzatzaileak erretiroa hartzen doaz. Beste fase batean sartuak daude. Hori da ezaugarri nagusia: eskola baikoitzak izan behar du bere tesuingurua eta haurren eta ikasleen arabera antolatzen duen

hezkuntza proiektu bat egiteko ahalmena. Horixe da Antzuolaren ezaugarri indartsuena. Tokian tokiko ikusmoldea eta gaitasuna eduki dute. 30 urteko prozesu bizia, alegia. Bestetik, haurren ongizateari begira dago ikaste prozesua eta haurren beharretara egokituta daude. Azkenik, esan, munduarekiko ezagutzak garatzen joan direla ikuspegi ezberdinak partekatu eta eztabaidatu direlako.

Komunitate osoaren konpromisoa beharko da, ezta –irakasle, ikasle, guraso–?

Herritarrei aurkeztuko diete partaidetza prozesua, eguenean

Etorkizuneko Antzuola antzuolarren artean erabakiko da eta prozesu horren urratsak aurkeztuko dituzte

Maidar Arregi ANTZUOLA

Antzuola 2018-2030 partaidetza prozesua abian da. Hala, herritarrek aukera izango dute Antzuolako etorkizuna proposatu eta erabakitzeke. Aurkezpena otsailaren 15ean egingo du Az-

tikerrek, Torresoroan, 19:00etan. Asmoa da herriaren egungo errealitatea erakustea. Modu horretan, herritarrek eztabaidari ekiteko lehen euskarri bat izango dute. Egueneko aurkezpenean azalpenak emateko, ber-

tan izango dira Talde Eragileko partaideak –herritarrek– eta Jarraipen Batzordeko kideak –politikariak–. Prozesuaren inguruko informazioa emango dute eta herritarrek izan ditzaketan zalantzak argituko dituzte. "Herritar guztiei gonbidapena egiten zaie aurkezpena gerturatzeke, prozesua ezagutu dezaten", dio Aztikerrek. Udalak planean jasoko diren ekintzen aurrekontua osatuko du, eta irailean plan estrategikoa erredaktatuko da.

Hezkuntza oinarri, jardunaldian

Antzuolako EH Bilduk, ongizatea helburu, hezkuntzaren gaia landuko du modu sakonagoan. Solasaldia herritar orori dago zabalik eta otsailaren 17an egingo da, 10:00etan hasita, Torresoroa aretoan.



Jardunaldia. EH BILDU

Gainera, Antzuolako Udalak, konstruktibismoaren heziketa metodoa aintzat hartuta,

herrirako interesgarriak izan daitezkeen ikuspegi eta lerro ezberdinak jorratu nahi ditu, hainbat galderarekin: *Estatu propioa bagenu? Zein izango litzateke etorkizuneko hezkuntza sistema? Zein galera ditu?*

Hauek izango dira parte hartuko duten solaskideak: Mikel Bargiela –Antzuolako Hezkuntza zinegotzia–; Xabier Arregi –Antzuolako eskolako eredu pedagogikoko doktore-tesiaren egilea–, Rebeka Ubera –EH Bilduren legebiltzarkidea eta hezkuntza arduraduna– eta Xabier Sarasua –Hik Hasiko kidea–.

Bai, noski. Irakasle taldea joan da garapen pertsonala eta profesionala zaintzen eta euren antolaketa eta ikusmoldea haurren beharrei eta ongizateari begira antolatu dute. Hori da gakoa. Antzuolako irakasle antolaketa hortik dator, eta badago konpromisoa, gainera; eta denboraz irakasleek euren gaitasuna erakusten dute. Publikoki erakusten dute egiten duten guztia. Ezaugarri indartsua da hori eta egiten duten asko publiko egiten dute kritika sozialari begira. Errekonozimendua ere hortik etorri zaie. Baina egiten dena sakonago aztertzeke babes eraginkorrik ez da egon administrazioaren aldetik. **EHU badabil ikertzen konstruktibismoak herrian duen eragina.** Bai. Esan bezala, errekonozimendua iritsi dira eta badaude bi proiektu martxan. Batek, memoria historikoarekin

lotuta, erretiratuta dauden irakasleekin testu liburu bat egin gura dute. Eta bestetik, horrelako hezkuntza proiektu berriekin dauden zalantzak uxatzeko, ikusi gura dute Antzuolako ikasle horiek nola dauden prestatuta eta zein izango litzatekeen euren profila eta garapena.

Zure tesia, baina, herriari eta eskolari aurkeztuko diezu otsailean.

Bai; otsailaren 17an, hezkuntzaren inguruan antolatutako batzar irekian parte hartuko dut; eta, bestetik, otsailaren 28an, eskolan egingo dut tesiaren aurkezpena.

"HERRI ESKOLAKO HEZKUNTZA PROIEKTUA BIZIRIK DAGO ETENGABEKO IKASKUNTZAREKIN

Partaidetza prozesuaren urratsak

Otsaila-martxo:

- Erronka nagusiak zehaztea eta Antzuolak dituen hutsuneak aurkitzea. Hausnarketa saioak egingo dira herritarrekin.

Apirila-maiatza:

- Lan-saioak egingo dira, helburuak zehaztu eta herritarrek gustuko dituzten gaietan ekarpena egiteko eta sakontzeko.

Ekaina:

- Galdetegia banatuko da etxeetan, eta lehenetsunak markatu. Planean ekintza baloratuak lehenetsiko dira.

Mozorro festa eta dantza, Aratusteak berotzeko

Guztia prest dute antzularrek gaurtik martitzenera bitartean Aratusteak ospatzeko. Hala, arratsaldean txikien txanda izango da eta mozorro festa egingo dute eskolako patioan. Domekarako, baina, herritar orrendako mozorro eguna antolatu dute

Maidar Arregi ANTZUOLA

Geroz eta indar handiagoa hartu du herritarren artean Aratuste-domekak. Mozorrotzen diren antzularren parte-hartzeak gora egin du. Azken Aratustee-tako giro paregabeari eutsiz, aurten ere herri bazkaria egingo da pilotalekuan. Ondoren, mozorro festa egingo dute eta herritarrek, taldeka edo banaka, nahi duten emanaldia egiteko aukera izango dute, musika lagun izango dutela –dantza, kantu, koreografia... gura dutena–.

Kanpoan hotz egingo duela iragarrita dagoen arren, giroa bero-beroa izango da, ziurrenik, eta pilotalekua bete egingo da. Hala, 17:30ean hasita, Gesaltza txarangarekin arratsaldea boroilduko dute eta mozorro onena ere aukeratu dute. Talde irabazleak saria jasoko du, gainera: herriko jatetxe batean 200 euro gastatzeko aukera.

Oinarinek, dena prest

Hartza, tximinoa eta hezitzailea izango dira protagonistetako hiru 10:30ean hasiko den kalejiran. Bi taldetan banatuta, bat plazan gora ibiliko da eta bestea, plazan behera. Talde batek sorgin dantza egingo du eta horrekin batera ibiliko dira hartza, tximinoa eta hezitzailea. 12:30ean plazan saio nagusia egingo dute. "150 bat herritarrek hartuko dugu parte dantza eginez. Dantzan hasi diren neska-mutikoak ere irtengo dira plazara. Jai jendetsua izango da", azaldu dute Oinarin dantza taldeko kideek.

Odol-emaileei babes

Antzuolako odol-emaileen elkartekoek diru-batzea egingo dute domekako jai giroa aprobetxatuz. "Urtean egiten ditugun odol aterateetan banatzen dugun merienda erosteko diru-batzea izango da. Jendea animatu gura dugu", azaldu dute elkarteko kideek.



Aratuste-domekako saio nagusia plazan, iaz. GOIENA

OINARINEN ESKUTIK, 150 HERRITARREK PARTE HARTUKO DUTE KALEJIRAN ETA PLAZAKO SAIOAN

Erretiratuek, martitzenean

Aratuste-martitzena ospatuko dute Landatxoeko erretiratuek. Urtero legez, afari-merienda egingo dute eta mozorro onenak saria jasoko du. 18:00etatik aurrera egingo dute festa.



Ikasleak eskolako patioan, iaz. IMANOL SORIANO

Gaur, ikasleen mozorro festa

Eskolako ikasleek 16:00etan hasiko dute mozorro festa. Hala, guraso elkartearen eskutik txokolata eta torradak dastatzeko aukera izango da. 17:00etan, Potx eta Lotx pailazoan lehen emanaldia izango da, Torresoroan; bigarrena, berriz, 18:30ean.



IMANOL SORIANO

Esperientzia garaile

Mondraren aurkako derbian antzularren esperientzia igarri egin zen. Oso talde gaztea da Mondraren bigarrena eta Antzuolak, berriz, jokalaria beteranoak ditu. 1-2 markagailuan, antzularrek bigarren derbia jarraian irabazi dute. Eta otsailaren 18an beste derbi bat jokatuko dute, Aretxabaletaren aurka, Eztalan.



IMANOL SORIANO

Elkartasunezko eztarri sanoak

Domekan egindako santa eskeak motibo garrantzitsua izan du aurten ere: Oporrak Bakean ekimenerako diru batzea egitea haur sahararrei laguntzeko. "Herritarren erantzuna oso ona izan da eta 850 euro batu ditugu. Hala, hamar haur saharar Arrasateko aterpetxera ekartzeko aukera izango dugu udan", esan dute Anelkar eta Sagiri elkartekoek.

Pilotalekuko sarrera berria

Herriko pilotalekuak sarrera berria dauka. Hau da, lehen atzeko atea zena orain sarrera nagusia izango da. "Lehenengo atek ez zuen betetzen araudia eta orain irisgarria da. Kanpoko ate handia ez da erabiliko, edo gutxitan. Sarraila berezia jarriko da, ordutegiarekin. Aurrekontua 7.000 eurokoa izan da", azaldu du Hirigintza teknikari Valen Moñuxek.



MAIDER ARREGI

Hondakinen iazko bereizte tasa: %80,65

Debagoieneko Mankomunitateak 2017ko bilketa datuak eman ditu eta elgetar bakoitzak iaz baino bi kilo errefus gehiago sortu ditu. Iraitz Lazkano alkateak esan du datuek onak izaten jarraitzen dutela, baina tendentzia hori ezin dela joera bihurtu

Larraitx Zeberio ELGETA

Debagoieneko Mankomunitateak emandako datuen arabera, 2017an hondakinen bereizte tasa, Elgetan, %80,65 izan zen. Aurreko urteko tasa %81,2 izan zen. Hortaz, 0,55 egin da atzera herrian eta horrek esan gura du 2017an elgetarrek errefus kopuru handiagoa sortu dutela.

Hain zuzen ere, 2017an elgetar bakoitzak 76,27 kilo errefus sortu zuen. 2016ko datua zen 74,15 kilo urtean elgetar bakoitzeko. "Bilketa selektiboaren datuak nahiko onak izaten jarraitzen dute; izan ere, %80aren gaintetik gabilitza", esan du Iraitz Lazkano alkateak. "Ikusi duguna da nahiz eta %80aren gaintetik jarraitu ehunen batzuk jaitxi ditugula iazkoaren aldean. Errefus kopuruan zerbait gora egin dugu, ia bi kilo gehiago biztanleko urtean. Ez dut uste larritzeko datuak direnik, baina saiatu behar dugu horri buelta ematen, joera bihur ez dadin".

Debagoienean, Antzuola da 2017an hondakinen bereizte tasa handiena lortu duen herria: %82,49, hain zuzen ere. Jarraian datoz Leintz Gatzaga, %80,83; Oñati, %80,72; Elgeta, %80,65; Bergara, %80,62; Aretxabaleta, %78,66; Arrasate, %77,89; eta Eskoriatza, %76,82. Debagoieneko batez bestekoa %79,28 da.

Elgetako datuei dagokienez, alkateak hau esan du: "Ondo gabilitza, baina ez dugu pentsatu behar ondo gabilitzalako dena eginda dagoenik. Ohiturak hartzeko kontua da hau. Luze joko digu, eta poliki-poliki egin beharrekoa", esan du Lazkanok.

Sentsibilizazio kanpaina

Herritarren kontzientziazioan eragiteko eta errefusa murrizteko, beste sentsibilizazio kanpaina bat iragarri du Udalak. "Oraindik ere errefusera botatzen dugun horretatik zati handi bat birziklagarria da, eta horretan



Herritarra, hondakinak botatzen. L.Z.

ERREFUSA MURRIZTEKO SENTSIBILIZAZIO KANPAINA BAT EGINGO DU UDALAK

egin nahi dugu indarra, hurrengo urteetako datuak hobek izan daitezela", jakinarazi du alkateak.

Mankomunitateak emandako datuen inguruan Lazkanok esan du gorabehera handiak daudela, batez ere, urriari, azaroan eta abenduan. Sasoi hartan egin zuen Mankomunitateak zerbitzuarekin lotutako azken esleipena. "Uste dut horrek ere tira egin duela pixka bat beherantz".

Organikoaren kudeaketa

Hondakin organikoaren kudeaketa lotuta, Domingo Iturbe kaleko konpost-gunean egindako hobekuntzak nabarmendu ditu alkateak. "Hor genituen arazo gehien. Hainbat konpost-kutxa beteta zeuden aspaldian eta horiek kendu, berriak ipini eta gunea garbitu dugu. Arazoak, nire ustez, gutxitu egin dira, baina, prozesua ondo egiten ja-

rraitu nahi badugu, horrek jarraipena eskatzen du. Brigadako langile batek egunero aireztatzen ditu konpost-kutxak eta eskuragarri eduki behar da behar beste material lehor herritarrei konposta egitea ahalik eta gehien errazteko; izan ere, ekonomikoagoa ateratzen zaigu eta askoz ere ekologikoagoa da".

Bestelako bilketa zerbitzuak

Eguaztenetan hamabostean behin Salvador kalean egoten den garbigune ibiltariak bere zerbitzua egiten duela uste du Udalak. "Oso zerbitzu aproposa da. Pilendako, esaterako, baditugu bestelako bilketa puntuak, baina denoi gertatzen zaigu, adibidez, bi CD edukitzea botatzeko, eta oso ondo dator garbigunera jaitxi beharrean garbigune ibiltaria herrira etortzea. Garrantzitsua da herrian bertan aukera edukitzea halako gauzak era selektiboan jasotzeko".

Traste handien bilketarekin, ordea, izan dira arazo batzuk azkenaldian. "Arazo puntualak izan direla uste dugu, baina herritarrek jakin behar dute traste handiak botatzeko eguna, Elgetan, eguna dela".



Pirritx eta Porrotx duela bi urteko Elgetako Inauterian. GOIENA

Irudimen erakustaldia egiteko orduak, laster, elgetarrendako

Eskolako umeen kalejirak emango die hasiera Inauteri festei, eta ondok etorriko dira gainerako mozerroak

L.Z. ELGETA

Batzuk isilean eta beste batzuk prestatzen ari diren mozerroa lau haizetara zabalduz, baina gaur izango da irudimenak eman duena erakusteko eguna Elgetan.

Herri Eskolako neska-mutikoen eta irakasleek 15:00etarako iragarri dute mozerro kalejira. Eguraldi ona bada, ikastetxetik abiatuko dira eta plazan amaituko dute. Bestela, litekeena da frontoian egitea jaialdia.

Maala guraso elkarteak txokolata-jana eskainiko du 16:30ean, eta Udalak I&D jaialdia iragarri du 17:00etarako. Euskal disko-

festa izango da. Musika jartzaila eta dinamizatzailea etorriko dira. Elgetako buruhandiek ere ez dute Inauterietan hutsik egingo eta 18:30ean izango dira neska-mutikoenekin *Zezena, Txintxon, Lehoia*.

Erretiratuek, martitzenean

Xalbadorpe erretiratuen elkar- teak jakinarazi du martitzenean ospatuko dituztela Inauteriak. Txokolate-jana eta bingo saioa iragarri dituzte, 17:00etarako, Ozkarbi elkartearen. Bazkide guz- tiak daude parte hartzera gon- bidatuta.

Aparejadorearen auziarekin lotutako ordainketak, zehaztuta

Bigarren kalte-ordaina bost urteko epean ordaintzeko aukerari %3,5eko interes tasa aplikatu beharko zaio

L.Z. ELGETA

Aparejadorearen auziarekin lotuta Elgetako Udalak bi ordainketa egin beharko ditu urtero. Lehenengo auziarekin lotuta 87.868,49 euro aurten eta 2019an, eta bigarren auziarekin lotuta 62.743,97 euro martxoan. Bigarren hori bost urtean zehar. "Panorama iluna da, baina, gutxienez, badakigu zein iluntasuni buruz ari garen", esan zuen alkateak azken osoko bilkuran. "2018an eta 2019an 260.612 euro ordaindu beharko ditugu, eta 2020an nabarmen jaitziko da

kopuru hori; 192.000 bat eurora. Horrek esan gura du 2020tik aurrera gaur egun baino ia 100.000 euro gutxiago ordaindu beharko direla kalte-ordainetan. Elgeta moduko udal batendako kopuru nahiko handia da. Ematen du, beraz, 2020tik aurrera gauzak pixka bat egonkortuko direla".

Udal arduradunek azpimarratu dute agintaldi honetan ia milioi bat euro ordaindu beharko direla kalte-ordainetan eta zorretan. "Bozkatzeko eskubidea duten elgetar bakoitzeko 1.133 euro", esan zuen Lazkanok.



Elgetako erabiltzaileak Lurraldebus autobusean. GOIENA

Proposamenak, garraio publikoa hobetzeko

Elgetarrek dituzten mugikortasun arazoak berri izan dute Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako batzordean. Antzuolako eta Leintz Gatzagako alkateekin batera hainbat proposamen egin ditu Elgetako alkateak

Larraitz Zeberio ELGETA

"Proposamenak egitera joan ginen eta garbi laga nahi izan genuen herri txikiok ditugun mugikortasun arazoak", azaldu du Iraitz Lazkano alkateak. Hiru alkateek otsailaren lehen egun zuten agerraldia Gipuzkoako Batzar Nagusien egoitzan. Lazkanok jakinarazi du Elgetarekin

lotuta lau arazo nagusi nabarmendu zituela: zenbait zerbitzuren maiztasun txikia, eskaripeko autobusak eskatzeko prozesuaren erraztasun falta, Elorriorekin dagoen lotura eskasa eta taxibus zerbitzua lehenesteko beharra bidaiari gutxi egoten diren kasuetan. "Lurraldebusek egindako lineen berrantolaketak

ez du eraginik Elgetatik ateratzen diren autobusetan; bai, ordea, erabiltzaileek ondoren egin behar dituzten konexioetan. Hainbat adibide ipini genituen. Esaterako, ospitalera joateko elgetar batek egin beharrekoa. Elgetatik har daiteke autobusa eta Bergararik Arrasatera joan, baina bueltarako gerta daiteke bi ordu

itxaron behar izatea Bergararik Elgetarako autobusa hartzeko".

Lotura Elorriorekin

Garraio publikoak Elgetan duen beste gabezia bat Elgeta eta Elorrio arteko konexioa da. "Bergararekin eta Eibarrekin nahiko konexio ona dugu, baina Elorriorekin Bilbo-Donostia egiten duen autobus zerbitzuak ditugu. Egunean bi joan-etorri dira, eta domeketan joaneko bat gehiago". Alkateak adierazi du hainbat herritarrek egin dutela zerbitzu hori hobetzeko eskaera. "Elgetar asko dira familia Elorrioren dutenak, edo seme-alabak eskolara edo kirol ekintzetara eramaten dituztenak, edo lanera joaten direnak... Gaur egun dauden zerbitzuetatik kanpo Elgeta-Elorrio egin nahi duen erabiltzaile batek bi aukera ditu: Elgeta-Eibar, Eibar-Durango, Durango-Elorrio; edo Elgeta-Bergara eta Bergara-Elorrio, Oñatitik eta Arrasatetik pasata. Ulertzen dugu Foru Aldundi desberdinak direla baina Bizkaibus iristen da Eibarrera eta Pesako autobusak egiten du Bergara-Arrasate-Bilbo", esan du alkateak. "Akaso, eskaripeko taxibus zerbitzua nahikoa izan daiteke. Ez dena normala da 40 kilometro egitea autobusean berez bost eta gutxi direnean".

Eskaripeko eskaerak erraztu

Eskaripeko zerbitzuekin ere bada kezka Elgetan, eta, Elge-

tako alkatearen esanetan, Leintz Gatzagatik antzerako gogoeta egin zuten Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako batzordean. "Ulerkorra izan behar dugu. Elgeta moduko herri batean ezin dugu ordu erdira 55 pertsonarendako autobusa bueltaka eduki. Ez da ez eraginkorra ez ekologikoa. Ondo ikusten dugu eskaripeko zerbitzuak egotea, baina sistema horrek izan behar du erabiltzeko erraza. Posible ez dena da telefono batera deitu eta erantzungailuak salto egitea edo komunikatzen ematea. Lurraldebusek aplikazio bat garatzeko proposamena egin nuen non erabiltzaileak klik batekin zerbitzua eskatzeko aukera izango lukeen".

Taxibus zerbitzuak lehenetsi

Eibarrekin dagoen taxibus zerbitzuak erabilera ona du, eta Bergarara dauden zerbitzuek ere erantzun ona dutela baloratzen du Iraitz Lazkano alkateak. "Efizientziarekin lotuta proposatu genuen erabiltzaile gutxi aurreikusten diren zerbitzuetan taxibusa lehenesteko ez duelako zertan autobus handi batek etorri", azaldu du.

ELORRIOREKIN DAUDEN KONEXIOAK HOBETZEA LEHENTASUNEZKO GALETAKO BAT DA



L.Z.

Elurra sarri aurtengo neguan

Abenduaren 1ean bota zituen neguko lehenengo elur malutak Elgetan, eta, zazpi egun geroago, Errege egunean, bota zuen berriz. Orduetik, behin baino gehiagotan zuritu du. Handiena, egunean egindakoa. Errepideetan arazo batzuk sortu ziren goizeko lehen orduetan, baina elurra kentzeko makinak atzera eta aurrera ibili ziren. Udal Brigadako langileak ere bai.

OHARRAK

Podologoa

Erretiratuen elkarteak jakinarazi du hilaren 15ean izango dela podologoaren otsaileko kontsulta. Txanda hartzeko: 943 76 80 77 (Nati).

Martxoaren 8a

Gizarte Ongizate Saila hasita dago Emakumeen Eguneko ekintzak antolatzen. Aurrerantzean, egun oro elkartuko dira, 19:00etan, udaletxean.

Elgeta Erdi Aroan

Martxoaren 18rako prestatzen ari diren bisita antzezturako gerruntzeak edo korpiñoak eskatu dituzte. Pertsona nagusiendakoak behar dituzte, gehienbat.

Irakurketa eta kontakizun erotikoak Udal Liburutegian

Interesgune berezia, solasaldi literarioa eta Ines Bengoaren ipuin erotikoen kontakizuna daude iragarrita

L.Z. ELGETA

Literatura erotikoa genero literario bat da non erotismoarekin eta sexuarekin lotutako testuak sailkatzen diren. Horren barruan mota askotako testuak aurki daitezke: muturreko pornografia, ambiguitasun handiko testuak... Elgetako liburutegian literatura erotikorekin lotutako ekintza sorta prestatu dute hurrengo egunetarako. *Bibliobero* izenburupean, interesgune berezia, Hitzez Pitz solasaldi literarioa eta Ines Bengoaren ipuin erotikoen saioa iragarri ditu liburu-

tegiko arduradun Geaxi Ezpeletak. Interesgunea gertu dago. Liburutegiko txoko batean elkartuta daude generoarekin lotutako liburuak zein bestelako sexualitate liburuak. Hitzez Pitz solasaldi literarioa egunean egingo dute, hilak 15, goizez zein arratsalde, eta *Zukafukamusuka* liburuko hiru ipuin hartuko dituzte ardatz. Liburutegian daude eskuragarri. Ipuin erotikoen kontakizuna hilaren 16an izango da, 22:30ean, liburutegian. Ines Bengoak egingo du, *Hotzikara* izenburupean.



Andoni Beristain, Udaleko brigadaburua, elurra kentzeko pala duen ibilgailuarekin, Oلابarrietan, eguazten goizean. JOSU BILBAO

Lan eta lan ibili dira elurra kentzen asteon

Udaleko lau sail ezberdinen arteko koordinazio lana da neguko protokoloa, eta aste osoan egon da indarrean. Brigadako langileak, kale garbitzaileak eta lorezainak ibili dira elurra kentzen eta kaleak garbitzen. Auzo bideetan pilatu da elur gehien

Oihana Elortza OÑATI

Gutxi edo asko, baina elurra egin du ia egunero aste honetan, eta elurraren aurrean Udalak duen protokoloa indarrean egon da. Udaleko sail ezberdinek hartzen dute parte protokolo horretan eta egunero elkartu dira, aste honetan, egun batetik besterako iragarpenak aztertu eta lana antolatzen.

600 metro

Auzo eta Landa Garapeneko Departamentua, Udaltzaingoa, Obra eta Zerbitzuen Saila eta Udala Brigada dira neguko protokoloaz arduratzen direnak, eta koordinatuta egoten dira. "SOS Deiek egiten dituzten iragarpenak eta elur kotak hartzen ditugu kontuan. 600 metrotik gorakoak badira, erne egoten gara,

eta hortik behera badira jartzen dugu martxan neguko protokoloa. Bilerak egiten ditugu egunero, eguerdian, normalean, erabakitzeke zer egin eta nondik hasi edo lehenetsuna zeri eman. Gero, brigadako langileak ibiltzen dira kanpoan elurra kentzen eta kaleak garbitzen", dio Xabier Berridik, Obra eta Zerbitzueta-ko teknikariak.

Bezperatik

Andoni Beristainez gain, beste zortzi edo bederatz langile daude Udala Brigadan, eta elurra egiten duenetan kale garbitzaileak eta lorezainak laguntza izaten dute herrigunea garbitzeko. "Lau gune handitan banatzen dugu herria eta taldetxo bat joaten da gune bakoitzera. Horrela, herriko kale guztiak garbitzen ditugu. Pala txikia duten makinak ditugu eta hori pasatzen da lehenengo espaloietatik, elurra kenduz. Horren atzetik joaten gara gu, gatza botatzen", dio brigadaburuak, Beristainek.

Neguko protokoloak jasotzen du behetik gora joango direla auzoetako bideak garbitzeko, eta horrela egiten dute. Gora joan lehendabizi eta beherantz doazenean kentzen dute elurra palarekin eta gatza bota ondoren. "Auzoetara, baina, behin baino gehiagotan joaten gara. Bezperan, esaterako, gatza botatzera joaten gara eta hurrengo egunean, goizean ez ezik, baita eguerdian edo arratsaldean ere; elurra botatzen badu, behintzat".

Urri edo azaro inguruan ekartzen dute negurako gatza eta Udala Biltegian izaten dute gordeta, kaxa handietan. 25 kiloko zakuak ere izaten dituzte eta horiek baserriarren artean banatzen dituzte, hala eskatuta, euren etxe inguruan botatzeko. "Aste honetan egunero egin du 20 zentimetroko elur geruza 500 metrotik gora, eta kapa horiek kentzen ibili gara. Baserrietara heltzeko arazoak egon dira batzuetan, eta, guretako, garrantzitsua da jakitea baserri bakoitzera doan bidea nolakoa den, lurzorua lurra den edo hormigoia den, adibidez. Non zapaltzen ari garen jakitea komeni zaigu. Izo-

tzik ez da egon, eta hori ere asko da. Garbitu eta gatza bota dugu, hala ere", azaldu du brigadaburuak. Lezesarrin, Uribarrin, Arantzazun, Araotzen eta Olabarrietan ibili dira, besteak beste, aste honetan.

Arantzazu

Arantzazuko aparkalekuan sortzen dira, akaso, arazo handienak. Asteburuetan, batez ere, jende asko baldin badoa. "Eguen eta egubakoitzean elurra egiten badu eta zapaturako eguraldi ona badago iragarrita, jende asko etortzen da eskiatzera eta elurretan ibiltzera, eta komeni da hango aparkalekua garbi mantentzea. Gu ibiltzen gara, baina herritar baten laguntza ere izaten dugu gune hura garbitzeko. Bere traktorearekin ibiltzen da", dio Beristainek. Bere traktorea hartuta garbitu du Arantzazuko aparkalekua azken asteburuan Tomas Sagastik.

Elurra arazoa izaten da batzuetan, baina izotza ez da hobeia, eta horrelako eguraldia egiten duenean kontuz ibiltzeko gomendioa eman die brigada buruak herritarrei: "Oñatin askok dituzte 4x4 ibilgailuak eta horiekin errazagoa da errepedeetan ibiltzea, baina ibilgailu txikiak dituztenek ere gurpilak zaindu behar dituzte, garrantzitsua da eta. Neguko gurpilak jartzen badituzte, hobeto. Eta garrantzitsua den beste gauza bat da udaltzainen gomendioei kasu egitea".

ARANTZAZUKO APARKALEKUAN HERRITAR BATEK KENTZEN DU ELURRA TRAKTOREAREKIN

Bidaurreta eta plaza inguruko argiteria hobetu egingo dute

Bidaurretako monasterioaren eta Olakua auzoko urmaelaren artean dagoen argiteria hobetuko duela adierazi du Udalak. Datozen asteetan hasiko dituzte lanak eta puntu baten baino gehiagotan egingo dituzte. Bidaurretako aterpeko fatxadetan, esaterako, bi argi puntu jarriko dituzte; beste hiru Olakua auzoko 1. zenbakiaren atari parean

eta hamar luminariari bloke-optikoak aldatuko dizkiete. Lanak Leycolan enpresak egingo ditu eta 4.700,96 euro da aurrekontua. Urmaletik Olapotorainoko bidean argiteria hobetzeko azterketa ere martxan jarri du Udalak. "Hainbat herritarren eskariak aintzat hartuta", parroquia aurrealdeko argiztapena hobetzeko erabakia ere hartu du Udalak. Frontoiko eta azoka inguruko argiterian aukeratu ziren proiektore eta luminariak kontuan hartuta.

Martxoaren 8ko grebari buruzko bilera eguaztenean

Emakumeok planto lelopean, greba feminista ari dira antolatzen Euskal Herri mailan Martxoaren 8rako. Oñatiko sare feministak bat egin du deialdi horrekin eta dagoeneko hasi da lanean egun horri begira. Eguaztenean, otsailak 14, bilera informatiboa egingo dute gai horri buruz berba egiteko kultura etxean, 18:30ean.

DBHko ikasleendako Arazerixan! ginkana antolatu dute berriz

Gazteen Arazerixan! ginkana egingo dute berriz aurten. Otsailaren 19an hasiko da. Taldeka eta kalean egin beharreko lau proba egin beharko dituzte gazteek eta martxoaren 23an festa handi bat egingo dute gaztelekuan. DBHko ikasleei zuzendutako jolasa izango da eta izena helbide honetan sartuta eman behar da: www.arazerixan.eus.

Zapatuan kenduko dituzte pentsiodunen gutunen kaxak

Bihar, zapatua, kenduko dituzte herriko dendetatik pentsiodunen gutunak jasotzeko jarritako kaxak. Astelehenean, 12:00etan, elkarretaratzea egingo dute, Foruen plazan, pentsioen igoera "lotsagarria" salatzen, eta hara eramango dituzte kaxak. Gutunak postetxera eramango dituzte, gero, Madrilera bidaltzeko bueltan.



Oñatiko Inauterietako dantzariak, Olakua auzotik kalerako bidean, iaz. MAITE IRIZAR - DANTZAN CC BY-SA

Aratusteetan murgiltzeko prest daude oñatiarrak

180 dantzari, 50 pertsonaia inguru eta 30 musikari ariko dira bihar –zapatua– kalez kale Oñatiko Inauterietan; Olakuatik beharrez, Olaiturririk abiatuko dira aurten, 11:00etan, eta ibilbidean zehar geldialdiak egingo dituzte, antzerki saioak egiteko

Eneko Azurmendi OÑATI

Seigarren edizioa izango dute aurten Oñatiko Inauteriek, eta berrikuntza nagusia irteera puntuan eta ibilbidean egongo da. "Aurten, gidoiari eta Inauteri formatuari aldaketa bat eman nahi izan diogu. Oñatiko historia, kultura eta ofizio ezberdinetara hurbiltzeko, ikusi genuen egokiagoa zela beste leku batzuetatik pasatzea. Beraz, Olaiturrin hasiko gara", azaldu du Arkaitz Bengoak, Oñatiko Inauterietako lantaldeko kideak.

Antzerkiari ere "beste ikuspuntu bat" eman nahi izan diote, ibilbidera egokitutakoa, eta pertsonaia berriak egongo direla aurreratu du Bengoak.

Bestalde, iazko berrikuntza izan zen txokolatea protagonistetako bat izango da aurten ere.

Dantzei dagokienez, azken urteetan egin dituztenak izango dira. Guztira, 260 lagun inguru batuko dira eta guztiek Etxe Aundi jatetxean bazkalduko dute. Arratsaldeko kalejira

17:30ean hasiko da, Olakuan, eta amaiera ekitaldia plazan izango da, 20:00etan.

Domekan, berriz, Oñatz dantza taldeko kideek Luzaideko dantzak eskainiko dituzte herriko kaleetan, 18:30ean hasita. Aita Madina taldeko txistulariek eta Jose de Azpiazu Musika Eskolako Akordeoi ikasleek ere hartuko dute parte kalejiran.

Ikastetxeak

Ikastetxeek ere ospatuko dituzte Aratusteak. Txantxiku Ikastolako ikasleak –HH eta LH– kalejiran ibiliko dira kalez kale, 15:00etan hasita. Gero, Gauargi taldearen emanaldia egongo da. Beste bi ikastetxeek martitzenean ospatuko dituzte. Urgain eskolak

DANTZAK, ANTZERKIA, TXOKOLATE-JANA, KONTZERTUAK, ETA ABAR EGONGO DIRA MARTITZENERA ARTE

11:00etan egingo du ekitaldia, eskolako patioan. Ikasgela bakoitzak emanaldi bat eskainiko du. Elkar Hezin, berriz, zirkua irudikatuko dute. Hala, 10:30ean hasi eta 12:15ak arte kalez kale arituko dira malabaristak, pailazoak, trapezistak, eta abar.

Txokolate-jan solidarioa

Martitzenean, *Mozorrotzen* ikuskizuna eskainiko dute Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoek Zubikoan, 17:00etan –sarrera bi euro–. Gero, 18:00etan, txokolate-jan solidarioa egongo da plazan, Elizbarrutiko Misio Taldeak antolatuta. Bildutako dirua Togo hiriko –Mali– Saint Paul Ikastetxeko ikasleei jaten emateko erabiliko da. Gero, txorimaloak eta disko festa egongo dira.

Joxe Ramones

Antixenean gaur ekingo diete Inauteriei, Joxe Ramones-en kontzertuarekin; 22:00etan, doan. Mozorrotuta joateko gonbita egin dute gatzetxeko kideek.

NIRE USTEZ

MARINA ETXEGOIEN

'Bakardadearen Saila'

Erresuma Batuan *Bakardadearen Ministerio* bat sortu dutela jakin dugu berriki. Bakardadea epidemia bilakatu da eta arazo honi erantzun instituzionala eman behar diotela erabaki dute. Paradoxikoa da, baina, komunikazioaren garaian, bakardadea arazo larri bihurtu da. Ikerketa batek dioenez, bakardadean bizi den pertsona batek urtebete pasa dezake inorekin hitz egin gabe, ikaragarria benetan. Hau gutxi balitz, bakarrik daudenek hainbat gaixotasun larri izateko askoz ere aukera gehiago dute. Pentsa genezake adineko pertsonen arazoa dela bakarrik, baina adin guztietako jendearengan omen du eragina.

Etengabe konektatuta gaude, 24 ordu 365 egunetan zehar, eta, hala ere, askok ez dute inor aurrez aurre hitz egiteko. Agian, Eusko Jaurlaritzako *Bakardadearen Saila* laster ezagutuko dugu gurean, goi mailako aditu, teknikari, laguntzaile eta funtzionarioz osatuta. Izan ere, noiz eskatu diozue azkenengo aldiz gatza edo ozpina ondoko auzokideari? Agian, irtenbidea denon esku dago.

Odola emateko aukera egongo da gaur, egubakoitza

Hileroko hitzordua errespetatuz, odola emateko aukera egongo da gaur, egubakoitza, MUko Enpresagintza Fakultatean, 17:00etatik 19:00etara bitartean.

Euskadiko Odol Emaileen Elkarteak zera gogorarazi du: "Oraingo, odola ez da fabrikatzen, eta, hortaz, pertsonen odol-emate altruistak dira odola lortzeko iturri bakarra".

Bidalketa solidarioak egin dituzte Oñatiko elkarteak

Batetik, Hermansoloñak goraino betetako furgoneta bat eraman zuen urtarrilaren 31n Caritas erakundeak Arrasaten daukan egoitzara. Arropak, oinetakoak eta beste zenbait gauza bidali zituzten. Hiru pertsona ibili ziren furgoneta kargatzeko boluntario lanetan.

Bestetik, Hotz Oñatik eta Hermansoloña elkarteak elkarlanean, Greziako errefuxiatuendako arropak, oinetakoak eta beste hainbat material bidali dituzte aste honetan – 51 kaxa –, Karaama asoziazioarentzat. Grezian Accion Directa-Sierra Norte taldeak kudeatuko du bidalketa, Mobile Kitchen proiektuarekin.

Sagardotegira irteera egingo du Txantxiku Txuriurdinak taldeak

Otsailaren 24an Zeraingo Oiharte sagardotegira irteera egingo du Txantxiku Txuriurdinak taldeak, eta izen-ematea zabalik dago –30 euro–, otsailaren 18ra arte. Horretarako, 692 71 37 23 telefonora deitu beharko da edo txantxikutxuriurdinak@gmail.com helbidera mezu bat idatzi. Autobusa Correostik irtengo da, 13:30ean.

Boulder txapelketa eta afaria egingo dute bihar, zapatua

Urteroko ohiturari jarraituz, boulder txapelketa egingo dute Zubikoa kiroldegian urtean zehar eskalatzen ibiltzen direnek. "Aitzakia moduan hartzen dugu, guztiok batu eta arratsalde polita igarotzeko", azaldu du Ion Agirrek, eskalatzaileetako batek.

Urtero egiten dute, Aratustee-tako zapatuan, eta, giroa alaitze aldera, mozorrotuta parte hartzea derrigorrezkoa izaten da.

Txapelketa 15:00etan hasiko da, eta, hamar blokeko sailkapen fasearen ostean, finala jokatu dute lau onenek. Lau bloke egin beharko dituzte finalean. Bukatzean, Urbia elkartearen egingo dute afaria. Guztira, hamasei bat lagun elkartuko dira.



Joana Lasa, Maria Gardoki, Gurutze Murua, Arantzazu Bikuña, Arantxa Iturriotz, Idoia Elkorobarrutia eta Maider Arregi. M.A.

Soinu jotzaile ohiek kontzertu berezia dute

Oñatin soinu jotzen dakien jende asko dagoela jakitun, kontzertu berezia antolatuta dute Jose de Azpiazu musika eskolako akordeoi irakasleek: film ezagunetako soinu bandak joko dituzte abenduan, Santa Anan, akordeoia jotzen dakitenek

Oihana Elortza OÑATI

"Beste herri batzuetan ez da ikusten Oñatin beste jende akordeoia ikasten edo jotzen. Zaletasun hori badago Oñatin, eta ikasten ibili direnekin egin gura dugu kontzertu hau", dio Arantxa Iturriotzek.

Emanaldia

Zaletasun hori aspaldikoa da, gainera. "Ez dakigu zenbat ikasle izan ditugun urte hauetan guztietan, baina badakigu egungoek soinu bat erosi gura dutenean ez dutela bigarren eskurorik topatzen. Horrek esan gura du jendeak etxean dituela, agian, kutuntzat dituelako edo agian egunen baten berriz joko dituen esperantza mantentzen duelako. Eta horiek animatu gura ditugu emanaldi honetara. Egia da askok ez dutela soinurik jo urte askoan eta hasieran poliki joko dutela, baina uste baino errazagoa egingo zaie", dio Iturriotzek.

Emanaldiaren eguna zehaztu barik dute oraindik; ziurra da,

ordea, Gabonetan izango dela. Baina nolakoa izango den badakite dagoeneko. "Film ezagunen soinu bandak joko ditugu: *Jurassic Park*, *Chariots of Fire*, *Mamma Mia* eta *The Great Escape*, esaterako. Erraz jotzeko moduko piezak aukeratu ditugu eta horiekin hasiko gara. Zailtasun handiagoa duten piezak sartzea posible bada, horiek ere prestatuko ditugu", aurreratu du Arantzazu Bikuñak. Filmetako musika entzun ez ezik, irudiak ere ikusiko dira emanaldi horretan. Bikuñaren esanetan: "Gure asmoa da pantaila erraldoi bat jartzea Santa Anan eta pieza jotzen dugun bitartean film horretako irudiak proiektatzea han".

**MUSIKA ESKOLAKO
WEBGUNEAN EMAN
BEHAR DA IZENA,
MARTXOAREN 20A
AURRETIK**

Esku batekin

Idea da animatzen diren guztiak batera jotzea emanaldi bakarrean, baina baliteke beste modu batean ere antolatzea kontzertua. "Agian, pieza batzuk joko ditugu gaur egun akordeoia ikasten eta jotzen duten ikasleekin eta azken urteetan ibili direnekin, eta beste pieza batzuk, aspaldi jo ez dutenekin. Oraindik ez dugu ezer zehaztu. Guztiok elkartzen garenean ikusiko dugu ze itxura ematen diogun", adierazi du Arantzazu Bikuñak.

Izena ematen duen jende kopuruaren eta mailaren arabera prestatuko dituzte piezak, eta musika eskolako irakasleen laguntza izango dutela ziurtatu dute. "Kontzertua oso polita izango da eta ez da zaila izango. Ez dadila inor beldurtu. Esku bakarrarekin joko ditugu piezak, eta laguntzeko prest gaude. Bakoiak etxean prestatu beharko ditu, bai, baina musika eskolan ere egingo ditugu entseguak", dio Idoia Elkorobarrutiak.

Urko Arregi da gazteen bertso finalean egongo den oñatiarra

18 urte arteko zortzi bikotek hartu dute parte eta finala otsailaren 16an jokatu dute, gaztetxean

O.E. OÑATI

Joan den asteburuan jokatu zuten Txinparta Gazte Sarike-tako bigarren kanporaketa, Pako tabernan. Astebete lehenago, Arranon jokatu zuten lehen. Lortutako puntuazioak batuta, hiru bikote hauek jokatu dute finala zapatuan, 19:00etan, Antixena gaztetxean: Ane Belokik eta Iraitz Sarasolak, Oihana Aranak eta Garazi Navarrok eta Urko Arregi eta Gartxot Ramirezek. "Finalean hobekien jardungo duen bikotea osatzen duten bertsolariak buruz buru-

koa jokatu dute. Hor, onenak eskuratuko du txapela", argitu zuen Gontzal Belategik txapelketaren hasieran.

Lehenengoz antolatuta du lehiketa hori Txinparta bertso eskolak, "bertsorako espazioa" eskaini gura dietelako "ohikoan agertoki gainean egoteko aukerarik ez dutenei", Belategiren esanetan. 18 urte arteko hamaseik hartu dute parte; horietatik sei, etxekoak. Finaleko saioan oñatiar bakarra egongo da: Urko Arregi. Hilaren 16an, egubakoitza, da finala.



JOSEBA YARZA

Piano doinuak Santa Anan

Debagoieneko eta Sorluzeko 70 bat piano ikasle, 9 eta 15 urte artekoak, elkartu ziren astelehenean Santa Ana antzokian, jotzen ikasten ari diren instrumentu horrekin emanaldia egiteko. Orain arte ikasitakoa gurasoei eta lagunei erakusteko eta hilaren amaieran Andoainen egingo den piano jaialdirako entseatzeko saioa izan zen.

Beasainen jokatu du Erregional mailako futbol taldeak

Erregional Preferente mailako futbol taldeak Beasainen jokatu du asteburuan hango taldearen kontra. Hirugarren postuan daude oñatiarrak sailkapen nagusian, lehenengo doan Tolosarengandik puntu bakarrera. Beasain zortzigarren postuan dago sailkapenean. Joan den asteburuan galdu egin zuten oñatiarrek, Azkoagainen.

Zirauntza ibaiaren iturburua ikusiko dute mendi irteeran

Otzaurtetik abiatuta, Arabako lurrak zapalduko dituzte otsailaren 18an Aloña Mendik antolatuta egingo duten mendi irteeran. Otsailaren 15a aurretik eman beharko du izena interesa duenak, Aloña tabernan edo alonamendi.mendi@gmail.com helbidera idatzita. Prezioa hamar euro da. Federatuta egotea beharrezkoa da.

Euskal kantuen festa Oñatin

Ilusioa, sormena, irribarrea, poza, urduritasuna... horiek guztiak eta gehiago eroan zituzten asteburuan 248 neska-mutiko oñatiarrek oholtzara. 57 taldetan banatuta, euskal kantuak abestu eta dantzatzuz gozatu zuten eta gozarazi zituzten ikusleak

Aitor Garitano OÑATI

Kantari saioaren bigarren geldiunea Oñatin izan zen pasa den asteburuan. Ahotsa berotu, gerruari buelta batzuk eman eta entsegu guztiak egin eta gero iritsi zitzaizen gaztetxoei euskal kantu tradizional eta gaur egun pil-pilean daudenak taularatzeko ordua.

Artista txiki baina handi direnak familia eta lagunez inguratuta izan ziren ikuskizun egun handian. Pankarta, globo, txalo zaparrada eta animo pila jaso

zituzten gaztelekura gerturatu ziren lagunenetatik.

Oraingoan ere izan da sorpresarik. Kantarizale diren Potx eta Lotx pailazo oñatiarrek festarekin bat egin eta *Auskalomendi* kantua eskainiz; sekulako giroa jarri zuten bertan.

Hurrengoa, Bergaran

Goiena telebistan ere estreinatu dira, jada, Kantariren seigarren aldiko lehen saioak. Behin Aretxabaletako eta Eskoriatzako gaztetxoak kantuan ikusi eta

gero, Oñatin grabatutako saioak izango dira ikusgai martxoaren 3tik aurrera.

Hurrengoa, Bergaran

Aratusteak pasa ostean, Bergarara iritsiko da Kantari. Otsailaren 17an eta 18an egingo dituzte entseguak Bergara, Antzuola eta Elgetako gaztetxoek, Zabalotegin. Ondoren, otsailaren 24an eta 25ean izango da ikuskizun egun handia, ez nolana hiko aretoan, gainera: Seminari-xoa areto berrian.



Txapel dotoreekin abesteko prest. AITOR AGIRIANO



Potx eta Lotx pailazoak kantuan. AITOR AGIRIANO



Mutil kuadrilla, gorbata dotoreekin. AITOR AGIRIANO



Surf taula eskuetan dutela pozik. AITOR AGIRIANO



Neska taldea, argazkirako posatzen. AITOR AGIRIANO

6. ALDIA
Kantari
DEBAGOIENA

Bergara, Antzuola eta Elgetako partaideok, eman azken errepasoa abestiari eta koreografiari!

ENTSEGUAK
Otsailaren 17an eta 18an, Zabalotegi aretoan.

IKUSKIZUNA
Otsailaren 24an eta 25ean, Seminari-xoa aretoan.

Animatu eta etorri neska-mutikoekin kantuan eta dantzan egitera!

Informazio gehiago: 943 25 05 05 / 688 69 00 04 / blogak.goiena.eus/kantari

goiena



Ibai Fernandez, eguaztenean, Mojatetik atletismo pistan, entrenatzen. XABIER URZELAI

Ibai Fernandez, ibarreko inoizko atleta azkarrena?

ATLETISMOA Arrasateko abiadura-lasterkariak Euskadiko Txapelketa irabazi du 60 metroko proban (6.92), eta Espainiako Txapelketa absolutuan lehiatuko da datorren astean, Valentzian. Arrasateko inoizko atleta azkarrena da, eta Debagoienekoa?

Xabier Urzelai ARRASATE

"60 metroko proban zazpi segundotik jaitea sekulakoa da, e!", dio Arrasate Atletiko taldeko ordezkari Fernando Zufiriak. "Arrasaten abiadura atleta bakarra izan dugu 7 segundotik jaisteko kapaz izan dena; duela 15 urte inguru izango zen, Unai Sarabiak lortu zuen". Hala, orain arte Fernandezek 6.94ko marka

zuen, eta asteburuan Anoetan bi ehunen ondu du denbora hori (6.92), Gipuzkoako junior mailako errekorra berdinduz: "Gustura sentitu nintzen txapelketa eta ondo egin nuen korrika", dio Fernandezek.

Bada, Arrasaten ez da inoiz atleta azkarragorik egon, ezta Debagoienean ere, haren entrenatzaile Mikel Uribealagoren

ustez: "Bergaran, esaterako, garai batean, atleta azkarrak izan genituen; beste modalitate batzuetan jarduten zuten: pertikan, luzera saltoan... Baina distantzia horretan inor ez da marka horretara gerturatu".

100 metroko proban, 10.81

Pista estaliko denboraldian 60 metroko lasterketak dira abia-



Fernandez, podiumaren erdian, asteburuko sari banaketan. ARRASATE ATLETIKO

dura-lasterketa motzenak, eta aire zabaleko denboraldian 100 metrokoak: "Hor 10.81eko marka daukat. Biak dira diziplina zailak, baina, 100 metroko lasterketan akats bat eginez gero, ondoren zuzentzeko tarteaz izaten duzu, nahiz eta txikia izan. 60 metroko lasterketan, berriz, dena egin behar da ondo".

Fernandez 12 urte ingururekin hasi zen atletismoan, aitzak eraman zuen Arrasateko atletismo eskolara, eta, ordutik hona, abiadura izan du buruan: "Atletismoan egin dudana modalitate bakarra da. Imaginatzen dut nire entrenatzaileak [Mikel Uribealago] garbi duelako gaitzuzekoetarako ez dudala balio", dio, umorez. "Egia esan, ez naiz nabarmentzen oinkada luzea daukadalako, edo frekuentzia oso azkarra, baina bai, nahiko azkarra naiz", dio. Eta Zufiriak: "Oraindik oso gaztea da, baina 6.80ko markatik jaisteko kapaz ikusten dut".

Espainiako Txapelketa

Marka horrekin, Arrasateko Estatuko 30 korrikalari azkarraren artean dago -20 urtez azpikoetan rankingeko bigarre-

na da-. Hilaren 17an Valentzian izango da, Espainiako Txapelketa absolutuan. Hor azkarrenak izango ditu ondoan: "Maila ona egongo da, bai. Maila absolutuan parte hartzen dudana lehenengo Espainiako Txapelketa izango da; ikastera noa".

Munduko Txapelketa bidean

Fernandezek, baina, uztailean du urteko helburu nagusia. Arrasateko 20 urtez azpiko Munduko Txapelketa (Tampere, Finlandia) parte hartzeko aurrezkerrendan dago, Espainiako Selektioarekin: "Gabonetan Madrilen egon nintzen eurekin entrenatzen. 4x100 metro txandakakoan parte hartzeko aurrezkerrendan nago, baina pista estalian ondo jardutearekin batera aire zabaleko denboraldia izango dute kontuan. Denboraldi luzea izango da; ea progresio ona izaten dudana".

"100 METROKOAN AKATS BAT ZUZENDU DAITEKE, BAINA 60 METROKOAN DENA EGIN BEHAR DA ONDO"

ARETO FUTBOLA

Eskoriatzak eta Mondratek, derbia

Atzealdeko postuetatik urruntzeko lehiak dabilta, Euskadiko Txapelketa barruan, Eskoriatza eta Mondrate, eta gaur, egubakoitza -20:15, Manuel Muñoz kiroldegia-, 15. jardunaldiaren barruan, elkarren aurka jokatuko dute, Eskoriatzan. Bien artean bost puntuko aldea dago -informazio gehiago 22. orrialdean-.



Xabi Iñurria, baloiarekin. I.SORIANO

ARETO FUTBOLA

Aretxabaleta UDAK Durango hartuko du

Ligako laugarren garaipena eskuratzeko asmoz kantxaratu-ko dira maila nazionalen jokatzen dabilta Aretxabaleta UDAko mutilak bihar, zapatua (17:30) Ibarren. Sasikoa Durango taldea izango dute aurrean, bost puntu gehiago batuta sailkapenean 11. postuan dagoen taldea -garaipen bat gehiago baino ez dute-.



Manso, taldea antolatzen. I.SORIANO

ESKUBALOIA

Fagor Industrialek eta Ford Mugarrik, kanpoan

Euskadiko Txapelketa 18. jardunaldia jokatuko dute Euskadiko Txapelketa bi ordezkariak -emakumezkoetan Aloña Mendik atsedean izango du- eta biek ala biek kanpoan dute hitzordua. Fagor Industrialek Errenterian jokatuko du, zapatua (17:30), eta Ford Mugarrik Berangon (19:45). Ereintza eta Askartza dira kontrarioak.



Bergarak Vasconia hartu zuen urteko lehen partiduan, eta orduan ere Agorrosin zurituta zegoen. Ikusteko dago bihar. I.SORIANO

Aratusteak ospatzeko motiboak behar dituzte

FUTBOLA Mondrak, Bergarak eta Aretxabaletak etxean jokatu dute, hirurek zapatuan; garaipenak emango die, ondoren, Inauteriak behar den moduan ospatzeko motiboa. Joan den astean Arrasatekoak izan ziren puntu bat batu zuten bakarrak

Xabier Urzelai ARRASATE

Aratusteak hobeto ospatzen dira zorroan hiru puntuak batuta, eta horretan ahaleginduko dira Ibarreko hiru ordezkariak bihar –UDAk partidua zapatuta aurreratu du–. Gainera, aurrealdekoen borrokan jarraitzeko hirurek ere nahiko pattal hasi dute 2018a. Zuri-moreak (35) dira emaitza txukunenak batu dituz-

tenak –hamabost puntutatik zortzi– eta Bergara (38) eta Aretxabaleta (27) makalago ibili dira, nahiz eta sailkapenean mahoneroek hiru puntuko errenta duten.

Aurrealdekoen borroka

Bihar, partidu erakargarria da sailkapenean hirugarren eta laugarren postuetan dauden

Bergarak eta Pasaiak elkarren kontra jokatu dutena (16:00, Agorrosin). Aretxabaletak, berriz, jaitsiera postuetatik aldentzeko lehian dabilen Urolaren bisita izango du (16:30), eta Mojategin Mondra eta Zarautz izango dira zein baino zein gehiago (16:30). Zarautzarrak sailkapenaren erdian daude, arrasatearrek baino bost puntu gutxiagorekin.

Atsedena, indarrak hartzeko

Leintz Arizmendik atsedena izango du oraingo asteburuan; joan den astean, Mariñoren kontra 1-1 egin zuten. Euskal Ligan diharduen taldeari bederatzigarren partidu geratzen zaizkio liga amaitzeko, eta helburu garbia dute: mailari eustea. Hala, datorren asteburuan kontrario zuzena den Hernaniren bisita izango dute Mojategin.



Arizmendikoak erasoan, Erandioren kontrako partiduan. I.SORIANO

ASTE BUKAERAKO HITZORDUAK

FUTBOLA

EUSKAL LIGA

Leintz Arizmen.
(Atsedena).

OHOREZKO ERREGIONA.

UDA-Urola

Zapatua. 16:30. Ibarra.

Mondra-Zarautz

Zapatua. 16:30. Mojategi.

Bergara-Pasaia

Zapatua. 16:00. Agorro.

ERREGIONAL PREFERE.

(Atsedena).

LEHEN ERREG. IGOERA

Munibe-Aloña Mendi

Domeka. 15:30. Donostia.

ERREGIONALA. KOPA.

(Atsedena).

EMAKU. IGOERA FASEA

Bergara-Touring

Zapatua. 17:30. Ipintza.

OHOREZKO GAZTEAK

Billabona-Mondra

Zapatua. 11:30. Zumarra.

Lazkao-Bergara

Domeka. 16:00. Lazkao.

Aloña Mendi-Aretxab.

ARETO FUTBOLA

NAZIONAL MAILA

Aretxab. UDA-Durango

Zapatua. 17:30. Ibarra.

EUSKADIKO TXAPELK.

Eskoriatza-Mondrate

Gaur. 20:15. M.Muñoz.

Mondrate

(Atsedena).

GIPUZKOAKO LIGA

Mondrate (atsedena).

SENIOR EMAKUMEZKOA

Eskoriatza-Samaniego

Gaur. 22:15. M.Muñoz

OHOREZKO GAZTEAK

Eskoriatza-EFS Siero

Domeka. 13:00. M.Muñoz.

GAZTEAK

Mondrate-Zarautz

Zapatua. 12:45. Iturripe.

KADETEAK

Arizmendi-Erain

Domeka. 11:00. M.Muñoz.

Mondrate-Intxaurrond.

Zapatua. 11:00. Iturripe.

Zarautz-Mondrate Dra.

Zapatua. 13:00. Zarautz.

SASKIBALOA

EBA

MU-Ordizia

Zapatua. 19:00. Iturripe.

GIPUZKOAKO LEHEN M.

Atletico-Aloña Mendi

Zapatua. 20:00. Donostia.

GIP. BIGARREN MAILA

Hernani-Bergara Soral.

Zapatua. 16:45. Hernani.

GIP. HIRUG. MAILA

Aloña Mendi-Monago

Zapatua. 16:00. Zubikoa.

MU C-Take Coach

Domeka. 16:00. Iturripe.

SENIOR EMAKUMEZKO

Antigua-Eskoriatza

Domeka. 12:00. Donostia.

ESKUBALOA

EUSKADIKO TXAPELKE.

Ereintza-Fagor Indust.

Zapatua. 17:30. Erreter.

Askartza-Ford Mugarri

Zapatua. 19:45. Berango.

EUSKADI. TXAP. EMAK.

Aloña Mendi (atseden.)

GIPUZKOAKO TXAP.

Pulpo-Soraluce BKE

Zapatua. 17:30. Zumaia.

Urola-Sesiñena Aloña

Zapatua. 11:30. Zumarra.

ERRUGBIA

EUSKADIKO TXAPELKE.

Kanpanzar Arrasate

(Atsedena).

PILOTA

PILOTA FEDERATUA

Oñati:

Gaur. 18:30. Sei partidu.

Aretxabaleta:

Gaur. 19:45. Hiru partidu.

Arrasate:

Gaur. 20:15. Partidu bat.

Bergara:

Domeka. 17:00. Bi partidu.

A+Gas taldeak aurten ez du Udalako Igoera antolatuko

AUTOMOBILISMOA "Hirugarren edizio bat egongo da aurrerago, baina aurten atsedena hartuko dugu"

X.U. ARRASATE

Euskadiko Automobilismo Federazioak gertu du 2018ko egutegia, eta nobedadeetako bat da aurten ez dutela Udalako Auto Igoera antolatuko: "Halako lasterketa bat Arrasatera ekarri gura genuen, hemen zaletasuna dagoelako, eta egindako bi edizioekin oso gustura geratu gara. Lasai asko esan genezake gure helburua bete dugula, arrasatearrei rally mundua gerturatzea, hau izan da eta beti gure helburua. Baina Udalakoa lasterketa motza da, bi kilometro pasatxo-

koa, eta pilotuek gehiago gozatzeko dute igoera luzeagoetan. Gainera, lasterketa antolatzeko zailtasunak izan ditugu urtero; hala, aurten atsedena hartzea erabaki dugu. Dena dela, aurrerago egongo da hirugarren edizio bat", adierazi dute A+Gas taldeko lagunek.

Eskuderiatik, baina, lanean jarraituko dute euren pasioa herritarrei gerturatzen, besteak beste, uztailearen 7an egingo duten Gatzagako Auto Igoera euren antolatuko dute eta (informazio gehiago *Puntuari*).



Handia filmeko lantaldea, Goya sariak eskuratu berri. AITOR ARREGI

Goya sarien aje gozo eta luzea 'Handia'-rendako

Hamahiru izendapenekin joan ziren eta hamar sarirekin itzuli ziren etxera Moriarti ekoiztetxeak. Isabel Coixetek zuzendutako 'La librería' filmak lortu zituen fikziozko film onenaren eta zuzendariaren sariak; eta 'Veronica' filmak, soinu onenarena

Aitziber Aranburuzabala OÑATI

Aurreko astelehenean, urtarriaren 29an, joan zen Madrilera Aitor Arregi; galaren inguruko konpromisoekin, hedabideei erantzuten... aste lanpetu baina emankorra izan zuten. Lauzpa-bost sari lortuta pozik egongo zirela zioten orduan. Astebete geroago, hamar sari eskuratu-ta itzuli da oñatiarra etxera;

tartean, jatorrizko gidoi onenarena, Jon Garaño, Jose Mari Goenaga eta Andoni de Carlo-sekin batera.

Aitor Arregi eta haren lantaldea pozik dago Goya sarietan lortutakoarekin, baina nekaturta ere badaudela aitortu du Aitor Arregik. Aste honetan ez dute atsedenik hartzeko aukerarik izan. "Lainotik jaitsi gara,

edo, akaso, jaisten ari gara oraindik. Hurrengo astean lan bat egin behar dugu bai edo bai, eta ez dugu astirik izan deskantsurako; Madrilgo zurrunbilatik beste batera pasatu gara".

Ilusio eta poztasun partekatua

Asko dira —ezagutu edo ez— Arregiri zoriontzera joan zaizkionak. "Ez dut apenas zapaldu herria,

baina igarri dut jendearen maitasuna, eta eskerrak eman gurako nituzke erakutsitako gertutasunagatik. Eskerrik asko! Nabaritu dut jendeak jarraitu zuela gala; esan didatenez, tabernetan eta elkarteetan jendea isil-isilik zegoen ekitaldia ikusten. Gustura ikusiko nituzke une haietako irudiak".

Sarean ere irudi eta argazki bitxiak zabaldu dira egunotan; herriko txoko askotan eta herriar ezberdinen eskuetan ikus daiteke Goya saria. Semearen ikastolara eraman zuen Arregik *buruhandia*, eta okindegian topo egin zuten erosleek ere ukitu zuten. "Okindegiko gertaera polita izan zen. Kontua da ilobari eraman behar niola saria, baina ez zegoen etxean eta ogia eroatera joan nintzen. Dendan denak zoriontzen hasi ziren, eta, euren sorpresarako, poltsatik atera nuen Goya, eta argazkiak atera genituen".

Erakundeen omenaldiak

Euskal erakundeek ere gura izan dute *Handia*-ren lantaldea zoriondu; martitzen goizean Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariekin elkartu ziren, Donostian. "Egun berezia izan zen martitzena; gustatu zitzaidan. Donostiako udaletxean prentsaurreko batekin hasi genuen, eta handik Foru Aldundira joan ginen. Auresku bat egin ziguten; niretzako, behintzat, lehen aldia zen. Polita eta hunkigarria iruditu zitzaidan. Gora igo eta hitzaldi bat egin ziguten diputatuek; tartean, testu bitxi bat irakurri ziguten, orain dela 160 urte *Altzoko erraldoia*-k Foru Aldundiari egin zion eskaerari buruzkoa; detaile polita izan zen. Eta bukatzeko, txapel koloretsu eta berezi batzuk jantzi zizkiguten.

Borja Cobeagak esan duen moduan, *Loca academia de ertzainas* ematen genuen".

Arratsaldean, berriz, Gasteizen izan ziren, Lehendakari-tan. "Hori ere kuriozkoa izan zen. Argazkia atera genuen lehendakariarekin, eta gela handi baten sartu ginen gero, Kultura sailburuarekin eta lehendakariarekin. Esateko genuen guztia kontatzeko eskatuta, adi-adi jarraitu eta apuntatu zituzten gure eskaerak eta bestelako irizkiak. Taldeak asko baloratu zuen keinu hori. Guk eskatu genien politika horrekin jarraitzeko eta, ahal bada, gehiago sakontzeko eta laguntzeko kultura arloan, uste dugulako marka bat dela eta zaindu beharreko funtsezko gauza bat dela".

'Handia' eta proiektu berriak

Ez da amaitu *Altzoko erraldoia*-ren ibilbidea. Aretoetara eramango dute berriro. Oñatin, adibidez, otsailaren 16tik 18ra bitartean bost aldiz eskainiko dute, eta, hilaren 19rako, Arregirekin solasaldia antolatu dute, Santa Ana aretoan. Jaialdian ere izango dira: Mexikon, Santa Barbaran, Errumanian eta Mexikon, besteak beste.

Proiektu berriak ere ate joka dituzte. "Iban Zalduaren *Ama* kontakizunean oinarrituta dago. Istorio indartsua da. Eta *La trinchera infinita* film luzea maiatzean hasiko gara errodatzen, gazteleraz, Andaluziako ekoiztetxe batekin elkarlanean".

"GUTXI ZAPALDU DUT HERRIA EGUNOTAN, BAINA MAITASUN KEINU ASKO JASO"

AITOR ARREGI, 'HANDIA'-REN ZUZENDARIA

HARIRA

GOIENA TELEBISTA

OTSAILAREN 13AN, MARTITZENEAN 21:30EAN.

JULEN BOLLAIN, ELKARREKIN-AHAL DUGUKO LEGEBILTZARKIDEA.

ENEKO AZKARATEK AURKEZTUA.

LAGUNTZAILEA:

Markiegi

goiena
Zu hemen zaude.



IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Bergara. 70 metro koa-droko etxebizitza salgai Martoko kalean. Sukaldea jantzi berria, estreinatze-ko. Bainugela, hiru logela eta trastelekua. Guztia berria. Eguzkitsua. Gelek eta bainugelak kanpora ematen dute. Ilogailua. Teilatua eta fatxada isolamendu energetikoz hornitu berriak. Aukera ona. 688 63 36 26

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Ilogailua duen etxebizitza behar dugu errentan hartzeko. Bi logelakoa. 669 73 61 76

Bergara edo Arrasate. Etxebizitza behar dut errentan. Bi edo hiru logelakoa. Berdin da jantzi barik badago edo igogailurik ez badu ere. Hilean gehienez 500 euro ordain ditzaizkete. 632 77 35 38

Bergara. Pertsona eda-detu batentzat aproposa den etxebizitza jantzia hartu genuke errentan. Berogailu eta igogailuarekin. Gela bat edo bi nahikoa dira. Poligono inguruan badago, hobeto. 688 61 76 87

Etxea Errioxan. Bergara-ko familia batek abuztuan etxea hartuko luke errentan Errioxan, bost nagusi

eta bi haurrentzako. 680 17 33 61

2. GARAJEAK

204.ERRENTAN HARTU

Bergara. Gutxienez bi autorentzat lekua duen garajea hartuko nuke errentan. Idatzi Whatsapp -a edo deitu zenbaki honetara: 675 70 50 80

4. LANA

401. ESKAINITZAK

Aretxabaleta. Emakume bat behar da dependetzia duen pertsona nagusi bat zaintzeko. Beharrezkoa da "profesionaltasun ziurtagiria" edukitzea. Telefona: 669 92 72 77 (Marisol)

Bergara. Bertako emakume bat behar da asteburuetan, zapatu eguerditi igandegauera eta baita jaiegun batzuetan ere, emakume baten zaintzan jarduteko. Telefona: 605 70 83 93 (Leire)

Bergara. Umeak goizetan ikastolara eramateko eta eguerditan bazkaria emateko euskaraz dakien pertsona behar dugu. Deitu: 636 10 44 31 edo 626 25 75 90

402. ESKAERA

Arrasate. Emakume arduratsua nagusiak edo umeak zaintzeko gertu.

